







[www.emakunde.es](http://www.emakunde.es)

**txostenaemakunde2009**



# emakunde**2009**txostena

## emakunde emakumearen euskal erakundea 2009KO JARDUEREN MEMORIA



Eusko Jaurlaritzako erakunde autonomiaduna  
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco



Izenburua: Txostena. Emakunde, 2009

Egilea: Emakunde / Emakumearen Euskal Erakundea  
Manuel Iradier, 36 - 01005 VITORIA-GASTEIZ  
Tfnoa.: 945 01 67 00  
Faxa: 945 01 67 01  
e-mail: emakunde@ej-gv.es  
www.emakunde.es

Diseinua: equisbé

Inprimatzailea: Sacal

Ale-kopurua: 1.000

L.G.: XXX

# aurkibidea

<b>Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea</b> . . . . .	11
<b>Aurkezpena</b> . . . . .	21
<b>1. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea</b>	
<b>Eusko Legebiltzarraren IX. Legegintzaldian (2009-2013)</b> . . . . .	23
<b>1.1.</b> IX. Legintzaldia Eusko Legebiltzarrean. Emakunde- Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendaritza berria . . . . .	24
<b>1.2.</b> IX. Legintzaldia Eusko Legebiltzarrean. Berdintasunerako plan berria . . . . .	26
<b>2. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen</b>	
<b>zuzendaritza-organoen jarduerak 2009. Urtean</b> . . . . .	31
<b>2.1.</b> Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen Zuzendaritza-kontseilua . . . . .	32
<b>2.2.</b> Euskal botere publikoen esparruan Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko Zuzendaritza-taldeak garatutako jarduerak	33
<b>2.2.1.</b> Eusko Legebiltzarra . . . . .	33
<b>2.2.2.</b> Eusko Jaurlaritzako sailak . . . . .	34
<b>2.2.3.</b> Genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko zuzendaritza	34
<b>2.2.4.</b> Emakumeen eta gizonen berdintasunerako defentsa erakundea . . . . .	34
<b>2.2.5.</b> Foru-aldundiak eta udalak . . . . .	35
<b>2.2.6.</b> Arartekoa, Euskadiko Herriaren Defendatzailea edo Ombudsmana . . . . .	36
<b>2.2.7.</b> UPV/EHU Euskal Herriko Unibertsitatea. . . . .	37
<b>2.3.</b> Estatuko eta autonomia-erkidegoko berdintasunaren aldeko erakundeekin lankidetzan aritzeko, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaritza-taldeak egindako jarduerak .	38

2.4.	Euskadiko elkarteen sareari eta gizarte-eragileei dagokinez, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaritza-taldeak garatutako jarduerak . . . . .	40
2.4.1.	Emakumeen elkarteen sarea . . . . .	40
2.4.2.	Enpresak eta beste gizarte-eragile batzuk . . . . .	40
2.5.	Komunikabideen arloan Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaritza-taldeak garatutako jarduerak . . . . .	43
2.6.	Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaritza-taldeak ekitaldi, saio eta biltzarretan egindako jarduerak . . . . .	49
<b>3.</b>	<b>Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari atxikitako batzordeek garatutako jarduerak.</b> . . . . .	<b>53</b>
3.1.	Emakumeen eta gizonen berdintasunerako erakunde arteko batzordea. . . . .	54
3.2.	Emakumeen eta gizonen berdintasunerako sail arteko batzordea.. . . .	55
3.3.	Emakundeko aholku batzordea . . . . .	57
<b>4.</b>	<b>Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko esparru funtzionalen jarduerak</b> . . . . .	<b>59</b>
4.1.	Sustapena, aholkularitza eta erakundeen koordinazioa . . . . .	60
4.1.1.	EAEko administrazio orokorra . . . . .	60
4.1.2.	Foru-administrazioa eta toki-administrazioa . . . . .	61
4.1.3.	Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakunde arteko batzordea . . . . .	67
4.1.4.	EAEko beste erakunde batzuekin eta beste autonomia-erkidego batzuekin garatutako lankidetzak . . . . .	70
4.2.	Generoaren eraginari buruzko aurretzako ebaluazioa. . . . .	72
4.3.	Berdintasun-planak: txostenak, aholkularitza . . . . .	73
4.4.	Prestakuntza . . . . .	74
4.4.1.	Aholkularitza espezializatua . . . . .	74
4.4.2.	Barne-prestakuntza . . . . .	75
4.4.3.	Kanpoko prestakuntza . . . . .	77

<b>4.5.</b>	Jarraipena eta ebaluazioa . . . . .	80
<b>4.5.1.</b>	Botere publikoen jarduketa-memoria . . . . .	80
<b>4.5.2.</b>	Emakumeen aurkako indarkeriaren esparruko zerbitzuen irismenaren eta eraginkortasunaren ebaluazioa . . . . .	81
<b>4.6.</b>	Emakume taldeei zuzendutako aholkularitza eta laguntza . . .	82
<b>4.6.1.</b>	Aholku batzordea . . . . .	82
<b>4.6.2.</b>	Elkarteei emandako laguntza ekonomikoak. . . . .	85
<b>4.7.</b>	Enpresei zuzendutako aholkularitza eta laguntza. . . . .	95
<b>4.7.1.</b>	Berdintasun-planak: txostenak eta aholkularitza . . . . .	95
<b>4.7.2.</b>	Enpresei eta erakunde pribatuei zuzendutako dirulaguntzak . . . . .	95
<b>4.7.3.</b>	Erakunde laguntzaileen jarraipena. . . . .	96
<b>4.7.4.</b>	Aholkularitza-erakundeen homologazioa eta jarraipena	96
<b>4.8.</b>	Programak gauzatzea. . . . .	98
<b>4.8.1.</b>	Nahiko. . . . .	98
<b>4.8.2.</b>	Gizonduz . . . . .	100
<b>4.9.</b>	Aholkularitza juridikoa. . . . .	104
<b>4.10.</b>	Azterketak, ikerketak, argitalpenak . . . . .	105
<b>4.10.1.</b>	Dirulaguntzen deialdia. . . . .	106
<b>4.10.2.</b>	Argitalpenak . . . . .	107
<b>4.11.</b>	Dokumentazio-zentroa . . . . .	109
<b>4.12.</b>	Gizartearen sentsibilizazioa . . . . .	116
<b>4.12.1.</b>	Emakunde aldizkariaren argitalpena . . . . .	116
<b>4.12.2.</b>	Berdintasunerako Emakunde saria . . . . .	117
<b>4.12.3.</b>	Kanpainak . . . . .	120
<b>4.12.4.</b>	Emakumeen eta gizonen berdintasunerako VI. Foroa. 2009. . . . .	122
<b>4.12.5.</b>	Beste gizarte-erakunde edo -eragile batzuek antolatutako jardueretan parte hartzea. . . . .	123
<b>5.</b>	Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen komunikazio-plana IX. Legegintzaldirako . . . . .	127
	<b>ERANSKINAK . . . . .</b>	<b>131</b>





Emakunde, Emakumearen  
Euskal Erakundea.  
Izaera, araubide juridikoa  
eta funtzioak

2/1988 Legeak, otsailaren 5ekoak, Emakunde, Emakumearen Euskal Erakundea sorrarazi zuen, izaera administratiboko erakunde autonomo gisa, nortasun juridikoz hornituta eta Eusko Jaurlaritzako Lehendakartzari atxikita.


Beronen xede nagusia Euskal Autonomia Erkidegoko politika, ekonomia, kultura eta gizarte-bizitzako alor guztietan gizonezkoen eta emakumezkoen arteko benetako eta egiazko berdintasuna lortzea da. Lanerako zehaztutako helburuak garatzeko xedez, Euskal Autonomia Erkidegoko berdintasun-politikak sustatzeko, aholku emateko, planifikatzeko eta ebaluatzeko erakunde izaera hartu du Emakundek.

Erakundearen funtzioak berau sortzeko emandako lege horretan zehazten direnak dira. Dena den, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, aldatu egiten ditu, eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari honako hauek dagozkiola dio:

- Arestian proposatu diren xedeak erdiesteko gida-lerroak lantzea eta Autonomia Erkidegoko herri-aginte guztiek aplikatu dituzten bultzatzea.
- Berdintasunerako politiken eta Autonomia Erkidegoko legeriaren jarraipena egitea, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioarekin egokitzeari dagokionez; alde batera utziko da bereizkeriaren aurkako araudia.
- Legegintzaldiko eraldaketa-proposamenak lantzea, bi sexuen arteko benetako berdintasun iraunkorra tratatzen edo galarazten duten oztopoak ezabatuz; eta 4/2005 Legea garatzeko araudia proposatzea.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunari dagozkion txostenak egitea eta irizpenak ematea, Autonomia Erkidegoko Administrazioak proposatzen dituen xedapen orokorrak lantzeko prozedurak irauten duen artean.
- Genero-ikuspegia arlo politiko guztietan integratzeko metodoak diseinatzea.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunean eskudunak diren erakunde, organo eta unitateetako langileen eginkizunei eta gaikuntzari dagokienez, oinarrikoak eta komunak diren baldintzak proposatzea euskal administrazio publikoetan horretarako ardura dutenei.
- Euskal herri-administrazioei emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean prestakuntza-planak diseinatzen eta proposatutako helburuak lortzen laguntzea, eta horri buruzko aholkuak ematea.

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sail arteko Batzordearen eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordearen zereginak bultzatu eta koordinatzea; halaber, emakumeen egoeran eta emakumeen eta gizonen berdintasunean eragina duten programei dago-kienz ez Autonomia Erkidegoko herri-aginteen artean izan beharreko koordinazio-neurriak bultzatzea.
- Emakumeen eta gizonen baldintza, beharrian eta interesak aztertzea, bai eta horren guztiaren ondorioz bizitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialean gertatzen diren desberdintasunak ere. Horretarako, jarduketa-arlo guztietan egin beharreko politikak taxutzeko azterlanak egitea bultzatuko da.
- Aholkua ematea eta sustapen-neurriak ezartzea, enpresek eta erakundeek bitarteko materialak eta ekonomikoak eta giza baliabideak eduki ditzaten emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesteko diseinatzen diren programak eta jarduerak garatu ahal izateko.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan zerbitzuak eskaintzen dituzten erakundeak homologatzeari aplikatuko zaizkion betekizunak eta baldintza oinarritzkoak eta komunak proposatzea, hain zuzen, eskumena duten organoei.
- Bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumei oinarritzko gizarte-eskubideetarako sarbidea izan dezaten bermatzeko zerbitzuak eskaintza bultzatu eta proposatzea.
- Emakumeek eta gizonak bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzea erraztuko dituzten zerbitzu soziokomunitarioak eskaini eta egoki daitezela bultzatu eta proposatzea.
- Herritarrak sentiberatzea. Horretarako, emakumeen eta gizonen berdintasunaren esanguraren eta garrantziaren gainean eta berdintasun hori lortzeko lan egin behararen eta emakumeen jabe-kuntzaren gainean bidezkoztat jotzen diren sentsibilizazio, sustapen eta zabalkunde-jarduerak eta kanpainak egingo dira.
- Elkarrekin, fundazio eta beste erakunde batzuekin harremanak eta parte-hartze bideak ezartzea, baldin eta erakundeon xedeak edo eginkizunak Emakunderen helburuak lortzeko lagungarri badira.
- Beste autonomia-erkidego batzuetako, Estatuko eta nazioarteko antzeko erakundeekin harremanak eta parte-hartze bideak ezartzea.
- Eta, azkenik, beraren xedeen arloan agintzen zaion beste edozein eginkizun betetzea.

## Emakundeko Zuzendaritza Kontseiluaren osaketa



- Lehendakaria
- Emakundeko zuzendaria
- Emakundeko idazkari nagusia
- Eusko Jaurlaritzako sailak (6 kide)
- Foru Aldundiak (3 kide)
- Udalak (3 kide)
- Eusko Legebiltzarrak zuzenean izendatuta (6 kide)
- Eusko Legebiltzarreko Gizarte Politikak, Lana eta Berdintasunaren Batzordea
- Aholku-batzordeko ordezkaria

## EGITURA ORGANIKOA ETA FUNTZIONALA

### 1. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen Zuzendaritza-organoak

Emakunde sortzeari buruzko 2/1988 Legeak dio hauek direla erakundearen zuzendaritza-organoak:

- Zuzendaritza Kontseilua.
- Erakundeko zuzendaria.

#### 1.1. Zuzendaritza Kontseilua

Zuzendaritza Kontseilua urriaren 31ko 214/2006 Dekretuak, Emakunderen egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak, arautzen du. Bertan xedatzen denez, besteak beste, honako funtzio hauek ditu kontseiluak: erakundearen jardunari buruzko urteko memoria onestea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana, Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen egoerari buruzko ebaluazio-txostena, herri-botereek arlo horretan izandako jardunari buruzko memoria eta berdintasunaren arloko arauen proiektuak onestea, gero Jaurlaritzari aurkezteko.

Zuzendaritza Kontseilua, erakundearen zuzendaritza-organo den heinean, honako hauek osatzen dute:

- Kontseiluburua: Eusko Jaurlaritzako lehendakaria.
- Kontseiluburuordea: Emakundeko zuzendaria.
- Kontseilukideak:
  - Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak sei ordezkari izango ditu, hain zuzen ere hezkuntza, enplegua, osasuna, industria, kultura eta gizarte arazoan arloetako eskumenak dituzten sei sailburuorde.
  - Foru-aldundietako hiru ordezkari izango ditu, eta foru-diputatuak izango dira. Euskal udalen hiru ordezkari.
  - Eusko Legebiltzarrean emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan eskuduna den batzordeak ordezkari bat izango du.
  - Eusko Legebiltzarrak sei ordezkari izendatuko ditu, eta izendapenerako, pertsona horiek emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde arlo pertsonalean edo profesionalean egindako lana hartuko da kontuan.
  - Emakunderen Aholku Batzordeak ordezkari bat izango du.
- Idazkaritza: Emakundeko idazkaria.

#### 1.2. Emakundeko zuzendaria

Erakundeko zuzendariaren eginkizunak jada aipatu den 214/2006 Dekretuak arautzen ditu. Besteak beste, honako eginkizun hauek izango ditu Emakundeko zuzendariak: Erakundearen

legezko ordezkaria izatea, Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak zuzentzea, erakundearen administrazioa zuzentzea, bai eta bere zerbitzuen jardueren kudeaketa eta barne-ikuskapena ere, eta berariaz Emakunderen eginkizunak direnez eta Zuzendaritza Kontseiluaren edo Idazkaritza Nagusiaren eskumenekoak ez direnez arduratzea.

## **2. Kudeaketarako administrazio-organoa: idazkaritza nagusia**

Emakundeko Idazkaritza Nagusiaren eginkizunak ere 214/2006 Dekretuaren bidez arautu dira, eta, hauek dira, besteak beste: Emakunderen zerbitzuak bultzatzea, koordinatzea eta gainbegiratzea ekonomiaren eta finantzen kudeaketan, ondarearen eta aurrekontuaren kudeaketan, plangintzan, azterketa eta dokumentazioan, lege-aholkularitzaren eta informazioaren arloan, programazioan eta beste erakunde batzuekiko lankidetzan; ondokoak bultzatzea, koordinatzea eta gainbegiratzea: kudeaketa-prozedurak eta laguntza informatikoak, bai eta erakundearen azpiegiturak eta baliabide materialak beharizanetara egokitzen direla ere; barne-prozedurak prestatzea, gastuak baimentzeko eskumena erabiltzea, erakundeko langileak administratzea eta kudeatzea, eta horiek trebatzeko eta hobetzeko programak prestatzea.

## **3. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari atxikitako batzordeak**

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen urriaren 31ko 214/2006 Dekretuak adierazitakoaren arabera, hauek dira Emakunderi atxikita edota lotuta dauden organoak, berorien sorrera eta funtzionamenduari buruz xedatutakoarekin bat etorri:

- 3.1. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordea.
- 3.2. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sail arteko Batzordea.
- 3.3. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko Aholku Batzordea.

### **3.1. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordea**

Emakunderi atxikitako batzorde hau 4/2005 Legeak sortu zuen; Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta foru- eta toki-administrazioek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan garatzen dituzten politikak eta programak koordinatzea izango da organo horren eginkizuna.

Urtarrilaren 16ko 5/2007 Dekretuak arautzen du batzorde hori, eta honela zehazten du beronen osaera:

- Batzordeburua: Emakundeko zuzendaria.
- Batzordekideak:

- Alde batetik, Eusko Jaurlaritzaren ordeztu, hiru pertsona, sailburuorde maila dutenak, honako arlo hauen ardura dutenak: herri-administrazioa, lana eta gizarte-gaiak; eta, bestetik, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzako burua.
  - Hiru foru-aldundien ordeztu, aldundi bakoitzetik bi pertsona, diputatu maila dutenak.
  - Udal-administrazioaren ordeztu, sei pertsona, zinegotzi maila dutenak.
- Idazkaritza: Emakundeko idazkaria.

### **3.2.Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sail arteko Batzordea**

Sail arteko Batzordea 1993an eratu zen formalki, Dekretu bidez. Hala ere, Eusko Jaurlaritzaren berdintasun-politikek eta batzordearen lanek izan duten garapenak berak berau egokitu beharra ekarri dute.

Batzorde hori, 4/2005 Legean zehazten dena eta gaur egun abenduaren 26ko 261/2006 Dekretuak arautzen duena, gaur egun emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan Eusko Jaurlaritzak gauzatzen dituen ekintzak koordinatzeko ardura duen organoa da.

Emakunderi atxikitako batzorde hori honako hauek osatzen dute:

- Batzordeburua: Eusko Jaurlaritzako lehendakaria.
- Batzordeburuordea: Emakundeko zuzendaria.
- Batzordekideak:
  - Lehendakaritzako idazkari nagusia.
  - Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzak ordezkari bat izango du batzordean, sailburuorde bat, hain zuzen ere.
- Idazkaritza: Emakundeko idazkaria.

### **3.3. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko Aholku Batzordea**

Aholku Batzordea 1998an sortu zen, ekainaren 9ko 103/1998 Dekretuaren bidez. Emakunderi atxikitako batzorde hori, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan esku hartzen duten elkarten sareari zuzendutako informazio-, aholku- eta proposamen-organoa da.

Emakundeko zuzendariak eta langile teknikoek ez ezik, Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen elkarte eta fundazioek ere osatzen dute, baldin eta, beren estatutuetan jasotzen denaren arabera, xede bakar berdintasun-printzipioa sustatzea badute. Aholku Batzordearen barnean, elkarte eta fundazio horiek honako lau jarduketaren eremu hauetako bati atxikita geldituko dira, beren xedeen arabera: arlo sozio-kulturala, hezkuntza-arloa, asistentzia-sanitate arloa eta feminismoari buruzko azterketarako arloa.

Honako hauek osatuko dute:

- Batzordeburua: Emakundeko zuzendaria.
- Batzordeburuordea: Emakundeko idazkaria.
- Batzordekideak:
  - Hamabi batzordekide, parte hartzen duten elkarte eta fundazioen ordezkaritza betez, lurralde historiko bakoitzean jarduketa-eremu bakoitzeko bat.
  - Emakundeko Ikerketa, Plangintza eta Dokumentazio arduraduna.
  - Emakundeko Prestakuntza-arduraduna.
- Idazkaritza: Emakundeko Informazio eta Elkarteen arduraduna.

#### **4. Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakunde arteko akordioaren jarraipen-batzordea**

VIII. Legegintzaldiaren esparruan, 2009ko otsailaren 3an, etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakunde arteko II. Akordioa sinatu zen, eta Jarraipen Batzordea eratzeko erabakia hartu zen akordio horretan. Batzorde horren eginkizunen artean, akordioan bertan biltzen diren neurri eta jarraibideak eraginkortasunez aplikatzeko bermearekin lotutakoak zehazten dira, eta elkarrekin egiteko jarduketan proposamenak eta erakundeen arteko koordinazioa hobetzeko eta jarduketa-protokoloan ageri direnak sor daitezkeen egoera eta testuinguru berrietara egokitze bidea ere zehazten dira.

Erakunde arteko II. Akordioak xedatutakoaren arabera, honako hauek osatzen dute Jarraipen Batzordea:

- Batzordeburua: Emakundeko zuzendaria.
- Honako erakunde hauetako kide diren batzordekideak (sailburuorde maila edo antzekoa dutenak):
  - Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia
  - Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskaltza Nagusia
  - Honako arlo hauetan eskumenak dituzten Eusko Jaurlaritzako sailak:
 

. Osasuna	. Herritarren Segurtasuna
. Justizia	. Gizarte Zerbitzuak
. Gizarte Bazterketa	. Enplegua
. Etxebizitza	. Hezkuntza
  - Arabako Foru Aldundia
  - Bizkaiko Foru Aldundia
  - Gipuzkoako Foru Aldundia
  - Eudel-Euskadiko Udalen Elkarte

- Legelarien Euskal Kontseilua
- Euskadiko Sendagileen Kontseilua
- Idazkaritza: Emakundeko idazkari nagusia

IX. Legegintzaldian Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailak izango duen egitura organiko eta funtzionala arautzen duen 471/2009 Dekretuak, abuztuaren 28koak, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza sortu eta arautzen duen bitartean, emakumeen aurkako indarkeriaren esparruko Erakunde arteko Akordioaren Jarraipen Batzordean zuzendaritza horren sorrera aintzat hartzeko lan-prozesu bat ireki da.

## **5. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako defentsa-erakundea**

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundea 4/2005 Legeak sortu zuen; eta organo horren ardura, hain zuzen, Euskal Autonomia Erkidegoan sexuaren ziozko diskriminazio-kasuetan biztanleak defendatzea eta emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa betetzen dela zain dadin sustatzea da.

Ekainaren 13ko 119/2006 Dekretuaren bidez araututako Defentsa Erakundea Emakunderi atxikita egongo da, beronen egitura hierarkikoan txertatu gabe, eta bere eginkizunak betetzeko autonomia osoa izango du, Administrazioari dagokionez.

## **6. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen kudeaketarako eremu funtzionalak**

Emakundek kudeaketarako bost eremu funtzionaletan antolatutako egitura du, eta horien inguruan biltzen dira bertako langileak.

- Administrazio-eremua
- Aholkularitza juridikoari eta informazioari dagokien eremua.
- Lankidetzaren eremua.
- Azterketa, agiri eta plangintzen eremua.
- Hezkuntzari eta programei dagokien eremua.

Adierazitako eremu horietako baten ardura duten eta horietan lan egiten duten langileez gain, Emakundek badu lan-talde orokor bat ere, izaera orokorreko administrazio-zereginetan laguntzeko, eta ordenantza gidari bat ere badu.

Azkenik, erakundeko zuzendariari aholku-lanak betetzen dituen pertsona batek eta idazkari batek laguntzen diote, bai VIII. Legegintzaldian eta bai IX.ean. Eta Emakundeko idazkari nagusiak ere idazkari baten laguntza du.



## aurkezpena

**M**emoria honek Emakunde 2009rako eraturako ekintza-planaren berri ematen du; 2009ko martxoaren 1ean Eusko Legebiltzarra osatzeko egindako hauteskunde ondoriotz, 2009ko ekitaldia bi legegintzalditan banatuta gelditu zen, VIII. eta IX. legegintzaldietan, hain zuzen.

Erakundeak 2009rako garaturako ekintza-planak otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, eta urriaren 31ko 214/2006 Dekretuak, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak, esleitzen dizkioten funtzioak betetzeko zereginari erantzuten dio. Halaber, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planetik ondorioztatutako konpromisoei ere erantzuten die planak, VIII. Legegintzaldian, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren esparruan eta euskal botere publikoei begira, jarraibide eta ildo orokorrak ezarri baitzituen plan horrek; eta 4/2005 Legeak legegintzaldi bakoitzaren hasieran plangintza berri bat egiteko ematen duen aginduari ere erantzuten dio. IX. Legegintzaldirako, agindu hori EAEko Emakumeen eta Gizoneko Berdintasunerako V. Planean zehaztu da, hain zuzen.

Emakunde EAEko berdintasun-politikak sustatzeko, horiei buruzko aholkua emateko, plangintza egiteko eta horiek ebaluatzeko erakundea da, eta, berdintasunaren esparruan, 4/2005 Legetik eratorritako edukiak plangintza orokor baten bidez zehazteko ardura du; hori guztia kontuan hartuta, honen egunez eguneko zeregin eta kudeaketan bi jarduketa-ildo horiek nagusitzen dira.

Emakundeko ekintzei buruko memoriari dagokionez, berau erakunde horretako Zuzendaritza Kontseiluak onetsi behar du, 214/2006 Dekretuan zehazten denaren ildotik. Horregatik, jardueren memoria hau, Emakunde 2009an garaturako lanari dagokiona, Zuzendaritza Kontseiluak onartu du, 2010eko ekainaren 9an egindako bilkuran.

Erakundeak garatu dituen ekintzen ikuspegi globala ematen du memoriak, ekintza horiek beren testuinguruan kokatuz. Erakundearen zuzendaritza-organoek (Zuzendaritza Kontseilua eta Emakundeko zuzendaria), idazkari nagusiak, erakundeari atxikitako batzordeek eta Emakundeko antolamenduari eusten dioten esparru funtzionaltako langile tekniko eta administratiboek garaturako lana deskribatzen du, beraz.





1. Emakunde-Emakumearen  
Euskal Erakundea Eusko  
Legebiltzarraren  
IX. Legegintzaldian  
(2009-2013)

## 1.1. IX. Legintzaldia Eusko Legebiltzarrean. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendaritza berria

Memoria hau aurkezterakoan adierazi denaren ildotik, 2009. urteak badu ezaugarri bat: Eusko Legebiltzarreko bi legegintzaldiri egokitzea. Dekretu bidez (2009ko urtarrilaren 6ko EHAA n argitaratua), 2005eko apirilaren 17an hautatutako Eusko Legebiltzarra desegin zen, eta Legebiltzarrerako hauteskundeetarako deialdia egin zen; 2009ko martxoaren 1ean izan ziren hauteskunde horiek, eta IX. Legegintzaldiari horietan eman zioten hasiera.

Legegintzaldi berri horretan, 2009ko maiatzaren 5ean, lehendakari berriak, Francisco Javier Lopez Álvarezek, kargua hartu zuen; eta, horrekin batera, Emakundearen zuzendaritza aldatu egin zen. Horrela, maiatzeko bigarren hamabostaldian, Emakundeko aurreko zuzendariak kargua utzi zuen, eta Emakundeko zuzendari berria, María Silvestre Cabrera, eta idazkari nagusi berria, Arantxa Elizondo Lopez, izendatu ziren.

Uztailaren 9an, Gobernuaren Lehendakariaren egoitzan, eta lehendakariaren partidetzarekin eta babesarekin, Emakundeko zuzendaria eta Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzako burua aurkeztu zitzaizkion euskal gizarteari, ekitaldi ofizial baten bidez. Emakumeen elkarte ugariak parte hartu zuten ekital-



Uztailaren 9an, Jauriritzaren Lehendakariaren egoitzan, lehendakaria bertan zela eta haren babesarekin, ekitaldi ofizial bat egin zen, euskal gizarteari Emakundeko zuzendaria eta Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko zuzendaria aurkezteko



María Silvestre eta Arantxa Elizondo

di horretan, eta IX. Legegintzaldi honetarako batak eta besteak izango zituzten jarduketa-ildo nagusiak ezagutarazi ziren.

Aurkezpenaren ekitaldi ofizialaren une bi

Emakundeko zuzendari berriaren lehentasun nagusietako bat Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legea bete dadin arduratzea da, izan ere, 2005. urtean Eusko Legebiltzarrean lege hori onartzeak mugarri historikoa adierazi baitzuen, EAEn emakumeen eta gizonen berdintasunera iristeko bidean. Horretarako, EAeko berdintasun-politikak sustatzeko, horiei buruz aholku emateko, plangintza egiteko eta ebaluatzeko dituen funtzioak betetzeaz gain, erakunde publiko eta pribatuekin nahiz gizartearen arloko elkarte eta eragileekin lankidetzara sustatzera zuzendutako lana indartuko du, euskal gizartearen egunez egunekoaren esparru guztietan emakumeen eta gizonen berdintasunerako printzipioa garatzeko orduan, herritar guztiak inplikatu ahal izateko.

Bestalde, Emakunderen beste asmoetako bat erakunde hau herritarrek gertuko elkarte gisa ikusi, jaso eta senti dezaten lortzea da; emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde ari direnen eta gizarte-eraldaketarako proiektu feministaren zati direnen desafioei erantzun behar die. Horrez gain, garbi adierazi behar da proiektu hori ezinezkoa zatekeela mugimendu feministarik eta emakumeen elkarerik gabe, edota emakumeen eta gizonen berdintasunerako bidean lan egiten duten eta aurrera egin duten emakume guztiek, eta gizonek, modu anonimoan, egin duten ahaleginik gabe.

## 1.2. IX. Legintzaldia Eusko Legebiltzarrean. Berdintasunerako Plan Berria

Bai Emakunde sortzeko Legeak eta bai Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak diote Emakundek, legegintzaldi bakoitzaren hasieran, plan orokor bat egin behar duela, eta plan horrek, modu koordinatu eta globalean, legegintzaldi horretan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean botere publikoen jarduera gidatuko duten esku-hartze ildoak eta jarraibideak jaso behar dituela.

4/2005 Legeak agintzen duenari jarraituz, Eusko Jaurlaritzako, foru-aldundietako eta udaletako sail guztiek beren planak landu behar dituzte, adierazitako plan nagusi horretan xedatzen diren jarraibideen arabera. Horretarako, ezinbestekoa da berdintasunerako planak edo proiektuak diseinatzen eta garatzen dituzten profesionalen ezaguerak eta esperientzia biltzeko eta, beraz, horien parte-hartzea ziurtatzeko bidea emango duen lanketa-prozesu bat egitea. Gure herrialdean emakumeekin lan egiten duten erakundeen igurikimenak eta berorien eskari eta helburuak ezagutzeko aukera ere eman behar du. Eta, azkenik, plan horrek botere publikoek berdintasunaren arloan garatuko dituzten ekintzak gidatuko dituen ildo nagusiak ezarri bitartean, lan-prozesu bat abiarazi behar du, Eusko Jaurlaritzan, foru-aldundietan eta udaletan erantzukizun politiko eta teknikoak duten eta berdintasun-politikak garatzen parte hartzen duten pertsonen arteko adostasuna eta lankidetzaz lortzeko.

2009. urtean, gainera, VIII. Legegintzaldia itxi da, eta IX.a hasi da; eta horrek berak ere aldaketa handia ekarri dio Euskadiko esparru politikoari. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak, sortu zenetik lehendabiziko aldiz, sozialista bat du lehendakari. Eta, testuinguru horretan, Autonomia Erkidegoan berdintasun-politikak garatzen jarraitzearekin batera, aurreko legegintzaldiarekiko aldaketa esanguratsuak eta hobekuntzak egiteko asmoa adierazi da; horretarako, abian da «EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana. IX. Legegintzaldirako Jarraibideak» plana egiteko prozesua.

Hobetzeko asmo horrek berarekin dakar orain arte EAEn berdintasun-politikak definitzen eta garatzen egindako bidea balioestea, egindako bidearen alderdi indartsuenak eta ahulenak zorrozki aztertzetik abiatuta, eta erdietsitako lorpenak kapitalizatzeko eta lortu nahi diren desafioak lortzeko estrategiak optimizatzeko.

Ildo horretatik, hauek dira hobetzeko bide horretan V. Planak zehaztu dituen helburuak: administrazioen multzo osoan, plangintza eraginkor eta zehatzagoak egiteko aukera ematea, koordinazioaren eta sailen arteko harremanaren bidez jarduketa integralagoa sustatzea, eta inpaktuaren adierazleen definizioan eta zehaztapenean hobetzea, horrela, esku hartzeko estrategia eraginkorrenak zein diren argi ikusteko, eta politikak genero-ikuspegitik behar edo hutsune handienak dituzten esparruetara edo gaur egungo errealitatea aldatzeko gaitasun handiena dutenetara bideratzeko.

Hortaz, EAEko berdintasun-politiketan helmuga komun bat definitzea da xedea, eta hurrengo lau urteei begira, lehentasunezko zat hartzen diren gizarte-aldaketak zein diren argitzea, baina administrazioetatik ezarri beharreko esku hartzeko estrategiak edo ekintza zehatzak definitzen hasi gabe. Batez ere, honako galdera honi erantzuteko ahalegina egingo da: hurrengo laurtekoan, generoaren ikuspegitik dauden hutsuneen artean zeinek dute lehentasuna?

2009. urte horretan, administrazioek eta emakumeen elkarten sareak teknikoki parte hartzeko prozesuari ekin zaio, 2010. urte hasieran, esku hartzen duten eta administrazioetan erantzukizun politikoa duten pertsonekin azterketarako eta adostasuna bilatzeko guneak zabaltzeko, eta, horrekin batera, herritarrei informazioa eman eta galdetzeko epe bat irekitzeko. Erakundeko Zuzendaritzak aurkeztu zien instantzia politikoei Berdintasunerako V. Planaren lanketa-prozesua, eta horretarako, urtearen azken hiruhilekoan alde biko bilerak egin ziren.

Euskal administrazio publikoek eta gizarte-eragileek egindako proposamenak biltzera, alderatzera eta planteamenduak egitera zuzentzen den metodologia batean oinarritu da prozesu hori.


Lehenengo pausoa Berdintasunerako V. Planaren oinarritzko orientabidea definitzea izan zen. Zuzendaritzarekin eta Emakundeko langile teknikoekin batera osatutako lan-taldeen bidez, orain arte egindako plangintzen punturik indartsuenak eta ahuleziak aztertu ziren. Fase horretatik sortu zen lehen zirriborroa, Berdintasunerako V. Planaren hasierako egiturari buruzkoa, eta lehen idatzaldi horretan, ardatzak, programak eta helburu estrategikoak proposatu ziren. Izaera eskematiko eta irekiko zirriborro horrek hurrengo faseetarako laneko tresna gisa balio izan zuen.

Maila teknikoan, Eusko Jaurlaritzako, foru-aldundietako eta udaletako sailtan berdintasunean espezializatuta dauden langile teknikoei deialdi irekia egin zitzairen; hasierako egituraren zirriborroa aurkeztu zitzairen, eta gogoetarako tresnak eta materiala eman zitzaizkien.

Hasierako egitura hori emakumeen elkarteei, sindikatuetakako berdintasunerako batzordeei eta beste elkarte batzuei ere aurkeztu zitzairen, lanketa-prozesuan berorien parte-hartzea bultzatzeko.

Hilabetez baino gehiagoz, Emakunderen web-orrian gune bat zabaltu zitzairen erakundeei eta gizarte-eragileei, beren ekarpenak igor zitzaizkien; eta eztabaida-taldeetan aztertzeke bildu egin ziren.

Talde horien bidez, berriro ere Eusko Jaurlaritzako, foru-aldundietako eta udaletako sailtako langile teknikoek parte-hartzea izan zuten talde horien bidez, zehazki, Berdintasunerako V. Planaren helburu eraginkorrak definitu ziren, eskuratutako datuetatik ondorioztatutako diagnostikoan oinarrituta. Azkenik, Emakundek azterketa bat eta berregituratze-lan bat egin zuen, eta hortik sortu zen zirriborroa; 2010ean



Web-orrialdearen irudia

Zuzendaritza Kontseiluari, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordeari eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sail arteko Batzordeari aurkeztu zitzaion, azter zezaten. Herritarrei jakinarazteko eta ekarpenak biltzeko informazio eta kontsulta publikorako fase batekin amaituko da lanketa-prozesua.

**EAE-KO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO  
V. PLANA LANTZEKO PROZESUAREN  
LABURPEN-KOADROA - IX. LEGEGINTZALDIA**

1. Planaren oinarrizko orientabidea: egituraren azterketa globala eta definizioa	2009ko irailaren 1etik 18ra
2. Proiektuaren aurkezpen politikoa	2009ko laugarren hiruhilekoa.
3. Proiektuak erakundeei aurkeztea eta ekarpenetarako aldia	2009ko urriaren 7tik azaroaren 13ra
4. Proiektua elkarteei aurkeztea eta ekarpenetarako aldia	2009ko urriaren 6tik azaroaren 13ra
5. Helburu eraginkorrak definitzeko lana	2009ko urriaren 14tik azaroaren 13ra
6. Helburu eraginkorren arteko alderaketa eta erakunde-maila desberdinekin eskumenak definitzea	2009ko urriaren 7a 2009ko azaroaren 26a 2009ko abenduaren 2a
7. Emakunde barneko langile teknikoekin barneko lana egitea	2009ko azaroaren 20tik abenduaren 3ra
8. Berdintasunerako V. Planaren zirriborria egitea	2009ko abenduaren 9tik 18ra
9. Berdintasunerako V. Planaren zirriborria Zuzendaritza Kontseiluari eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordeari eta Sail arteko Batzordeari aurkeztea	2010eko urtarrilaren 11tik 26ra
10. Jendeari informazioa emateko eta jendaurrean ezagutarazteko aldia.	2010eko otsaila/martxoa
11. Berdintasunerako V. Planaren proposamena lantzea	2010eko martxoa/apirila
12. Berdintasunerako V. Planaren behin betiko proposamena egitea, Zuzendaritza Kontseiluak eta Jaurlaritzaren onartzeko	2010eko martxoa/apirila





2. Emakunde-Emakumearen  
Euskal Erakundearen  
Zuzendaritza-Organoen  
Jarduerak 2009. Urtean

## 2.1. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen Zuzendaritza-Kontseilua

Legegintzaldi berria hastera zihoazenez, beharrezkoa izan zen Emakundeko Zuzendaritza Kontseilu berria eratzea. Horregatik, zuzendaritza berria osatu ondoren, talde berri horretan biltzen diren Eusko Jaurlaritzako sailletako eta ordezkariak duten erakundetako batzordekideak eta ordezkariak izendatzeko eskaria egin zen.

Zuzendaritza Kontseilua 2010eko urtarrilaren 11n eratu zen, lehendakaria buru zuela, eta legegintzaldiko lehenengo ohiko bilera egin zen, beraz; gai hauek landu ziren bilera horretan:

- «EAE-ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana. - IX. Legegintzaldirako Jarraibideak» lan-agiria aurkeztea.
- «Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak - 2008. urtea» txostena aurkeztu eta onartzea.
- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV Plana Botere Publikoen Alorrean Gauzatzeari buruzko Jarduera Txostena - 2008. urtea» agiria aurkeztea eta onartzea.
- 2009. urtean Emakunderen Berdintasun Saria jasotzeko izendatutako hautagaiak aurkeztea.

Bilera horretan, Emakundeko zuzendariak eta idazkari nagusiak parte hartu zuten, hurrenez hurren, lehendakariorde eta kontseiluko idazkari karguetan.

## 2.2. Euskal botere publikoen esparruan Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaritza-taldeak garatutako jarduerak

### 2.2.1. Eusko Legebiltzarra

2009. ekitaldian eta IX. Legegintzaldiari dagokionez, Emakundeko zuzendariak, Legebiltzarreko taldeek egindako galderei idatziz erantzuteaz gain, hiru agerraldi egin ditu Eusko Legebiltzarreko Gizarte Politika, Lan eta berdintasun Batzordearen aurrean:

- Lehenengoa, Jaurlaritzaren eskariz eta 2009ko maiatzaren 12ko bileran hartutako erabakiaren ildotik, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak IX. Legegintzaldian bere jardunerako izango dituen ildo nagusiei buruz informazioa emateko. 2009ko ekainaren 24an egin zuen agerraldia.
- Bigarrena, beronen eskariz, txosten hauei buruzko informazioa emateko: «EAEko Instituzioen erantzuna emakumeen aurkako etxeko tratu txarren aurrean, psiko-



Legebiltzarrean  
egindako agerraldia

logia-alorrean» eta «EAEko osasun-esparruko erakunde-erantzuna emakumeen aurkako etxeko tratu txarren aurrean. 2008». 2009ko abenduaren 16an izan zen agerraldi hori.

- Azkenik, batzordearen eskariz, 2009ko abenduaren 16an agertu zen, Euzko Abertzaleak taldeak egindako eskariari erantzuteko; eta Emakunderen eta Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren artean koordinatuta lan egiteko modu berriari buruzko informazioa eman zuen agerraldi horretan.

### **2.2.2. Eusko Jaurlaritzako sailak**

Emakundeko Zuzendaritzak Gobernuko Lehendakariarekin aldian-aldian bilerak izaten ditu, Lehendakariaren ohiko kudeaketari buruzko jarduerak bateratu eta koordinatu ahal izateko; eta, horiez gain, 2009ko laugarren hiruhilekoan eta IX. Legegintzaldiari dagokionez, Emakundeko zuzendariak eta idazkari nagusiak elkarriketak egin zituzten Eusko Jaurlaritzako sailburu guztiekin, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planaren zirriborroko lan-ildo nagusiak aurkezteko eta, horrekin batera, emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan sail horiek izan zitzaketen lehentasunak eta berorien eskariak bildu ahal izateko. Elkarrizketa horiek 2010eko urtarrilaren 7an amaitu ziren, lehendakariarekin egindako bilkura batean, eta Emakundeko Zuzendaritzak sailburuek adierazitakoaren berri eman zion lehendakariari.

### **2.2.3. Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza**

Emakundeko Zuzendaritzak eta Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak alde biko bilerak egin dituzte bi erakunde horiek nahitaezkoa duten koordinazioaz arduratzeko eta, horrela, emakumeen aurkako indarkeriaren arloan batak zein besteak garatu beharreko lanean koherentzia, osagarritasuna eta irmotasuna lortzeko.

### **2.2.4. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundea**

Emakundeko Zuzendaritzak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundearekin egin zituen alde biko bilerez gain, Defentsa Erakundeak UPV/EHU Euskal Herriko Unibertsitateko Berdintasun Zuzendaritzarekin batera antolatutako nazioarteko «Krisi Ekonomikoa, Generoa eta Ordainsaria» topaketan parte hartu



Emakundeko Zuzendaritza, lehendakariarekin eta Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko zuzendariarekin

zuen Zuzendaritzak. Unibertsitate horretako Udako Ikastaroen Programaren esparruan izan zen topaketa hori, irailaren 2an, 3an eta 4an.

Europar, berdintasunaren alorreko beste defentsa-erakunde batzuekin elkartzeko esparrua osatzen lagundu du topaketa horrek, eta, soldata-bereizkeriaz eta generoen arteko desberdintasunean eta emakumeen independentzia ekonomikoaren esparruan krisi ekonomikoak dituen eraginei buruz eztabaidatzeko aukera ere eman du topaketa horrek; emakumeen eta gizonen oinarritzko berdintasun-eskubideaz sentiberatzen lagundu du horrela.

### **2.2.5. Foru-aldundiak eta udalak**

Emakundeko zuzendariak eta idazkari nagusiak aurkezpenak egiteko eta iritziak trukatzeko bilerak egin dituzte foru-aldundiekin eta lurralde historikoetako hiri-buruetako udalekin, IX. Legegintzaldian Emakundek izango dituen lan-ildo nagusiak ezagutarazteko eta, horrez gain, berdintasun-politikak garatzeko orduan foru-aldundiek eta udalak izan ditzaketen beharrei eta eskariei buruz informazioa biltzeko.

Egun hauetan izan ziren bilerak:

- Uztailaren 22an. Donostiako Udalean.
- Uztailaren 29an. Bizkaiko Foru Aldundian.
- Irailaren 7an. Arabako Foru Aldundian.
- Irailaren 21ean. Bilboko Udalean.
- Urriaren 1ean. Gipuzkoako Foru Aldundian.
- Irailaren 30ean. Gasteizko Udalean.

Horrez gain, Emakundeko Zuzendaritzak bilera egin zuen urriaren 7an foru-aldundietan eta udaletan berdintasun-politiketan diharduten langile teknikoekin, zuzendaritza-talde berria aurkezteko eta, horrekin batera, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planaren lanketarako abiarazitako kontsulta eta ekarpen teknikoetarako prozesuaren berri emateko.

Azaroaren 25aren inguruan, Emakumearen aurkako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Egunaren inguruan, alegia, Emakundeko Zuzendaritzak EUDEL-Berdinsarearekin (berdintasunaren aldeko eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako Euskadiko Udalen Elkarte) eta Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzarekin batera, lan-prozesu batean parte hartu zuen, EAEn 2009. urtean emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan egin zen sentiberatze-kanpaina egiteko.

Azkenik, berdintasunaren aldeko eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako Euskadiko Udalen Elkarte (Berdinsarea) abian jartzeko Emakundek eta EUDELek 2005eko otsailean sinatutako Lankidetzaren Hitzarmenaren esparruan, Emakundeko Zuzendaritzak parte hartu zuen hitzarmen hori Eusko Jaurlaritzako Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren sorrerarekin eratutako antolamenduegitura berrira egokitzeko lan-prozesu batean. Egokitzapen horren helburua zuzendaritza hori Lankidetzaren Hitzarmenean eta berdintasunaren aldeko eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako Euskadiko Udalen Elkarteko Berdinsarearen lan-esparruan txertatzea zen.

## **2.2.6. Arartekoa, Euskadiko Herriaren Defendatzailea edo Ombudsmana**

Ekainaren 16an, Emakundeko Zuzendaritzak eta Arartekoak ere bilera egin zuten Emakunderen egoitzan bertan, beren burua aurkeztu eta iritziak trukatzeko. Horrez gain, Emakundeko Zuzendaritzak beste bi lan-bilera egin zituen Arartekoarekin erakunde honek Bilbon duen egoitzan, abenduaren 17an, eta Vitoria-Gasteizko egoitzan, 2010eko urtarrilaren 19an; eta datuak eta txostenak elkarrekin trukatu, lankidetzaren eta komunikaziorako bideak landu zituzten.

Lan-bilera horiez gain, Emakundeko zuzendariak, Arartekoarekin eta erakundeetako beste ordezkari batzuekin batera, Irungo Alardean eta Hondarribikoan parte hartu

zuen, keinu horren bidez, herri horietako jaietan gizonekiko berdintasun-egoeran emakumeek izan zuten parte-hartzea babesteko.

### **2.2.7. UPV/EHU Euskal Herriko Unibertsitatea**

Emakundeko zuzendariak «Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasuna Unibertsitatean» ikastaroan parte hartu zuen; UPV/EHUko Politika eta Administrazio Zientzien Saileko Genero Ikerketa Taldeak antolatutako ikastaro honetan, Unibertsitateko berdintasun-politikei buruzko gaiak landu zituen. Ikastaroa Bilbon izan zen, urriaren 15ean eta 16an, eta UPV/EHUko Berdintasun Zuzendaritzak eta unibertsitate horretako Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateak ere babestu zuten.

«Unibertsitateko Berdintasunaren Adierazleak» ikerketa-proiektuaren ondorioak aurkeztu ziren, eta berorietan, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde egingandako lana neurtzen duten adierazle batzuen arabera, unibertsitateen artean halako ranking bat egiten da.

## **2.3. Estatuko eta autonomia-erkidegoko berdintasunaren aldeko erakundeekin lankidetzan aritzeko, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakunde zuzendaritza-taldeak egindako jarduerak**

Martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunerakoak, dio, beren eskumenak garatzerakoan eta, zehazki, beren plangintza-jardueretan emakumeen eta gizonen berdintasun-eskubidea txertatzeko xedez, ezinbestekoa dela Estatuko Administrazio Orokorren eta autonomia-erki-degoetako administrazioen artean lankidetzan jardutea.

Lankidetzaz-esparru horretan, eta IX. Legegintzaldiari dagokionez, Emakunde Zuzendaritzak, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzarekin batera, bere burua aurkezteko eta iritziak trukatzeko bilera bat egin zuten uztailaren 14an Emakumearen Institutuko zuzendari nagusi Rosa María Peris Cerverarekin eta Genero Indarkeriako Gobernuko ordezkari Miguel Lorente Acostarekin.

Horrez gain, Emakunde Zuzendaritzak parte hartu zuen Berdintasun Ministerioaren gidaritzapean antolatutako Berdintasun Arloko Batzarreko Batzorde Teknikoan eta Berdintasun Batzarrean; hurrenez hurren, irailaren 23an eta urriaren 13an izan ziren bi ekitaldi horiek, Madrilan.



Estatuko  
erakundeekin  
egindako bilera

Bestalde, berdintasun Ministerioak azaroaren 4an antolatutako bileran ere parte hartu zuen Emakundeko Zuzendaritzak; autonomia-erkidegoetako eta Ceuta eta Melilla hiri autonomoetako berdintasunaren aldeko erakundeei zuzendu zitzaien bilera hori. Bilbon egin zen, Emakunde arduratu zen antolamenduaz, eta beraz, Eusko Jaurlaritzako bozeramalea, Idoia Mendia, arduratu zen irekiera-ekitaldiaz. Autonomia-erkidegoetan berdintasunaren alde lan egiten duten erakundeetako zuzendariak eta beste pertsona batzuk bildu zituen bilerak.

Azkenik, Egitura Funtsen eta Kohesio Funtsen barnean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren aldeko Politiken Sareak egin zuen lehen bileran parte hartu zuen Emakundeko Zuzendaritzak; azaroaren 30ean izan zen bilera, Madrilan, Emakumearen Institutuaren egoitzan. Sare horretako Lehendakaritzaren barnean, lehendakarikide dira Emakumearen Institutua (Berdintasun Ministerioa), Ekonomia eta Ogasun Ministerioa, eta Lan eta Immigrazio Ministerioa.

## **2.4. Euskadiko elkarten sareari eta gizarte-eragileei dagokinez, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaritza-taldeak garatutako jarduerak**

### **2.4.1. Emakumeen Elkarten Sarea**

Emakundeko Zuzendaritzak alde biko bilerak egin zituen biltzeko eta iritzia trukatzeko bilera egitea eskatu zioten Autonomia Erkidegoko emakumeen elkarte guztiekin, eta horrez gain, irailaren 30ean Emakunde Aholku Batzordea osatzeko deia egin zuen, eta parte hartu zuen batzorde horretan; IX. Legegintzaldirako erakundearen jarduketa-ildoak eta hainbat txosten emakumeen elkarten sareari jakinaraztea zuen helburu, eta, horrekin batera, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana lantzeko elkartei zuzentzen zaien prozesu parte-hartzailearen berri ere eman nahi zien. Bilera horretan, gainera, Zuzendaritza Kontseiluan parte hartzeko, Aholku Batzorderako ordezkari bat beteko zuen pertsona bat ere izendatu zen.

Berdintasunerako V. Planaren lanketa-prozesuari dagokionez, Emakundeko Zuzendaritzak bilera antolatu zuen emakumeen elkarten sarearentzat, sindikatuetako berdintasun-arloentzat eta esparru horretan parte hartzen duten beste elkarte batzuentzat; urriaren 6an izan zen bilera, eta Emakundeko zuzendaritzarekin batera, EAEko elkarteetako 75 ordezkari parte hartu zuten.

Plan horren lanketarako elkarten partaidetza-esparruan, Emakundeko Zuzendaritzak parte hartu zuen Gipuzkoako Aholku Batzordeak (VI. Jardunaldia, azaroaren 11n) eta Bizkaikoak (V. Jardunaldia, azaroaren 18an), urtero, «Emakumeen ahalduntzea eta gizartearen eta politikaren arloko parte-hartzea» lelopean, sustatzen dituzten jardunaldietan. Jardunaldi horien helburuetako bat parte hartu zuten elkarteek Berdintasunerako V. Planari egindako proposamenak lantzea zen.

### **2.4.2. Enpresak eta beste gizarte-eragile batzuk**

VIII. Legegintzaldian eta 2009. urtearen barnean, urtarrilaren 9an Emakundeko zuzendaritzari «Euskal gizonen eskutitza, berdintasunaren alde eta emakumeengana indarkeriaren kontra» agiriaren aldeko sinaduren orria eman zion Euskadiko Parke Teknologikoen Sareko lehendakariak, Julian Sanchez Alegriak; Gizonduz Ekimenaren esparruan dago kokatuta agiria, eta atxikimendua erakutsi zutenak 700dik gora izan ziren.



Suspergintza  
Elkartea

Halaber, nabarmendu beharrekoa da, 2009. urtean zehar, Emakundeko zuzendarriaren Ebazpenaren bidez, 10 erakunderi emakumeen eta gizonen arteko aukeraberdintasunerako erakunde laguntzaile izendapena eman zaiela. Figura hori azaroaren 8ko 1994/424 Dekretuaren bidez sortu zen, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde gizarte- eta lan-esparruan sor zitezkeen ekimenak sustatzeko eta, horrez gain, esparru horretan hainbat erakundek egindako lana ezagutarazteko. 1994an sortu zenetik 2009ra (urte hori ere barne hartuta) 42 erakundek jaso dute izendapen hori.

Izendapenean, horixe adierazten duen egiaztagiria eta plaka ematen dira. Egiaztagiri eta plaken banaketa, VIII. Legegintzaldiaren barnean, Emakundeko zuzendaritzaren eskutik egin zen, 2009ko lehen hiruhilekoaren barnean, eta izendapena 2008ko bigarren seihilekoan jaso zuten erakundeei eman zitzaizkien.

- Z&B Auditores, Consultores de Entidades Públicas, S.L.
- Elhuyar-Zubize, S.L.U.
- Behargintza, S.L.



Redox, S.A.



Ipar Kutxa Rural, S. Coop. de Crédito

IX. Legegintzaldiari dagokionez, Emakundeko Zuzendaritzak izendapena 2009an jaso zuten honako erakunde hauei eman zizkien egiaztagiri eta plakak:

- Ipar Kutxa Rural, Kreditu Sozietate Kooperatiboa
- Agintzari S.Koop.Mendiko San Jose zahar etxea
- Ingeteam Technology, S.A.
- Suspergintza Elkartea
- Deusto Sistemas, S.A.
- ATE Asesores de Gestión, S.A.
- Redox, S.A.
- Eteo, S.Koop.
- AZ Procesos Participativos, S.L.

## 2.5. Komunikabideen arloan Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaritza-taldeak garatutako jarduerak

Emakunderen helburuez herritarrak sentiberatzeko xedez eta egindako jarduerak ezagutarazteko, Emakundeko Zuzendaritzak komunikabideei zuzendutako senti-beratze- eta informazio-zeregin garrantzitsua betetzen du, prentsa-oharren, prentsaurrekoei eta bestelako deialdien bidez. Prentsaurrekoei eta beste deialdi batzuei dagokienez, honako jarduera hauek egin dira:

VIII. Legegintzaldian eta 2009. urtearen barnean:

- **Urtarrilaren 29an.** Emakunderen «Emakumeen eta gizonen presentzia Euskadiko erabaki guneetan» txostena aurkezteko prentsaurrekoa.
- **Otsailaren 2an.** «Dirigir en femenino» liburua aurkezteko prentsaurrekoa; Deustuko Unibertsitateko Generoa eta Komunikabideak iker-taldeak egina da liburua, eta, argitaratzeko, Emakunderen laguntza izan zuen.
- **Otsailaren 4an.** Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakunde arteko II. Akordioaren sinadura-ekitaldiaren inguruan, komunikabideei zuzendutako deialdia.



Urtarrilaren 29ko prentsaurrekoa



«Dirigir en femenino» liburuaren azala



Erakundeen Arteko II. Akordioaren sinadura



«Nahiko» programa

- Otsailaren 9an. 2008ko edizioko Emakunderen Berdintasun Saria emateko ekitaldiaren inguruan, komunikabideei zuzendutako deialdia; Bizkaia Emakume Asanbladari eman zitzaion saria.
- Otsailaren 13an. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin batera «Osasuna eta Emakumeak» programa aurkezteko egindako prentsaurrekoa.
- Martxoaren 2an. «Emakumeak greban. Gertatuko balitz?» lelopean, Emakumearen Nazioarteko Egunerako, martxoaren 8rako, presatutako kanpainaren aurkezpena; etxeko lanaren balioaz herritarrek sentiberatzea eta esparru horretan gizon guztien erantzunkidetasuna bultzatzea zuen helburu kanpainak.
- Martxoaren 8an. Emakumearen Nazioarteko Egunaren inguruan Emakundeko zuzendariak idatzitako iritzi-artikulu baten argitalpena.
- Apirilaren 6an. EAEko emakumeen lan-ibilbidean eta -egoeran dauden desberdintasunei eta emakumeen talentuaren galeran horrek duen eraginari buruzko azterlan bat aurkezteko prentsaurrekoa.

IX. Legegintzaldian Emakundeko Zuzendaritzak arlo honetan egindakoei dagokienez, ekainaren 1ean egin zuen Emakundeko zuzendariak bere lehen agerraldi publikoa komunikabideen aurrean, eta Nahiko Programaren emaitzak ere aurkeztu zituen.



«Nahiko»  
programaren  
emaitzen  
aurkezpena

Lehenengo agerraldi hori egin ondorenean, komunikabideei informazio-oharrak igortzeaz eta prentsa, irrati eta telebistan elkarrizketak egiteaz gain, Emakundeko Zuzendaritzak honako jarduerak hauek ere egin zituen.

- **Ekainaren 8an.** 2009an, Berdintasunerako Foroaren esparruan, Emakundek antolatutako «Emakumeen ahalduntzea eta gizartearen eta politikaren arloko parte-hartzea» mintegia aurkezteko komunikabideei zuzendutako deialdia.



2009ko  
Berdintasunerako  
Gunea



- Ekainaren 24an. Emakundek IX. Legegintzaldian zehar izango dituen jardueraildo nagusiak aurkezteko Emakundeko zuzendariak Legebiltzarrean egin beharreko agerraldia zela-eta, komunikabideei zuzendutako deialdia.
- Uztailaren 9an. Euskal gizarteari Emakundeko zuzendari berria aurkezteko ekitaldia zela eta, komunikabideei zuzendutako deialdia. Ekitaldi horretan parte hartu zuen lehendakariak, bere babesa erakutsiz.
- Azaroaren 1ean. Azaroaren 25ean Emakumearen aurkako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna zela-eta antolatutako kanpainarako, Legazpin bideo bat grabatzeko asmoaren berri emateko komunikabideei zuzendutako deialdia. Berdinsarearen esparruan, kanpaina Eudelen, Emakunderen eta Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren artean egin zen.
- Azaroaren 4an. Berdintasunaren esparruan lan egiten duten autonomia-erkidegoetako erakundeekin Bilbon egindako bileraren berri emateko komunikabideei zuzendutako deialdia; bilera horren antolamenduz Emakunde arduratu zen.
- Azaroaren 13an. Azaroaren 25ko Emakumearen aurkako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguneko kanpaina aurkezteko prentsurrekoa. Berdinsarearen esparruan, kanpaina Eudelen, Emakunderen eta Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren artean egin zen.

2009ko  
Berdintasunerako  
Gunea



Legazpin egindako bideo-grabazioa



Emakumeenganako indarkeriari aurre egiteko Nazioarteko Egunaren kanpaina

- Azaroaren 25ean. Emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan Emakundeko zuzendariaren iritzi-artikulu.
- Azaroaren 16an. «Instituzioen erantzuna emakumeen aurkako etxeko tratu txarren aurrean, EAEko psikologia-alorrean» eta «EAEko osasun-esparruko erakunde-erantzuna emakumeen aurkako etxeko tratu txarren aurrean. 2008» txostenak Eusko Legebiltzarrari aurkezteko, Emakundeko Zuzendaritzak Legebiltzarren egin beharreko agerraldiaren inguruan komunikabideei zuzendutako deialdia.

Deskribatutako jarduketaz gain, Emakundeko Zuzendaritzak elkarrizketa izan zuen azaroaren 17an Alberto Suriorekin, EITBko zuzendari nagusiarekin, erakunde publiko horretan berdintasun-plan bat abian jartzeko aukeraz hitz egiteko eta, horrez gain, erakunde horren barnean maila guztietan eta bakoitzean emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzera zuzendutako neurriak gehixeago garatzeko eskatzeko.

## berria

119

## Maite bazaitu, ez dizu minik egingo

Maria Silvestre

Emakundeko zuzendaria

**G**ertatutakoaz ez zen ohartu jokietan mina sentitu zuen arte. Ezer esan gabe, ukabilez jo zuen buruan, horren bat-batean, jo egingo zuela ez baitzen konturatu. Edo, agian, ezin zuen sinetsi jo egin zuenik. Lehenengo kolpea izan zen, eta berarekin berehala hautsi izan balu bere bizitza bestelakoa izango ote zen pentsatu zuen hurrengo urteetan.

Arnaldur Indridason idazle islantiarraren *Berdezko Emakumea* eleberriarren zati bat da. Paragrafo hori eleberriarren hasieran agertzen da, bat-batean, tupustean ia. Irakurri nuenean, harri eta zur egirik utzi ninduen «ezin zuen sinetsi jo egin zuenik» esaldiak. Paragrafoa behin eta berriz irakurri nuen, eta kasualitate zer den, goiz horretan bertan lagun on batek, horrek ere bat-batean, zera esan zidan: «Pentsatu al duzu inoiz zer sentituko zenukeen ezustean zure bikotekideak joko bazintu?». Eta une horretan, neure bizitzan oso urrutidun errealitate hori sentitu nahian, bihotza uzkurtu zitzaidan pentsatze hutsarekin.

Sarritan emakumeen aurkako indarkeriaz akademiko *oholtzatik* hitz egiten dugu, besteak beste, erakundeko, epailetzako eta gizarte-zerbitzuakako oholztatik, iritzia ematen dugu, baina sarritan ezjakintasunez. Ez dugu ulertzen emakume batek salaketa jarri, eta gero bikotekidearen aurka deklaratu nahi ez izatea; ez dugu ulertzen emakumeak urrutitze-agindu bat

eskatu eta gero, bikotekideari atak zabaltzea, eta ez ulertze horren ondorioz, zalantzan jartzen dugu emakume askok eta askok jasaten duten indarkeriaren larria. Zeren eta tratatu txarrak (fisiko, psikologiko, ekonomiko, sexual edo sozialak) jasaten dituen emakume bat ulertzeko, urteak joan urteak etorri tratatu txarrak zergatik onartzen eta jasaten dituen ulertzeko, etenik gabe erasoak eta zapalkuntza jasaten nola irauten duen ulertzeko, ez da nahikoa haren lekuan jaritzea, zeren eta huts egiten dugu leku horretatik, aurrez epaitzen dugu.

Nire beste lagun batek bromatan edo esaten duenez, jarduera-protokolo batzuk aurreikusita dituen egoera jakin batzuetan nola jokatu jakiteko, hain justu ere, unean uneko aldarrearen arabera arrazionalki jokatu ezin duenerako. Esate baterako, maite dugun pertsona baten heriotzaz, lagun baten saldukeriaz edo antzeko kasuez ari da. Zergatik azaldu dizuet bitxikeria hau? Genero-indarkeriaren kasuetarako jarduera-protokoloen beharra justifikatzeko. Tratatu txarrak jasaten dituzten emakumeak ezagutu, diagnostikatu eta artatu behar ditugu, horiei aholku eman behar diegu, horiekin egon, horiei entzun, baina hausnarketatik eta ezagupenetik abiatuta.

Genero-indarkerian espezializatuta egon behar dute tratatu txarrak jasan dituzten emakumeekin lan egiten duten emakume guztiak, emakumezko profesional guztiak (emakumea oinarritzko gizarte-zerbitzuan artatzen duen gizarte-lan-gilea; biktima artatzeko zerbitzuko psikologoa; aholkularitza juridikoa ematen dion abokatu;

kasuaren arduraren fiskala; epaia ematen duen epailea; salaketa jasotzen duen edo emakumea babesten duen polizia —utziko didazue denak emakumezko zat jotzen, kasu gehienetan egiteko horiek emakumeek betetzen dituzte eta; emakumeak emakumeei laguntzen—. Jakin beharra daukate emakume batek tratatu txarrak jasaten dituenean, zergatik ematen dituen bi pauso aurrera eta lau atzera. Beharrezkoa da genero-indarkeriaren biktimak nozitzen duen dolo-prozesuan harekin batera egotea. Prozesu horretan biktimarekin nola egon aurrez ezarrita egon behar da jarduera-protokoloetan, eta protokolo horiek diseinatzeko funtsezkoa da genero-indarkeriaren kasu batean tardean dauden elementu guztiak, banan-banan, sakon eta benetan ezagutzea.

Emakumeen aurkako indarkeria gizarte-arazoa da, oso larria —askotan esan dugu—, eta hori aintzat hartuta heldu behar diegu gaiari. Biktimak epe laburrean artatu behar ditugu, ahalik eta arte sozial, psikologiko, judicial eta polizia onena izan dezaten, beren bizitzak ahalik eta azkarren berregin ditzaten. Hala ere, pazientzia handia behar dugu, eta helburuak epe luzera ere jarri behar ditugu, zeren eta ezin dugu indarkeria suntsitu harik eta gure kultura-ereduak aldatzen ditugun arte, harremanetan errespetua nagusitzen den arte eta aukera-berdintasuna egia bihurtzen den arte.

Berdintasuna ameskeria da oraindik ere, eta ameskeria oztopo da berdintasunaren aldeko borroka legitimatzeko. Aitzitik, berdintasuna egia bihurtu dela uste dute-

nek Nagore Laffageren kasuan herri-epalmahaiak emandako epaitza arretaz aztertu baino ez dute. Pentsa dezatela gizarteak —epalmahai horretan ordezkaturak— zergatik uste duen emakume baten jokaerak, arriskuren bat hartu izanakin, erailketa leundu dezakeen. Errealitatea interpretatzeko modu horrek esan nahi du ikuspegi sexista bat dagoela emakume batek egin ahal duenari edo egin ezin duenari buruz, agerian uzten du norainoko indarra duten oraindik ere femeninoari eta maskulinoari buruz nagusi diren gizarte-erailkuntzek, eta indartu egiten du berdintasunaren diskurtsoa; berdintasuna ameskeria arin jasanezina baino ez da.

Hirugarren lagun batek, irakurri berri duzun artikulua irakurrita —gustura irakurriko ahal zuen!—, emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko ekintzarako dela eginez amaitzeko iradoki zidan. Bere aholkuari jarraituz —emakumezko lagun aholkuak entzun eta onartzen baitituz—, artikulua amaitzeko, zuri gauzatxo bat eskatzea erabaki dut: irakurle —gizoneko edo emakumezko zarelak—, minutu batez pentsa ezazu gure gizarteak, gure kulturak, bere gain errealismoz hartzen ote duen emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna. Ezetz ondorioztatzen baduzu, gure gizarte oraindik berdinezalea ez dela eta oraindik ere mendekotasun harremanak daudela uste baduzu, beste ahalegin txo bat ere eskatuko dizut: hartu beste minutu bat eta pentsa ezazu nola lagun dezakezun gure gizarte bidezkoago eta berdinezaleago izan dadin. Mila esker!



## 2.6. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaritza-taldeak ekitaldi, saio eta biltzarretan egindako jarduerak

2009an eta IX. Legegintzaldiaren barnean, Emakundeko Zuzendaritzak hainbat ekitaldi publikotan parte hartu du.

- **Maiatzaren 27an.** Emakundeko Zuzendaritzak 2009ko Bihotza Sarietako Berdintasun Saria eman zion Isabel Iturberi, Bizkaiko Emakume Enpresaburu eta Zuzendarien Elkarteko Presidenteordeari. Sari horietarako deialdia, urtero, ekonomia-arloko «Gestión 2-17» egunkariak egiten du.
- **Ekainaren 18an.** Emakundeko Zuzendaritzak Bartzelonako Unibertsitate Autonomoak antolatutako Emakumeen Lidergoari buruzko Jardunaldian parte hartu zuen.
- **Ekainaren 30ean.** Emakundeko Zuzendaritzak Irungo Alarde Mistoa babestu zuen, San Martzialetako Alardearen inguruko ospakizunen inguruan.
- **Uztailaren 2an.** Emakundeko Zuzendaritzak 2009ko Andrakintza sarien banaketan parte hartu zuen; Muskizeko Udalak emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunaren alde antolatzen duen sari honek X. edizioa zuen. Saria Acovidem elkarteari, etxeko indarkeriaren aurkako eta adingabekoen aldeko elkarteari, eman zitzaion.
- **Uztailaren 10ean.** Gipuzkoako Batzar Nagusiek Edurne Pasabani bere lana ezagutzeko emandako oroitzapenezko dominaren banaketa-ekitaldian izan zen Emakundeko zuzendaritza Nagusia.
- **Uztailaren 23an.** Hirukidek, Euskadiko Kide Ugariko Familien Elkarteak, bere egoitza berria inauguratzeko egin zuen ekitaldian parte hartu zuen Emakundeko Zuzendaritzak.
- **Irailaren 8an.** Emakundeko Zuzendaritzak bere babesa eskaini zion Hondarribiko Jaizkibel konpainia mistoari Hondarribiko Alardeko ospakizun-ekitaldietan.
- **Irailaren 23-25ean.** Zientzia Politiko eta Administrazioiko Espainiako Elkarteak (AECPA) eta Malagako Unibertsitateak antolatutako «Demokrazia birpentsatu: inklusioa eta aniztasuna» Zientzia Politiko eta Administrazioiko IX. Biltzarrean parte hartu zuen.



Eusko Ikaskuntzaren XVII. Kongresua: «Gizarte aurrerapen iraunkorrerako berrikuntza»

- Urriaren 15ean. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak antolatzen duen «Landa-eremuko emakumeak» Jardunaldien irekiera-ekitaldian izan zen Emakundeko zuzendaritza.
- Urriaren 15-16an. Emakundeko zuzendariak «Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasuna Unibertsitatean» ikastaroan parte hartu zuen; UPV/EHUko Politika eta Administrazio Zientzien Saileko Genero Ikerketa Taldeak antolatutako ikastaro honetan, Unibertsitateko berdintasun-politikei eta «Unibertsitateko berdintasun-adierazleak» ikerketa proiektuei buruzko gaiak landu ziren.
- Urriaren 21-23an. Madrilen ospatutako Etxeko Indarkeriaren eta Genero Indarkeriaren Behatokiaren III. Biltzarrean parte hartu zuen.
- Urriaren 28an. Emakundeko zuzendariak hitzaldia eman zuen Abadiñoko Udalak egindako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana (2008-2013) aurkezteko egindako ekitaldian.
- Urriaren 29-30ean. Emakundeko zuzendariak parte hartu zuen «Eragin edo botere handiko emakumeak?» saioan, Berdintasun Ministerioak antolatutako «Emakumeak Krisiaren aurrean» I. topaketaren barnean; Valentzian izan ziren ospakizunok.
- Azaroaren 11n. Aholku Batzordeak antolatutako Gipuzkoako Emakumeen Elkar-tearen IV. Topaketaren irekiera.
- Azaroaren 18an. Aholku Batzordeak antolatutako Bizkaiko Emakumeen Elkar-tearen V. Topaketaren irekiera.
- Azaroaren 18-20an. Eusko Ikaskuntzaren XVII. Kongresua: «Gizarte-aurrerapen iraunkorrerako berrikuntza», Eusko Ikaskuntzak Vitoria-Gasteizen antolatutakoa. Emakundeko Zuzendaritzak honako mahai-inguru honetan parte hartu zuen: «Gizarte-berrikuntza: kontzeptu konplexu baten askotariko dimentsioetara hurbiltzea».

Gipuzkoako Emakumeen Elkar-teekin egindako VI. Topaketa

Landa eremuko emakumei buruzko jardunaldia

- Azaroaren 24an. Zornotzako Udalak emakumeen aurkako indarkeriaren problematikaren inguruan antolatutako World Kafean parte hartu zuen.
- Azaroaren 26an. Berdintasunerako Euskadiko II. World Kafearen irekiera: «Ahalduntzearen kontzeptua berritzea», Lur Gozoak, Herriartasun Kontzienterako Plataformak, eta Mirrak, Emakumearen Lidergorako Elkarateak, Bilbon antolatutakoa.
- Azaroaren 26an. Azaroaren 25erako, Emakumeen kontrako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Egunerako, kanpainaren bideoa egiten, making off-ean eta abarretan Gipuzkoako Urola Garaia eskualdeak izan zuen inplikazioa aitortzeko ekitaldian parte hartu zuen Emakundek.
- Azaroaren 30ean. Leizaola elkargoak antolatutako «Bizitza familiarraren eta lanaren arteko uztarketari buruzko jardunaldiak» saioen barnean, hitzaldia eman zuen Emakundeko Zuzendaritzak; Bizkaiko Batzar Nagusien egoitzan izan ziren jardunaldi horiek.
- Abenduaren 3an. Emakundeko zuzendariak parte hartu zuen Adimen Ezintasuna duten pertsonen aldeko Elkarteen Euskal Federazioak (FEVAS) antolatutako «Presazkoa eta agerikoa: sexualitatea, pertsonaren balioa eta tratu txarrak» jardunaldian.
- Abenduaren 5-7an. Estatuko Koordinakunde Feministak eta Granadako «Maria Pineda» Emakumeen Elkarateak antolatutako «Granada: 30 urteren ondoren, hemen eta orain» Estatuko Jardunaldi Feministetan parte hartu zuen.
- Abenduaren 10ean. Giza Eskubideen Nazioarteko Egunean, Deustuko Unibertsitateko Gizarte eta Giza Zientzien Fakultateko Gizarte Laneko Sailak antolatutako jardunaldien barnean, «Berdintasunaren bizi-pena gizarte-eskubide gisa» hitzaldia eman zuen.
- Abenduaren 10ean. «Emakumearen eta Gutxitasuna Bizkaian» VI. Foroaren inaugurazioa; Fekoor-eko Berdintasunaren aldeko Emakume Batzordeak antolatu zuen, abenduaren 10ean eta 11n, Bilboko Euskalduna Jauregian; eta honako hitzaldia eman zuen: «Egoera funtzional desberdinaren ikuspegia eta gutxitasunarengatik gertatzen den diskriminazio bikoitza, etorkizuneko EAeko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planean».





### 3. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari atxikitako batzordeek garatutako jarduerak

### 3.1. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordea

Emakundeko zuzendaritza berria eratu ondoren, batzordekideak eta ordezkioak izendatzeko egindako eskaerari erantzun zitzaion Eusko Jaurlaritzako sailen eta Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren aldetik, foru-aldundien aldetik eta udal-administrazioiko ordezkarien aldetik, horrela, IX. Legegintzaldiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordea osatu ahal izateko. Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta foru- eta toki-administrazioek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan garatzen dituzten politikak eta programak koordinatzea da Erakunde arteko Batzorde horren eginkizuna.

Batzordea 2010eko urtarrilaren 14an osatu zen, legegintzaldi honetako lehenengo bilera egin zen egunean. Honako gai hauek landu zituen batzordeak:

- Batzordea osatzen duten kideetako bakoitzak berdintasunean aditutako langile teknikoak izendatzea, Erakunde arteko Talde Teknikoa eratu ahal izateko. Talde Teknikoaren eginkizunak azterketak egitea eta txostenak eta proposamenak egitea dira, Erakunde arteko Batzordeari laguntzeko eta aholku emateko.
- «EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana - IX. Legegintzaldia» planaren inguruko lanerako dokumentua eta kontsulta eta ekarpenetarako aurreikusitako lan-prozesua aurkeztea.
- Batik bat nahiko txikiak diren udalerrietan berdintasun-politikak sustatzeko, erakunde arteko lan-prozesuari buruzko informazioa.
- 2010. ekitaldirako berdintasun-arloan emango diren dirulaguntzak arautzen dituzten Emakundeko zuzendariaren ebazpenei buruzko informazioa.



Erakundearteko Batzordea



Sailarteko  
Batzordea

## 3.2. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sail arteko Batzordea

2009. urtea bi legegintzalditan banatu denez, urte horretan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sail arteko Batzordea kide desberdinek osatu dute, batzuk VIII. Legegintzaldiari baitagozkio, eta besteak IX.ari. Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan Eusko Jaurlaritzak gauzatzen dituen ekintzak koordinatzeko ardura duen organoa da, eta horren barnean sartzen dira bai Administrazio Orokorri dagozkionak, bai eta erakundeenak ere.

VIII. Legegintzaldian eta 2009. urteari dagokionez, Sail arteko Batzordeak otsailaren 6an egin zuen legegintzaldi horretako azken bilera, eta honako gai-zerrenda hau landu zuen bilera horretan:

- Aurreko bilerari zegokion akta onartzea.
- VIII. Legegintzaldiko EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planaren inguruan, 2008an garatutako programei buruz Emakundek Jarraipen Txosten bateratua aurkeztea.
- Sail bakoitzak, Berdintasunerako IV. Planaren esparruan, 2009. urterako egindako agiri edota programa aurkeztea.
- Emakundek berdintasunerako jardunbide egokien bankua aurkeztea.

- Galde-eskeak (puntu honetan, Emakundek Gizonduz programa aurkeztu zuen)<sup>1</sup>

IX. Legegintzaldia hasi eta Emakundeko zuzendaritza berriak kargua hartu ondoren, Eusko Jaurlaritzako sail guztietako batzordekideak eta ordezkioak, Sail arteko Batzordean ordezkari eta partaide izango zirenak, izendatzeko egindako eskaerari heldu zitzaion. Batzordea 2010eko urtarrilaren 26an eratu zen, legegintzaldi horretako lehen bilera egin zuen egunean, hain zuzen; hauek izan ziren bileran landu zituzten gaiak:

- Batzordea osatzen duten sailtako bakoitzak berdintasunean aditua den langile teknikoak izendatzea, Sail arteko Talde Teknikoa eratu ahal izateko. Talde Teknikoaren eginkizunak azterketak egitea eta txostenak eta proposamenak egitea dira, Sail arteko Batzordeari laguntzeko eta aholku emateko.
- «EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana - IX. Legegintzaldia» planaren inguruko lanerako dokumentua eta kontsulta eta ekarpenetarako aurreikusitako lan-prozesua aurkeztea.
- VIII. Legegintzaldiko EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana betetzearen inguruan, 2009an garatutako ekintzei buruzko Jarraipen Txostena egiteko informazioa ematea.
- Eusko Jaurlaritzako berdintasun-politika-antolamendu-egiturei buruzko dokumentu tekniko baten aurkezpena.
- «EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana - IX. Legegintzaldia» planeko ebaluazio-adierazleak definitzeko lan-prozesua aurkeztea eta, hala badagokio, onartzea.

---

1 Ikusi programaren xehetasunak 4.8.2 puntuan.

## 3.3. Emakundeko Aholku Batzordea

2009. urtean, Aholku Batzordeak bilera egin zuen irailaren 30ean. Batzorde horren zereginak hauek izan ziren:

- Emakundeko Zuzendaritzak IX. Legegintzaldian Emakundek garatu beharreko jarduera-ildoen berri ematea.
- Aholku Batzordearen ordezkaria aukeratzea, Emakundeko zuzendaritza Kontseiluan parte har dezan.
- «Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak - 2008. urtea» eta «EAEko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako IV Plana Botere Publikoen Alorrean Gauzatzeari buruzko Jarduera Txostena - 2008. urtea» agiriei buruzko informazioa ematea. Txosten horiek, gero, Zuzendaritza Kontseiluari aurkeztu zitzaizkion, eta 2010eko urtarrilaren 14an onartu zituen organo horrek.
- EAEko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako V. Plana lantzerakoan elkarte eta gizarte-eragileek izandako parte-hartze prozesuari buruz informazioa ematea.
- 2009ko Emakunderen berdintasun Sariari buruzko informazioa ematea, hautagaiak aurkezteko epea azaroaren 6an amaitzen zela aintzat hartuta.





#### 4. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko esparru funtzionalen jarduerak

## 4.1. Sustapena, aholkularitza eta erakundeen koordinazioa

### 4.1.1. EAEko Administrazio Orokorra

Eusko Jaurlaritzaren barnean berdintasun-politika sustatzeko eta aholku emateko funtzioa, batez ere, Sail arteko Talde Teknikoaren bidez betetzen du Emakundek. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sail arteko Batzordea<sup>2</sup> arautzen duen Dekretuak zehazten duenaren ildotik, talde horren helburua batzorde horretako kideei laguntza eta aholkularitza teknikoa ematea da, eta esleitzen zaizkion gaie-tan, azterlanak, txostenak eta proposamenak egingo ditu horretarako. Emakundek sustatzen eta koordinatzen du taldea eta, bai sail arteko bileren bidez eta bai alde biko bileren bidez, sail bakoitzari dagozkion sektoreko politiken azterketan laguntza ematen die, berdintasuna bultzatzen duten helburuak identifikatuz, jarduketarako estrategiak definituz eta sail bakoitzaren eta Gobernu osoaren berdintasun-politiken plangintzarako, garapenerako eta jarraipenerako tresnak planteatuz. Ildo beretik eta legegintzaldi osoan zehar, Gobernuaren sailei eta erakunde autonomoei laguntza eta aholkua eman zaie hainbat proiektu zehatzetan, batez ere, genero-ikuspegia txer-tatzeko asmoz materialak berrikusiz eta landuz, edota sektore bakoitzean landuko diren ekintza berritzaileak abian jarritz. Eta berdintasunerako politiken plangintza, kudeaketa eta ebaluazioa hobetzeko proposamenak ere lantzen dira.

Hauek dira Emakundeko Sail arteko Talde Teknikoaren esparruan 2009. urtean garatutako ekintza zehatzak.

- Sail arteko Batzordearen eta Sail arteko Talde Teknikoaren bileren antolamendua, prestaketa eta jarraipena.
- 2008. urteari dagokion Gobernuaren jarraipen-txosten bateratua lantzea.
- 2009. urteko agiri eta programak lantzeko eta beroriei dagozkien jarraipen-txos-tenetarako, Sail arteko Talde Teknikoko kideei aholkuak ematea.
- Sail arteko Talde Teknikoan, gogoetarako prozesu bat bultzatzea, Gobernuak azken urteetan garatutako politikak ebaluatu ahal izateko eta, horrekin batera, hobetzeko proposamenak egiteko, bai berdintasun-politiken sustapen eta koordi-naziorako antolamendu egituretan eta bai plangintza, jarraipen eta ebaluaziorako prozesuetan. Prozesu horrek honako agiri hauek eman ditu emaitzat:

<sup>2</sup> Ikusi Emakunderi atxikitako batzordeak, 3 orrialdean

- Azken urteetan Eusko Jaurlaritzak garatutako berdintasun-politiken ebaluazio kualitatiboa. Berdintasun-unitateen gogoeta.
- IX. Legegintzaldiari eta Berdintasunerako V. Planaren lanketari begira, plangintza nahiz ebaluazio eta jarraipena hobetzeko proposamena.
- Eusko Jaurlaritzako berdintasun-politiketarako antolamendu-egitura: sustapen-eta koordinazio-egiturak.
- Berdintasunerako Jardunbide Egokien Bankuaren diseinua. VIII. Legegintzaldian, Berdintasunerako IV. Planaren garapenean Gobernuko sailek egin zituzten jardunbide esanguratsuenak dokumentatzea eta dagokien balioa ematea du helburu; horrela, berdintasun-politiken diseinuan eta sustapenean lan egiten duten eragileek kontsultarako eta ezaguerak trukatzeko baliabidetzat erabili ahal izango lukete.
- Sail arteko Talde Teknikoaren esparruan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana lantzeko, partaidetza-prozesua sustatzea eta koordinatzea.

Sail arteko Talde Teknikoaren esparruan sail guztiei eskainitako aholkularitza-zerbitzuaz gain, Emakundek **alde biko lankidetzan** lan egiten du **Eusko Jaurlaritzako sailekin**, alorreko planetan edo erakunde arteko planetan genero-ikuspegia txertatzen laguntzeko eta aholkuak emateko, edota zenbait programa zehatz garatu ahal izateko. Ildo horretatik, 2009. urtean sail hauekin lan egin du Emakundek:

- Kultura Saila: Euskadiko Gazteen Legea eta III. Gazte Plana lantzeko Batzorde Teknikoan parte hartu da.
- Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila eta KZ guneak: EAEko emakumeen elkarteei zuzenduta, genero-ikuspegia txertatuta duen eremu digitaletako programa bat diseinatzeko lan-prozesu bateratu bati ekin zaio.
- Nekazaritza eta Ingurumen Saila: Landa Eremuko Emakumeen Batzordearen esparruan, plan estrategiko berri bat berrikusten eta lantzen parte hartu da.
- Herrizaingo Saila: Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak bul-tzatutako bi lan-taldetan parte hartu da:
  - Prostituzioari eta esplotazio sexualerako pertsonen trafikoari buruzko lan-taldea.
  - Immigrazio Zuzendaritzarekin batera, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei eta immigrazioari buruzko lan-taldea.

Hainbat **aholku-batzorderekin ere** lan egin du, berorietan **parte hartuz**. Zehazki, 2009. urtean honako erakunde hauetan parte hartu da:

- Drogamenpekotasunen Aholku Kontseilua
- Euskal Autonomia Erkidegoko herritar etorkinen integrazio eta partaidetza sozialerako foroa
- Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Kontseilua
- Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua.
- Landa Eremuko Emakumeen Batzordea
- Justizia Administrazioaren Euskal Behatokia

## 4.1.2. Foru-administrazioa eta toki-administrazioa

Foru-administrazioei eta toki-administrazioei aholkularitza ematen die Emakundek berdintasun-politikak planifikatzeko, gauzatzeko eta ebaluatzeko orduan.

Foru-administrazioari dagokionez, Bizkaian, Genero Indarkeriaren Behatokian, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailari atxikitako erakunde horretan, parte hartu duela nabarmendu behar da.

Udalekiko lankidetzak, batez ere, oinarritzko bi ildoren bidez garatu da:

### ***Berdinsarea - Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako eta berdintasunaren aldeko Euskadiko Udalen Sarea***

Sare hau Emakunderen laguntzaz sortu zen, eta 2005ean Eudel-Euskadiko Udalen Elkartearekin egindako lankidetzak-hitzarmenaren bidez jarri zen abian; berorren bidez, Emakundek konpromisoa hartu zuen sarea dinamizatuko zuen berdintasunerako eragile baten kontratazioa finantzatzen laguntzeko; eta Eudetek, berriz, berori sortzeko, kudeatzeko eta garatzeko beharrezkoak ziren ekintzak guztiak egiteko konpromisoa hartu zuen. Sare horrek organo hauen bidez lan egiten du: Jarraipen Batzordea, Eudel-Euskadiko Udalen Elkarteko eta Emakundeko ordezkariak osatua, hitzarmenaren jarraipena egiteko ardura izateaz gain, sarearen jarduera-ildoak zehazten dituen eta lan-plana lantzeko orduan lehentasunak proposatzen dituen, Gobernuaren politikekin eta gaineko erakundeekin koherentzia eta koordinazioa lantzeko; Osoko Batzordea,

sarearen gobernu-organoa da, sarean dauden udal guztietako hautetsi guztiek osatutakoa; eta Batzorde Teknikoa, udalerrri bakoitzak izendatutako berdintasun-teknikariekin, sareko idazkaritza teknikoaren ardura duen teknikariarekin eta Emakundeko teknikari batekin osatutakoa. Legegintzaldi berri honen hasieran, sarearen lana bultzatzen eta sendotzen ari gara, eta Emakundek bere zereginak hobeto bete ditzan laguntzen duten ekintzak berariaz sustatzen.

Hauek izan dira 2009an garatutako ekintzak:

- Eudelekin sinatutako hitzarmena luzatzea, Berdinsarea (berdintasunaren aldeko eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako Euskadiko Udalen Elkarte) mantentzeko. Horrez gain, hitzarmena aztertu da eta hainbat ekarpen egin dira, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza Berdinsarean txertatzeko.
- Udaletan berdintasun-politikak sustatzeko ardura duten politikariekin eta teknikariekin lan egitea.
- Jarraipen Batzordearen bileretan parte hartzea eta hartzen diren erabakien jarraipena egitea.
- Udalerriek Berdinsarean sartzeko egindako eskariak aztertzea eta ebaluatzea. Lau udalerriren sarrera onartu da (Zumarraga, Ezkio-Itsaso, Legazpi eta Urretxu). Sareko udalerrien kopurua 46ra iritsi da horrela.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Udaleko Ordenantza Markoa lantzeko taldean parte hartzea.

Lan-talde bat osatu da Eudelekin, Emakunderekin, udaletako idazkaritzekin eta zenbait udaletan berdintasunean lan egiten duten langile teknikoekin; eta, UPV/EHU Euskal Herriko Unibertsitatearen laguntza teknikoarekin, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Ordenantza Markoa landu da.

- Berdinlan Protokoloak lan-taldeetan (etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimea diren emakumeei laguntzeko tokiko protokoloak) parte hartzea.

2009. urtean, horrelako protokolorik ez duten udaletan tokiko protokoloak abian jartzeko ahalegina egin da, eta horrelako protokoloak badituzten udaletan, berorien aurrerapen eta mugak aztertzen jarraitu da. Indarkeriaren biktimea diren emakumeei laguntzeko orduan, ahalduntze-printzipioaren aplikazioan lan egin da, eta tokiko jarduketa-protokoloetan, emakume gazteen aurkako genero-indarkeria nola integratu aztertu da bereziki. Eudelekin egindako lan-kidetzak-hitzarmenaren esparruan, zuzenean Berdinsareatik sustatuko jarduerak bat da, eta jarraipen-batzordeetan parte hartu da.

Gainera, aurreko urtean bezala, udaletarako dirulaguntzen deialdian emakumeen aurkako indarkeriaren esparruan eta tokiko jarduera-protokoloen garapena barnean hartuko duten planen diseinuan alorreko diagnostikoak egitearen alde egin da.

- Azaroaren 25eko Kanpaina, Emakumearen aurkako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Egunkoa, diseinatzeko lan-saioen kudeaketa, koordinazioa eta parte-hartzea.

***Udalerriei, koadrilei eta mankomunitateei dirulaguntzak emateko deialdia, emakumeen eta gizonen berdintasunerako diagnostikoak eta/edo planak egin eta molda ditzaten***

Udalerrietan emakumeek eta gizonak bizi duten egoeraz diagnostikoak egin ditzaten eta Eusko Jaurlaritzaren ildo nagusien arabera tokiko planak landu ditzaten tokiko erakundeei dirulaguntzak emateko deialdia tresna egokia da Emakunderentzat, bere eskumenen esparruan, udalerriei laguntza teknikoa emateko. Legegintzaldi honetan, helburu horretara 500.000 euro zuzendu dira, udalerrri eta tokiko erakunde gehiagotara iritsi ahal izateko, eta estrategiak garatu dira berdintasun-politikan ibilbide laburragoa egin duten udalerrri txikiagoek horrelako laguntzak jaso ditzaten eta, ildo horretatik, prozesu sistematiko bat hasteko aukera izan dezaten.

2009. urtean, 53 udalerritako berrogeita bederatzi proiektu lagundu dira diruz. Berdintasunaren alorrean oraindik bide laburra egin duten udalerrietan tokiko politikak indartzeko helburua bete dugu; izan ere, 21 udalek, banaka edo beste batzuekin batera, lehenengo aldiz ekin die berdintasunerako diagnostikoa eta/edo plana egiteko lanei. Gainerako proiektuak lehendik egindako planak berrargitaratzeko edo diagnostikoak eta plan sektorialak sakontzeko izan dira.

## DIRULAGUNTZAK JASO DITUZTEN UDALERRI, KOADRILA ETA MANKOMUNITATEEN ZERRENDA

GUZTIRA: 500.000,00 euro

ERAKUNDE ONURADUNA	DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN IZENA	ZENBATEKOA
Orozkoko Udala	Genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeei ematen zaien laguntzari buruzko diagnostikoa. Tokiko protokoloa egin aurretiko fasea	6.525,00
Bilboko Udala	Bilboko udalerrian aniztasun funtzionala duten emakumeek bizi duten egoerari buruzko diagnostikorako proiektua	15.000,00
Muskizeko Udala	Udal-diagnostikoa eta koordinazio-protokoloa, etxean tratu txarrak jasotzen dituzten emakumeei eta sexu-erasoak jasan dituzten emakumeei arreta egokia emateko	8.265,00
Otxandioko Udala	Otxandioko herriko genero-berdintasunari buruzko diagnostikoa	8.961,00
Erandioko Udala	Hiri-diagnostikoa generoaren ikuspegitik	9.048,00
Legorretako Udala	Legorretako emakume eta gizonen egoeraren inguruko diagnosia egiteko proiektua	10.198,35
Alegria-Dulantziko Udala	Alegria-Dulantziko emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoa eta I. plana egitea	9.000,00
Durangoko Udala	Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasan dituzten emakumeen kasurako, udalaz gaineko koordinazio-protokoloa lantzea	8.475,53
Urola Garaiko Mankomunitatea	Urola Garaiko emakumeen aurkako indarkeriari buruzko eskualdeko diagnostikoa egitea	15.186,80
Burgeluko Udala	Burgeluko emakumeen eta gizonen berdintasunerako diagnostikoa eta I. plana egitea	6.750,00
Abadiñoiko Udala	Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasan dituzten emakumeen kasurako, udalaz gaineko koordinazio-protokoloa lantzea	8.475,53
Ugao-Miraballesko Udala	Ugao-Miraballesko emakumeen aurkako etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen errealitateari buruzko diagnostikoa eta protokoloa	6.750,00
Azpeitiko Udala	Azpeitiko emakumeen eta gizonen berdintasunerako I. plana egitea	9.975,00
Amurrioko Udala	Amurrioko emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunerako III. plana egitea	11.684,25
Zumarragako Udala	Zumarragako puntu arriskugarrien eta iristeko zailak diren tokien diagnostikoa	7.230,00
Mutrikuko Udala	Mutrikuko hiri-diagnostikoa generoaren ikuspegitik	13.050,00
Sestaoko Udala	Sestaoko diagnostikoa eta II. planaren egokitzapena	11.250,00

ERAKUNDE ONURADUNA	DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN IZENA	ZENBATEKOA
Bideberriko Mankomunitatea	Genero berdintasunerako Plana	6.000,00
Zumaiako Udala	Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2009ko jarduketa-plana	9.222,00
Ermuko Udala	Ermuko emakumeen eta gizonen berdintasunerako III. udal-plana egitea	15.000,00
Lezoko Udala	Lezoko emakumeen eta gizonen errealitateari buruzko diagnostikoa	6.916,50
Bediako Udala	Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako I. plana	7.830,00
Hernaniko Udala	Hernaniko emakumeen eta gizonen berdintasun-plana, egungo egoeraren diagnostikotik abiatuta	15.000,00
Leioako Udala	Leioan, segurtasuna eta adierazpen sinbolikoa generoaren ikuspegitik aztertze hiri-diagnostikoa	9.135,00
Areatzako Udala	Areatzako diagnostikoa eta II. plana.	15.000,00
Getxoko Udala	Getxon, kirol-esparruan emakumeen eta gizonen egoera aztertze diagnostikoa egitea	13.000,00
Getxoko Udala	Hiri-errealitatearen azterketa, generoaren ikuspegia ardatz hartuta, eta emakumeentzako debekatutako hiriaren mapa	7.400,00
Basauriko Udala	Basauriko udalerrian haurren arretarako uztartze-estrategiak aztertze diagnostikoa.	9.615,00
Zaldibarko Udala	Zaldibarko emakumeen eta gizonen berdintasunerako I. plana egitea	5.392,50
Alegiako Udala	Genero berdintasunerako diagnostia	6.000,00
Mungiaiko Udala	Mungian urritasunak dituzten herritarren egoera, profila eta beharra aztertze azterlana	10.650,00
Santurtziko Udala	Santurtzin, enpleguaren eta emakumearen arloa aztertze diagnostikoa eta ekintza-plana	9.750,00
Bergarako Udala	Bergarako emakume eta gizonen egoera, posizioa, behar eta premiak ezagutzeko diagnostia egitea eta tokiko plana burutzea	15.000,00
Debako Udala	Debako hiri-diagnostikoa generoaren ikuspegitik	13.050,00
Astigarragako Udala	Genero berdintasunerako plana	8.700,00
Abanto-Zierbenako Udala	Abanto Zierbenako hiri-diagnostikoa generoaren ikuspegitik	12.161,04
Balmasedako Udala	Balmasedako emakumeen eta gizonen berdintasunerako diagnostikoa eta II. plana	15.000,00

ERAKUNDE ONURADUNA	DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN IZENA	ZENBATEKOA
Azkoitiko Udala	Azkoitiko emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruzko diagnosi orokorra	11.832,00
Dimako Udala	Dimako emakume eta gizonen berdintasunerako diagnostikoa eta I. plana	8.700,00
Tolosako Udala	Ikus-entzunezko diagnostikoa: emakumeak eta landa	10.918,50
Usurbilgo Udala	Emakume eta gizonen berdintasunerako I. udal-plana	11.604,06
Arteako Udala	Arteako emakume eta gizonen berdintasunerako I. plana	8.700,00
Bermeoko Udala	Bermeoko emakumeen eta gizonen berdintasunerako diagnostikoa eta udal-plana	12.000,00
Ordiziako Udala	Ordiziako emakumeen eta gizonen berdintasunerako diagnostikoa eta I. plana	14.250,00
Zarauzko Udala	Zarauzko emakumeen eta gizonen berdintasunerako II. tokiko plana	10.657,50
Elorrioko Udala	Bizikidetzeta eta erantzunkidetasunaren inguruko herritarren premien inguruko ikerlana	9.592,50
Elorrioko Udala	Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasan dituzten emakumeen kasurako, udalaz gaineko koordinazio-protokoloa lantzea	8.024,47
Elgoibarko Udala	Elgoibarko hiri-diagnostikoa generoaren ikuspegitik	13.050,00
Berrizko Udala	Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasan dituzten emakumeen kasuetarako arreta plana eta protokoloa	5.024,47

### 4.1.3. Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakunde arteko Batzordea

VIII. Legegintzaldiaren esparruan, 2007an hasi zen eta Emakundek koordinatu zuen erakunde arteko lan-prozesu bat egin ostean, 2009ko otsailaren 3an, *Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakunde arteko II. Akordioa* onartu zen, 2001ean lehenengo akordioa sinatu zene-tik legeetan izan diren aldaketetara eta beste aldaketa batzuetara egokitzeko asmoz. II. Akordio hori esparru horretan esku hartzen duten erakunde publiko guztiek sinatu dute, eta berorren azken xedea horrelako delituen biktima izan diren emakumeei egiten zaien harrera hobetzea da; horretarako, funtsean, arlo honetan esku hartzen duten profesionalak nahitaez bete beharreko jarduketa-protokolo batzuk ezartzen dira. Hori guztia, indarkeria mota horren biktimei osasunaren eta poliziaren alorre-tan eta alor judicial eta sozialetan babes osoa emango zaiela bermatzeko.



Erakundeen arteko sinadura

Lehenengo akordioarekiko berrikuntza nagusiak honako hauek dira:

- Tresna juridiko berrien aipamenak egiten dira (Babes Aginduak, emakumearen aurkako indarkeriaren arloko epaitegia...).
- Akordioaren aplikazio-eremua zehaztasun handiagoz definitzen da, eta akordio honen eraginetarako emakumeen aurkako tratu txartzat eta emakumearen aurkako sexu-indarkeriatzat zer hartzen den zehazten da.
- Hezkuntzaren esparruarekin lotutako esku-hartze eremu berri bat txertatzen da, akordioaren Jarraipen Batzordearen barnean sartzen da Eusko Jaurlaritzan Hezkuntzan eskumenak dituen Saila, eskola-eremuan sor daitezkeen eta/edo hauteman daitezkeen tratu txar eta sexu-indarkeriazko egoerei erantzuna ematen saiatzeko.
- Eta jarduteko protokoloak aplikatzeko orduan profesionalek nahitaez kontuan hartu beharreko printzipio orokor batzuk ere txertatu dira. Hauek dira printzipio horiek: laguntza osoa eta pertsonalizatua, berdintasuna, prebentzioa, adingabeen interesen defentsa, jabeakuntza eta normalizazioa, eraginkortasuna eta arintasuna, eta ahalik eta biktimizazio txikiena.

Hauek dira VIII. Legegintzaldiaren barnean eta 2009. urtean, batzorde horren testuinguruan egin diren jarduerak:

- Jarraipen Batzordearen eta Erakunde arteko Talde Teknikoaren ohiko bileren antolamendua, prestaketa eta jarraipena. 2009an, Jarraipen Batzordeak bilera bat egin du, eta Erakunde arteko Talde Teknikoak beste bat egin du.
- 2008. urteari dagokion jarraipen- eta ebaluazio-txostena egitea. Aurreko urteetan bezala, akordio honetan parte hartu duen erakunde bakoitzari 2008. urtean egindako jardueren jarraipen- eta ebaluazio-txostena egiteko eskatu zaio, eta, txosten horietan emandako informazioa abiapuntutzat hartuta, Emakundek jarraipen- eta ebaluazio-txosten bateratu bat egin du; 2009ko apirilaren 24an egindako bileran onartu zuen Jarraipen Batzordeak txosten hori.
- 2009ko akordioa aplikatu ahal izateko neurriak hartzeko plana lantzea. Akordioa sinatu duen erakunde bakoitzak emandako informazioa abiapuntutzat hartuta, akordio hori aplikatzeko 2009. urtean hartu beharreko neurriak biltzen dituen agiri bateratu bat landu du Emakundek. Jarraipen Batzordeak lehen aipatu dugun bileran onartu zuen agiri hori.
- Akordioaren eta berorren esparruan egindako lanaren berri ematea, web-orriaren bidez eta sentiberatze- eta prestakuntza-jardueretan parte hartuz. Akordio honen esparruan sortu diren agiri guztiak, Jarraipen Batzordearen bileren laburpenak barne, Emakunderen web-orriaren bidez zabaldu dira. Horrez gain, profesionaleri nahiz, oro har, herritarrei zuzendutako sentiberatze- eta prestakuntza-jardueretan parte hartu da, akordioarekin lotutako hainbat alderdi lantzeko asmoz.
- Emakumeen kontrako tratu txarren eta sexu-indarkeriaren kasuetan zer egin jakiteko gida egiteko proposamena lantzea. 2008an hasitako lan-prozesua amaitu ostean, Erakunde arteko Talde Teknikoaren barnean, tratu txarren eta sexu-indarkeriako egoeren aurrean zer egin eta nora jo jakiteko jarraibideak ematera zuzentzen den gida landu da.
- Tratu txarren biktima diren emakumeei laguntzeko tokiko protokoloen diseinuan laguntzea.<sup>3</sup>

Emakunderen egitura organiko eta funtzionalari dagokion atalean agerian gelditu zen bezala, IX. Legegintzaldian Herrizaingo Saileko Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza sortzeak, indarkeriaren biktimen babesaren eta laguntza integralaren esparruan, errealitate berri bat ezarrarazten du antolamenduaren ikuspegitik Eusko Jaurlaritzaren barnean. 2010. urtean lan-prozesu berri bat ireki beharra ekarri du horrek, aipatutako zuzendaritza horrek Jarraipen Batzordearen koordinazioa bere gain har dezan.

---

3 Ikusi 4.1.2 atala, Berdinsareari buruzkoa

#### **4.1.4. EAEko beste erakunde batzuekin eta beste autonomia-erkidego batzuekin garatutako lankidetzak**

##### ***Euskal Herriko Unibertsitatea***

UPV/EHUK antolatutako Gizonen eta Emakumeen arteko berdintasunerako Masterraren parte hartzen du. 2007-2008ko ikasturteari dagokiona laugarren edizioa da. Eta masterraren helburua profesionalak administrazioan zein erakunde pribatuetan berdintasun-teknikari izateko gaitzea da. Lankidetzak ikasleei bekak emanez eta irakaskuntzan parte hartuz gauzatu da.

Deustuko Unibertsitatearen Emakumeen kontrako indarkerian esku hartzeko Masterraren parte hartu du. Master honen helburua emakumezkoen aurkako indarkeria identifikatzeko, diagnostikatzeko eta esku hartzeko profesionalak gaitzea da. Sei garren eta zazpigarren edizioetako ikasleei bekak emanez eta irakaskuntzan parte hartuz gauzatu da lankidetzak.

##### ***Estatuko eta autonomia-erkidegoetako erakundeak***

Estatu mailako bi topaketatan parte hartu du Emakundek:

- V. Intercambia topaketan parte hartu du. Autonomia-erkidegoetako berdintasun-erakundeetako eta hezkuntzako kontseilaritzetako ordezkariak biltzen ditu topaketa honek, hezkidetzaren esparruan beren esperientziak trukatzeko helburuarekin. Urteroko bilkura honetan, hezkidetzari buruzko sareko prestakuntza-esperientzien inguruan lan egin da.
- Emakumeari eta drogamenpekotasunei buruzko topaketan parte hartu du; autonomia-erkidegoetan berdintasun-erakundeetan lan egiten duten erakundeen ordezkariak eta drogamenpekotasunen arloan garatzen diren planen ordezkariak biltzen ditu, arlo horretan genero-ikuspegia sartu ahal izateko eta esperientziak trukatu ahal izateko irizpide bateratuak zehazteko.

##### ***Europako erakundeak eta programak***

Europa mailan eta berdintasun eta generoaren gaiarekin lotuta Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusitik eta Euskadik Bruselan duen Ordezkaritzatik Emakunderi igorritako proposamenen jarraipena egin da.

2007-2013ko Enplegurako eta Gizarte Elkartasunerako Europako Programa (PROGRESS) aplikatzeko batzordearen esparruan, Emakundek bere zereginak betetzen jarraitu du, emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan eta diskriminazioaren aurkako borrokan.

Egitura Funtsei dagokienez, berorien esparruan berdintasun-politikak sustatzeko, argi ikusi zen Europako Gizarte Funtzaren barneko (EGIF) Euskal Autonomia Erkidegoko 2007-2013 Programa Operatiboko Jarraipen Batzordean eta, horrekin batera, Eskualde Garapenerako Europako Funtzaren barneko (EGEF) Euskal Autonomia Erkidegoko 2007-2013 Programa Operatiboko Jarraipen Batzordean Emakunde txertatu beharra zegoela; aurreko urteetan bezala, 2009. urtean ere berorietan parte hartzen jarraitu du Emakundek.

2007-2013 aldirako EAEko Landa Garapen Iraunkorrerako Programako Jarraipen Batzordeari dagokionez, eta berroenen barne-araudian egindako aldaketak kontuan hartuta, hauxe aurreikusi da: Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailean berdintasun-politikak sustatu eta koordinatzeko ardura duen administrazio-unitatea izango da genero-ikuspegia txertatzerakoan aholkua emateaz arduratuko den.

## 4.2. Generoaren eraginari buruzko aurretiazko ebaluazioa

4/2005 Legearen zortzigarren Xedapen Gehigarria betetz, Gobernu Kontseiluak generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak onartu zituen 2007an, bai eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak desagerrarazteko eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzea ere. Jarraibide horien arabera, departamentuak behartuta daude, administrazio-ekintzen proiektuekin eta arauekin batera, generoaren araberako eraginari buruzko txostenak egitera eta Emakundera bidaltzera, berorrek aginduzko txostena egin dezan.

Alde batetik, 4/2005 Legeko 19. eta 20. artikuluetan eta jarraibideetan xedatzen dena zuzen aplikatu den egiaztatu behar du Emakunderak txosten horretan; eta, bestetik, hobetzeko proposamenak egin behar ditu. Horrela, 2007an hasitako lanarekin jarraituz, 2009. urtean ia 100 proiektu arau-emaile egin dira, honako taula honetan adierazten denaren ildotik.

### 2007-2009KO DATUAK, ERAGINARI BURUZKO TXOSTENAK

	Legeak	Dekretuak	Aginduak	Ebazpenak	Guztira
2007	6	25	12	1	44
2008	19	46	51	2	118
2009	3	49	35	4	91
<b>Guztira</b>	<b>28</b>	<b>120</b>	<b>98</b>	<b>7</b>	<b>253</b>

Horrez gain, departamentuei generoaren eraginari buruzko txostenak egiten laguntzeko, hauek pixkana-pixkana Emakunderen intranet zerbitzuan ezartzen dira, langileek kontsultak egin ditzaten. Horrekin batera, telefono bidezko aholkularitza ere ematen du erakundeak, eta, langile teknikoak prestatu ahal izateko, prestakuntza-ikastaro bat ere diseinatu da. Azaroan, ikastaro horretako lehen edizioa garatu zen, eta Emakunderako langileek oso gogotsu parte hartu zuten ikastaro horretan.

## 4.3. Berdintasun-planak: txostenak, aholkularitza

Bai Emakunde sortzeko Legeak eta bai Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak diote Emakundek, legegintzaldi bakoitzaren hasieran, plan orokor bat egin behar duela, eta plan horrek EAEko berdintasun-politikerarako ildo orokorrak jaso behar dituela. Lege horrek berak agintzen duenari jarraituz, Eusko Jaurlaritzako, foru-aldundietako eta udaletako sail eta erakunde guztiek beren planak landu behar dituzte, adierazitako plan nagusi horretan xedatzen diren jarraibideen arabera.

Gainera, 4/2005 Legeak, 15.4 artikuluan, dio Eusko Jaurlaritzako sailen berdintasun-planaz eta foru- eta toki-administrazioetako txostena egin behar duela Emakundek, horietako edukiak Gobernuaren esku-hartze ildo eta jarraibideetara egokitzen diren ikusteko.

Txosten horiek emateko, Emakundek zenbait irizpide hartzen ditu kontuan, Legearen edukiak eta Gobernuak onartutako plan nagusiaren helburu eta estrategiak oinarritzat hartuta, planak horiekiko ahalik eta adostasun-maila handienaz diseina daitezten: erakunde bakoitzaren beharrei buruzko diagnostiko batean oinarrituta egon behar dute; teknikoki eta ekonomiaren eta denboraren ikuspegitik bideragarriak izan behar dute planek; eta diagnostikoan definitutako gizarte-errealitatearen aldaketara egokitutako helburu eta ekintzak definitu behar dituzte.

Gobernuari dagokionez, 2009an ez dira eman txosten horiek, izan ere, oraindik ez baita IX. Legegintzaldiari dagokion Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana<sup>4</sup> egiteko prozesua amaitu; eta legegintzaldi horretan sailek egindako planak adierazitako plan horri egokitu behar zaizkio.

Foru- eta toki-administrazioei dagokienez, foru-plan baten (Bizkaiko Foru Aldundia), mankomunitateen bi planen (Busturialdea eta Enkarterriak) eta hemeretzi tokiko planen txostenak egin dira, eta Emakunderi helarazi zaizkio, beren gobernu-organoei onartu aurretik.

- Lehenengo Planak: Bedia / Aretxabaleta / Durango / Artziniega / Aiara / Burgelu / Okondo / Urduña / Mendaro / Soraluze.
- Bigarren Planak: Gordexola / Gueñes / Tolosa / Gasteiz / Abadiño / Arrigorriaga / Ugao-Miraballes.
- Hirugarren Planak: Bilbo / Ondarroa.

4 Berdintasunerako V. Planaren lanketari buruz, 1.2 atala.

## 4.4. Prestakuntza

4/2005 Legeak ezarritako eskaera zehatzak alde batera utzita, Emakunde sortu zenetik, profesionalen prestakuntza oinarritzeko estrategia izan da generoarekiko politika sentiberak garatzeko. Europako instituzioek prestakuntzaren garrantzia onartzen eta gogorarazten dute, eta *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planaren* zirriborroan ere estrategia egokia dela planteatu da, aurreko planetan bezalaxe. Alde horretatik, prestakuntza lehentasuneko estrategia da gaur egun Emakunderentzat.

Prestakuntzarekin lotutako jarduerak hainbat jarduketa-ildoren inguruan egituratzen dira Emakunden:

### 4.4.1. Aholkularitza espezializatua

Beste instituzio batzuei prestakuntza-jarduerak antolatzeko orduan aholkatzen eta laguntzen die, honako gai hauei buruz: edukiaren diseinua, irakasleak eta materialak bilatzea eta hainbat erakunderen arteko koordinazioa. Zeregin hau gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari da azken urteetan.

2009. urtean, funtzio hori garatzeko HAEErekin batera egindako lana nabarmentzen da, hain zuzen ere, Administrazio Orokorreko eta bere erakunde autonomoetako langileei zuzendutako Berdintasunean Hezteko 2008-2018 aldirako Plana garatzeko egindakoa; Emakunderen zuzendaritzapean, HAEErekin eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritzarekin batera diseinatu da. Alde horretatik, aholkularitza eskaini da eta HAEErekin eta Gobernuko gainerako sailekin batera lan egin da 2009rako pentsatutako prestakuntza-ekintzak diseinatzerakoan eta gauzatzerakoan. Zehazki, ondorengo prestakuntza-ekintza hauen garapenean hartu dugu parte:

- «Berdintasun-politiken kudeaketa», Gobernuko sailetakoa berdintasun-unitateei eta Emakundeko langile teknikoei zuzendutakoa; 60 orduko iraupena.
- «Genero eta hizkuntzaren erabilera egokia», Administrazio Orokorreko langile guztiei zuzendutakoa; 16 orduko iraupena.
- «Berdintasuna langileen zuzendaritzan eta kudeaketan», zerbitzuko edo arloetako arduradunei eta zerbitzu-zuzendaritzetako langile teknikoei zuzendutakoa; 20 orduko iraupena.
- «Errealitatearen diagnostikoa eta azterketa genero-ikuspegitik», diagnostikoak eta azterketak egiten dituzten langile teknikoei zuzendutakoa; 20 orduko iraupena.

- «Generoaren eraginari buruzko ebaluazioa», generoaren eraginari buruzko ebaluazioak, diagnostikoak eta azterketak egiten dituzten langile teknikoei zuzendutakoa; 20 orduko iraupena.

HAEErekin batera lan egiteaz gain, generoari eta berdintasunari buruzko prestakuntza-ekintzen diseinuan aholkularitza teknikoak ere eskaini da, Eusko Jaurlaritzako sailek eta Foru eta Toki Administrazioak hala eskatuta.

Bestalde, ikastetxeek eta hezkuntzaren esparruko beste eragile batzuek, enpresek, elkarte profesionalek eta bestelako erakundeek emakumeen eta gizonen berdintasunerako prestakuntzarekin lotutako diseinuari, antolamenduari eta esparru horretan adituak diren pertsonak eta materialak bilatzeari dagokienez iritsitako aholkularitza-eskeei ere erantzun zaie.

#### **4.4.2. Barne-prestakuntza**

Prestakuntza hori elkarteari berari zuzentzen zaio, eta Emakundeko langileek prestakuntza-ekintzetan parte har dezaten bilatzen du, helburu bikoitzarekin:

- zenbait gaitan sakontzea eta irizpideak batzea, gai berriak izanik, artean nahikoa landu ez direlako.
- berdintasun-politikak sustatzeko garaian erreferentzia egokiak izan daitezkeen esperientziak ezagutzea.

2009. urtean, Emakundeko langileek interesgarriak gertatu diren prestakuntza-ekimenetan parte hartu dute, bai HAEEk urte honetarako egindako prestakuntza-planaren barnean, bai Emakundek berak antolatutako jardueretan, hala nola Nahiko programan eta Berdintasunerako Foroan.

Bestalde, Emakundeko langile teknikoek, 2008. urtean «Genero mainstreaming-a» gaiari buruzko graduondoko ikastaroaren bidez hasitako prestakuntza-prozesuarekin jarraitu dute, eta gure autonomia erkidegoko, Estatuko edo beste autonomia erkidego batzuetako beste instituzio batzuek antolatutako ondoko prestakuntza-jardueretan hartu dute parte:

- «Norantz goaz? Etorkizuneko agertokiak» Europako jardunaldia, Bartzelonako Udalak antolatutakoa otsailaren 4an eta 5ean Bartzelonan.
- Enpresetan Berdintasunerako Legea aplikatzeari buruzko jardunaldia, Adegik otsailaren 24an Donostian antolatutakoa.

- Zuzenbideari eta genero-berdintasunari buruzko nazioarteko Kongresua, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Zuzenbide Fakultateko Zientzia Politikoen eta Zuzenbide Publikoaren Saileko Informazio Juridikoari, Baliabideei eta Ekimenei buruzko Antígona Zentroak Bartzelonan antolatu zuen 2009ko martxoaren 4an eta 5ean.
- Gizarte Langintzako II. Jardunaldia: genero-ikuspegia duen esku-hartze bate-rantz. Gizarte Langileen Arabako Elkargo Profesionalak eta EHUko Gizarte Lan-gintzako Unibertsitate Eskolak antolatu zuen 2009ko apirilaren 2an.
- Ekonomia Feministari buruzko III. Kongresua, Andaluziako Emakumearen Ins-titutuak Baezan antolatu zuen apirilaren 2an eta 3an.
- «Developing the Evaluation of Public Policies: comparative experiences» min-tega, Herri Administrazioiko Europako Institutuak Bartzelonan antolatu zuen apirilaren 24an.
- Enpresen Gizarte Erantzukizunari buruzko III. Biltzarra: Hitzetatik Egintzetara; Enpresen Gizarte Erantzukizunaren Arabako Foroak antolatu zuen maiatzaren 12an.
- WIEQ jardunaldia: enplegu-kalitatearen alde lanean; Garapenek antolatu zuen, ekainaren 5ean.
- EJIE jardunaldia: gizon eta emakumeen berdintasunaren munduan izan dugun es-perimentzia; EJIEk ekainaren 9an antolatu zuen, Berdintasunerako Foroaren baitan.
- »Ahalduntzen: sexualitatea lehen pertsonan» jardunaldia; Sortzen Consultoría-k ekainaren 10ean antolatu zuen Berdintasunerako Foroaren baitan.
- »Zuzendaritza trebeziak genero-ikuspegitik» jardunaldia; CDEk ekainaren 11n antolatu zuen Berdintasunerako Foroaren baitan.
- »Gizarte-erantzukizuna eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna Bizkaiko kirol federatuan» jardunaldia; ASFEDEBIk ekainaren 11n antolatu zuen Berdin-tasunerako Foroaren baitan.
- «Garapena eta migrazioak: loturak esparru transnazioaletan eta beraien eragina jatorrizko herrialdeetan» Nazioarteko Jardunaldiak; EHUk antolatu zuen, ekai-naren 30ean.
- Eztabaidarako jardunaldi europarra: zure baimenarekin. Berdintasunerako, bai-men berdinak; PPIINAK antolatu zuen ekainaren 12an Madrilan.
- Aurkezpen-jardunaldia: proposamen berriak, enpresa berriak gida. Lidergoa emakumearen ikuspuntutik; INGURALDEk antolatu zuen urriaren 22an.

- Inklusioarekin, enplegarritasunarekin eta aukera-berdintasunarekin lotutako modu berriei buruzko jardunaldia; SENDOTUK antolatu zuen azaroaren 5ean.
- Bazterketaren eta pobreziaaren feminizazioaren aurkako borrokari buruzko jardunaldia. Instituzioen eta elkarte-mugimenduaren zeregina; Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskolak, Salhaketak eta Ikusbidek antolatu zuten azaroaren 26an eta 27an.
- Emakumeen aurkako indarkeriari eta immigrazioari buruzko gogoeta-jardunaldia; Arabako Foru Aldundiak antolatu zuen azaroaren 27an.
- Erabakitzeko eskubidearen aldeko jardunaldiak. Sexu- eta ugalketa-eskubideak, neska eta emakumeen osasunean eragina duten praktikak. HAURRALDE Fundazioak antolatu zuen abenduaren 9an.

Langileek beste prestakuntza-jarduera batzuetan ere hartzen dute parte, hala nola euskarazko eta ingelesezko ikastaroetan, laneko arriskuei aurrea hartzeko ikastaroetan, eta informatika eta teknologia berrien ikastaroetan. Azkeneko gai horrekin lotuta, esan behar da langile gehienek SPRIk eta Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak informazioaren teknologien erabilera eta aplikazio berriak ezagutzeko antolatutako «Barnetegi teknologikoan» parte hartu dutela.

### 4.4.3. Kanpoko prestakuntza

Barruko prestakuntza-jardueren antolamendura nahiz beste instituzio eta erakunde batzuek antolatutako jardueretan hizlari gisa parte hartzera bideratuta dago.

Ondoko hauek antolatu dira:

- Irakasleei zuzendutako mintegiak, *Nahiko Programaren* baitan<sup>5</sup>.
- «Emakumearen ahalduntzea eta gizartearen eta politikaren arloko parte-hartzea: autonomia fisikoa, ekonomikoa, politikoa eta soziokulturala» izeneko mintegia, Berdintasunerako VI. Foroa prestatzeko. Mintegi hori 2009ko martxoaren 3an egin zen Emakunderen egoitzan, eta Berdintasunerako Foroan parte hartu nahi zuten erakundeei zuzendu zitzairen. Helburu bikoitza izan zuen: alde batetik, emakumeen ahalduntzea sustatzeak eta babesteak zuen esanahia eta garrantzia ezagutaraztea eta horren aurrean jendea sentiberatzea, eta, bestetik, erakundeak animatzea eta foroaren baitan ahalduntzearen ikuspegitik jarduketak garatzeko jarraibideak eskaintzea.

5 Ikusi NAHIKO programa 4.8.1 atalean



- «Emakumearen ahalduntzeari eta gizartearen eta politikaren arloko parte-hartzeari buruzko gogoetak» jardunaldia, 2009ko *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Foroaren* baitan<sup>6</sup> antolatutakoa eta emakumeen parte-hartze soziopolitikoko prozesuekin eta ahalduntze-prozesuekin lotutako profesionali eta pertsonari zuzendua. Jardunaldi horren helburua oztupoeti eta egindako aurreapenei nahiz prozesu horiek sustatzeko eta indartzeko kontuan izan beharreko gaiei buruz gogoeta egitea izan da. Helburu horrekin, alde batetik, Emakundek ahalduntzearen hainbat alderdiri buruz –ahalduntze pertsonalaren prozesuak nerabezaroan, ahalduntze ekonomikoa ibilbide eta egoera profesionalari dagokionez, eta emakumeek gizartean eta politikan duten parte-hartzea– egindako hiru lan aurkeztu ziren, eta, bestetik, Emakunderen Aholku Batzordearen baitan, emakumeak ahalduntzeko parte-hartze prozesuei buruzko hainbat esperientzia berritzaile.
- Berdintasunerako VI. Foroa ixteko mintegia. Mintegi hori 2009ko uztailaren 9an egin zen Emakunderen egoitzan, eta Berdintasunerako Foroan parte hartu nahi zuten erakundeei zuzendu zitzairen. Helburu bikoitza izan zuen: alde batetik, foroa bera ebaluatzea antolamenduarekin eta edukiarekin lotutako alderdietan, eta, bestetik, «Ahalduntzearen, gorputzaren eta politika feministen» arteko erlazioa aztertzea. Mintegi honetan ahalduntzeari buruzko ondorioen dokumentu kolektibo bat prestatu zen.

◀ VI. Berdintasunerako Gunea prestatzeko mintegia: «Emakumeen ahalduntzea eta gizartearen eta politikaren arloko parte-hartzea: autonomia fisikoa, ekonomikoa, politikoa eta soziokulturala»

▲ «Nahiko» mintegia

Ondoko ikastaro hauetan eman dira ikasgaiak:

- «Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren gaineko Masterra», Euskal Herriko Unibertsitateak antolatutakoa.

<sup>6</sup> Ikusi Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Foroa 4.12.4 atalean



VI. Berdintasunerako Gunearen itxiera-mintegia

- «Emakumeen kontrako indarkerian esku hartzeko Unibertsitate Masterra», Deustuko Unibertsitateak antolatutakoa.
- «Osasun Publikoaren eta Generoaren esparruko Espezializazio Diploma»ren IV. edizioa, Berdintasun Ministerioko Emakumearen Institutuak, Carlos III Osasun Institutuko Osasunaren Eskola Nazionalak eta Osasun eta Kontsumo Ministerioko Emakumearen Osasun Behatokiak antolatutakoa.
- «Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna kudeatzeko prestakuntza-programa», HAEEK antolatutakoa eta Administrazio Orokorreko eta horren erakunde autonomoetako langileei zuzendutakoa.
- «Berdintasuna zuzendaritzan eta baliabideen kudeaketan» ikastaroa, HAEEK antolatutakoa eta Administrazio Orokorreko eta horren erakunde autonomoetako langileei zuzendutakoa.
- «Generoaren eraginari buruzko aurretiazko ebaluazioa» ikastaroa, HAEEK antolatutakoa eta Administrazio Orokorreko eta horren erakunde autonomoetako langileei zuzendutakoa.
- «Tratu txarrak jasan dituzten emakumeei harrera egiteko baliabideak» ikastaroa, HAEEK eta Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutakoa eta foru-administrazioko langileei zuzendutakoa.
- «Etxeko tratu txarrak eta erasoak jasan dituzten emakumeen arreta hobetzeko tokiko protokoloak» ikastaroa, HAEEK eta Eudelek antolatutakoa eta toki-administrazioko langileei zuzendutakoa.

## 4.5. Jarraipena eta ebaluazioa

### 4.5.1. Botere publikoen jarduketa-memoria

Erakundea sortzeko Legean ezarritako agindua betez, Emakundek EAEko Herri Administrazioek garatutako berdintasun-neurrien eta -ekintzen jarraipenari eta ebaluazio orokorrari buruzko txosten bat egin du. 2009. urtean, botere publikoek EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planarekin lotuta 2008an garatutako jarduketei buruzko txostena egin da<sup>7</sup>.

Ebaluazio horren berariazko helburuak honako hauek dira:

- Ardatz estrategikoetan, arloetan, programetan eta proposatutako helburuetan lortutako gauzatze-maila aztertzea.
- IV. Planean zehaztutako helburuak zer mailatan bete diren aztertzea.
- Ondoko egitura hauek sortzeko eta abiarazteko egindako aurrerapenak ezagutzeko informazioa ematea:
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-politiken sustapenarekin, programazioarekin, aholkularitzarekin eta ebaluazioarekin lotutako egiturak.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-politiken instituzio barruko nahiz instituzioen arteko koordinaziora zuzendutako egiturak.
- Emakumeei eta elkarteei emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-politiketan parte hartzeko aukera ematen dieten egiturak.
- Botere publikoek beren erakundeei politika publikoen diseinuan, exekuzioan, jarraipenean eta ebaluazioan genero-ikuspegia txerta dezaten ahalmena emateko eta gaitzeko gauzatutako jarduketak erakustea.
- Tratu- eta aukera-berdintasuna sustatzeko eta/edo emakumeek, oro har, eta, zehazki, arrisku-egoeran edo askotariko diskriminazio-egoeran eta/edo gizarte-bazterketa egoeran dauden emakumeen talde jakin batzuek jasaten dituzten diskriminazio-egoerak antzemateko, hedatzeko eta desagerrarazteko botere publikoek garatutako jarduketei buruzko informazioa ematea.
- Jarduketa guztien multzoa balioestea, erakunde publikoen urteko plangintzak gidatu ahal izateko.

<sup>7</sup> Eranskinean ebaluazioaren laburpena txertatu da. Txosten osoa Erakundearen web-orrian eskura daiteke: [www.emakunde.euskadi.net](http://www.emakunde.euskadi.net)

Ebaluazioan 80 erakundek hartu dute parte:

<b>Administrazio Orokorra</b>	
Eusko Jaurlaritzako Sailak	12
Erakunde autonomoak	6
Erakunde publikoak eta sozietate publikoak	10
Beste erakunde batzuk	1
<b>Arartekoa</b>	1
<b>Foru Administrazioa</b>	
Foru-aldundiak	3
<b>Toki Administrazioa</b>	
EUDEL	1
Arabako udalak	3
Bizkaiko udalak	27
Gipuzkoako udalak	16

#### 4.5.2. Emakumeen aurkako indarkeriaren esparruko zerbitzuen irismenaren eta eraginkortasunaren ebaluazioa

Autonomia Erkidegoan emakumeen aurkako indarkeriaren esparruan dauden baliabide eta programen eraginkortasunaren eta norainokoaren ebaluazioari buruzko Legearen 51. 2 artikulua betetzearen, baliabide eta programa horien jarraipen-prozesu progresibo bat planifikatu da, legegintzaldiko urte bakoitzean gaiarekin zerikusia duten sektore baten edo batzuen ikerketari helduko diona Jadanik eginda daude erkidegoko gizarte-zerbitzuetan (2006. urtea), zerbitzu polizial eta judizialetan (2007. urtea) eta osasun-zerbitzu eta zerbitzu psikologikoetan (2008. urtea) esparru horretan dauden bitartekoei buruzko azterketak. 2009. urtean harreraz-zerbitzuak, arruntak nahiz larrialdietakoak, aztertu dira. Etxean tratatu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko Erakunde arteko Akordioaren Jarraipen Batzordearen baitan adostutako jarduketa-protokoloen eza-gutzari eta aplikazioari buruzko alderdiak barne hartzen ditu azterketak<sup>8</sup>.

8 Txostenak Erakundeko web-orrian daude eskuragarri.

## 4.6. Emakume taldeei zuzendutako aholkularitza eta laguntza

### 4.6.1. Aholku Batzordea

Berdintasunaren Aldeko Emakumeen Kontseiluak, Aholku Batzordea sortzeko zain dagoen bitartean, ohiko zereginak egiten jarraitu du. Emakundek Euskal Administrazio Publikoaren maila guztietan sortutako sektoreko partaidetzarako organoetan Aholku Batzordeak ordezkari izatea sustatzen eta ahalbidetzen jarraitzen du. Horrez gain, elkarte guztiekin bilerak bultzatu ditu, toki, eskualde eta lurralde-mailan.

Sortu zenetik, Emakunderen jarduketaren ardatz nagusietako bat emakumeen elkar-te-sarea bultzatzea eta sendotzea izan da, eta, horretarako, emakumeen parte-hartzea bultzatu du, bai politiken diseinuan, bai esku-hartze publikoaren esparruetan erabakiak hartzeko orduan. Egindako lan horren ondorioz, elkarteekin harremana izateko eta trukeko mekanismoak sortzen joan dira, eta, bestalde, elkarte horien arteko trukea eta lan koordinatua ere sustatu eta babestu da. Horren guztiaren emaitza dira Emakundeko Aholku Batzordea eta elkarteek berdintasunean oinarritutako gizartera gero eta gehiago hurbiltzeko beharrezkoak diren sentiberatzea eta gizarte-aldaketak gertatzeko egiten duten gero eta ekarpen handiagoa.

Egindako bideari esker, emakumeek eta herritarren elkarteek parte hartzeko bidea eskainiko duen entitate bat sortzeko aukera txertatu ahal izan da 4/2005 Legean (24.5 art.)<sup>9</sup>. Entitate horren definizioa, sorrera eta arautzea ekarriko duen prozesua oso konplexua da, noski, baina baita aberasgarria ere bai Emakunderentzat bai eta elkarteentzat ere. Prozesu horri goian aipatutako legea onartu aurretik ekin genion, eta horretan dihardugu oraindik, sustapena, dinamizazioa eta laguntza tekniko zein ekonomikoa eskaintzeko gogotik lan eginez. Emakundek prozesu hori bultzatzen eta sendotzen jarraitzen du, eta, entitatea sortzeaz gain, beharrezkoa da baita ere emakumeek gizartean eta politikan parte har dezaten dinamika eta estrategia berriak abiarazteko eta finkatzeko prozesu konplexu bat abiaraztea.

Testuinguru horretan, elkarteekin lurralde-bilerak bultzatzen eta dinamizatzen jarraitu dugu, elkarteen jarduketa-eremua eta elkarte horiek herri- edo lurralde-administrazioekin duten harremana edozein dela ere; bilera horien helburua sareak finkatzea, koordinazio egonkorra lortzea eta interes komuneko ekimenak eta proiektuak adostea da.

<sup>9</sup> Berdintasunerako Emakumeen Euskal Kontseiluaren Legearen aurreproiektuaren zirriborroa administrazioiko izapidetze-fasean dago une honetan.

Emakunderen Aholku Batzordeko elkarteetako ordezkariak probintzia bakoitzean parte har dezaten bultzatu da, elkarlan bateratuaren kultura sortzeko asmoz. Horrek ahalbidetzen du emakumeek elkarteetan parte-hartze aktiboa izan dezaten estrategiak zehaztea eta konpromisoak eta etorkizuneko ekintzak bilatzea.

Ondoko jarduketak hauek egin dira 2009. urtean:

- Aholku Batzordearen osoko bilkuraren bilerak <sup>10</sup>.
- Lurraldeetako Aholku Azpibatzerdeen bilerak, parte-hartzeari buruz aholkulari-tza eskaintzeko eta parte-hartze hori errazteko eta dinamizatzeko nahiz sareko proiektuak bultzatzeko.
- Aholku Batzordearen barneko batzordeei eta beste lan-talde batzuei laguntza eman zaie eta horien jarraipena egin da; lan-talde horien artean honako hauek daude:
  - Gizarte-bazterketaren esparruan lan egiten duten elkarteak.
  - Etxean tratatu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeen taldeak, horien koordinazioa eta sareko lana erraztuz eta elkarte horien iritziz lehentasuna duten proiektuetan lagunduz.
  - Emakume alargunen elkarteak.
  - Komunikabideak eta elkarte-mugimendua.
  - Lurraldeetako jardunaldiak antolatzen dituzten elkarteak.
  - Emakume etorkinen ordezkariak.
  - Landa-eremuetako emakumeen ordezkariak.
- Hainbat proiektu babestu dira eta horien jarraipena egin da:
  - EAEko emakume alargunen sareak.
  - Lurralde-esparruko komunikabideak eta emakume elkarten mugimendua.
  - Landa-eremuetako emakumeen elkarteak.
  - Emakume ijitoen elkarteak EAEn.
  - EAEko emakume ezinduak, lurralde bakoitzeko erakunde mistoetako emakumeen ordezkariak osatutakoa.
  - Tokiko, eskualdeko eta lurraldeko sareak finkatzen eta sortzen lagunduko duten proiektuak babestu dira, tokiko administrazioekin batera.
  - Emakumeen alorrak erakunde mistoetan.
- Prestakuntza-jarduerei ere eskaini zaie laguntza.

---

<sup>10</sup> Ikusi 3.3 atala.

Emakumeen elkarteekin biltzeko nahiz horiek elkarrekin biltzeko guneak eskaintzen, sustatzen eta finkatzen jarraitu dugu, eta bilera horietan, besteak beste, prestakuntzarekin lotutako beharrak nahiz antzeko prestakuntza-interesak dituzten hainbat elkar-teren artean prestakuntza-proiektu koordinatuak antolatzeko estrategiak landu dira.

Beraz, lurralde bakoitzean bai eta hala eskatzen duten eskualdeetan ere elkartzeko eta prestatzeko jardunaldiak sustatzen eta dinamizatzen jarraitu dugu, hala, partaidetza aktiboagoa, orain arte erabili gabeko ereduak eta estrategiak izango dituen, lortzeko oinarriak finkatzeko, bai emakumeen erakundeen barne-dinamikari dagokionez, bai eta emakumeek tokiko, lurraldeko, autonomia erkidegoko, Estatuko edo nazioarteko sareetan duten parte-hartzeari dagokionez ere.

Testuinguru horretan, Aholku Batzordearen barnean, lurraldeetako prestakuntza-jardunaldien proiektuen lanketa ahalbidetu eta lagundu da; jardunaldi horien helburu nagusia emakume elkarten mugimenduak Eusko Jaurlaritzak garatutako berdintasun-planetan izandako parte-hartzea ezagutaraztea eta balioestea izan da, bai eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planaren lanketan parte har dezala ahalbidetzea ere. Lan-batzordeen sorrera bultzatu da, Berdintasunerako V. Plan horren jarraipena eta sozializazioa egin dezaten.

Emakume-sareetako elkarteetako ordezkariak teknologia berrietan prestakuntza eskaini zaie autonomia erkidego honetako hiru lurraldeetan eta jarduketa-esparru desberdinetan, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailarekin lankidetzan.

Etengabeko prestakuntzarako espazioak finkatu dira hiru lurraldeetan, gizartean eta politikan genero-ikuspegitik parte hartzeko.

Elkarteekin batera adostutako eta prestatutako metodologia bat diseinatzen hasi gara, emakume taldeek gizartean eta politikan genero-ikuspegitik parte har dezaten etengabeko prestakuntzako proiektuen autogestioa ahalbidetzeko.

### ***Koordinazioa errazten duten tresnak eguneratu dira***

«EAEko Emakume Elkarten Gida» banatzen eta eguneratzen jarraitu da. Modu berean, EAEko Gizonen eta Emakumeen arteko Aukera Berdintasuna Sustatzeko Elkarte Mistoan, Erakundeen eta Taldeen Helbidetegi berrikusten eta zabaltzen jarraitu da; horren helburua da baliabideak koordinatzea eta optimizatzea eta tresna izatea esperientzien trukea sustatzeko eta, horren ondorioz, elkarten arteko sareak sortu eta sendotzeko.

### ***Trukerako laguntza-jarduerak***

Trukea bultzatu da Estatuko eta nazioarteko emakume elkarte mistoekin eta beren jarduera hainbat esparrutan gauzatzen duten beste elkarte misto batzuekin.

## 4.6.2. Elkarteei emandako laguntza ekonomikoak

Aholkularitza teknikoaz eta jarduerak antolatzekeo babesa emateaz gain, Emakundek elkarteen jarduera ekonomikoki babesten jarraitu du, urteroko dirulaguntzen deialdiaren bitartez. Deialdia irabazteko asmorik gabeko Emakume Elkarte eta Federazioei zuzentzen zaie, bai eta xede eta jarduketa-eremu bakartzat emakumearen sustapena duten Fundazioei ere. Deialdiaren helburua honako hau da: helburutzat emakumeen parte-hartzea eta prestakuntza bultzatzea duten elkarteak eta jarduerak sustatzea. Emakundek behar duten laguntza teknikoa eskaintzen die, bai proiektuen lanketa-prozesuan, bai dirulaguntzak izapidetzeko prozesuan. Gainera, beste administrazio batzuek eskainitako dirulaguntzei buruzko informazioa ere ematen du.

Deialdira eskaera aurkeztu zuten 142 elkarteetatik 132k jaso dute dirulaguntza. 425 proiektuk jaso dute dirulaguntza, eta dirulaguntzen bidez emandako kopuru osoa 298.481 eurokoa izan da. Bestalde, Emakundek aurkeztutako proiektuen jarraipena egin du, bereziki sareen finkatzearekin lotutako proiektuena.

Ondorengo emakume elkarteek jaso dute dirulaguntza:

ESKATZAILEA	DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN IZENBURUA	DIRULAG. ZENBATEKOA
Asociación Escuela de Mujeres de Durana / Durana Emakumeen Eskola	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bisita kulturala</li> <li>• Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna</li> <li>• Irakurketa-lantegia</li> </ul>	900,00 €
Asociación Cultural Emays de Bilbao	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lehen laguntzako ikastaroa</li> <li>• Hitzaldia: berdintasuna, erantzunkidetasuna, ahalduntzea eta familia</li> </ul>	900,00 €
Asociación Cultural Alborada de Galdakao	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Antzerki-lantegia</li> </ul>	500,00 €
Hiru Kanale, Emakumeen Elkarte	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Berdintasunaren aldeko jai-giroko ekintza aldarrikatzaileak</li> </ul>	9.000,00 €
Asociación de Mujeres Argiri	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Berdintasunaren aldeko jai-giroko ekintza aldarrikatzaileak</li> </ul>	9.000,00 €
Asociación de Mujeres Jalgi-Surgir	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Literatura-lehiaketa</li> <li>• Antzerki-lantegia</li> <li>• Hizketaldiak</li> <li>• Literatura-lantegia</li> </ul>	3.000,00 €
Asociación Psico-Socio-Cultural de la Mujer Arritokieta	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hitzaldiak</li> </ul>	900,00 €
Asociación Cultural Eragin	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Konferentzia-zikloa: kultura</li> </ul>	800,00 €
Asociación Cultural Erabide de Galdakao	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Pachwork ikastaroa</li> <li>• Dekorazio-artearen ikastaroa</li> </ul>	300,00 €

ESKATZAILEA	DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN IZENBURUA	DIRULAG. ZENBATEKOA
Asociación Cultural Mujeres de Las Carreras	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Prestakuntza-proiektua eta argazki-erakusketa: «Emakumeak gure udalerrian»</li> <li>• Prestakuntza-proiektua: emakumeek ongizate handiagoa lortzeko gakoak</li> <li>• Prestakuntza-proiektua: partekatutako irakurketak eta adierazpena</li> </ul>	1.000,00 €
Asociación de Viudas de Basauri	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikastaroak</li> <li>• Hitzaldiak</li> </ul>	1.000,00 €
Asociación de Amas de Casa Dulantzi	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lantegiak</li> </ul>	700,00 €
Asociación Cultural Para la Mujer Killirikupe	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikastaroa: «Emakume eta biografia sexualitateari buruzko elkarrizketak»</li> </ul>	600,00 €
Asociación Contra la Violencia Doméstica y En Defensa del Menor, Acovidem	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Indarkeria jasaten duten emakumeei zuzendutako lantegia</li> </ul>	1.100,00 €
Asociación Cultural Mirari de Galdakao	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zinema genero-ikuspegitik</li> </ul>	800,00 €
Arrasateko Ekin Emakumeak Aed Kultur Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Osasun-zikloa</li> <li>• Elkarteko kideei zuzendutako prestakuntza-saioak</li> <li>• Lana bilatzeko oinarritzko ezagutzak</li> <li>• Etxez etxeko zaintza-ikastaroa</li> <li>• Elkarkidetasun lantegiak</li> </ul>	1.100,00 €
Asociación de Mujeres Lankume de Ortuella	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gizarte-bazterketa jasateko arriskua duten emakumeei zuzendutako programa</li> </ul>	900,00 €
Asociación de Mujeres Izaera de Deusto-San Ignacio	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hitzaldiak</li> <li>• Irakurketa bultzatzeko lantegia; emakumeek idatzitako literatura</li> </ul>	900,00 €
Centro Cultural y de Promoción de la Mujer de Uretamendi	<ul style="list-style-type: none"> <li>• ABRILOCIO emakumea sustatzeko programa</li> </ul>	300,00 €
Asociación Cultural de Promoción de la Mujer Solastiar	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Etxeko nagusiaren/andrearen eguna</li> <li>• Lantegiak</li> <li>• Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna</li> <li>• Genero-indarkeriaren aurkako Eguna</li> </ul>	1.000,00 €
Asociación de Teatro Aztiak de Galdakao	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Antzerki-lantegia</li> </ul>	800,00 €
Asociación Centro Formación de la Mujer del Peñascal	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Martxoaren 8aren inguruko jarduerak</li> <li>• Partaidetza-taldeak</li> </ul>	800,00 €
Ekintza Dasalud, Asociación de Rehabilitación de Adicciones Psicológicas de Gipuzkoa	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko ikastaroa</li> </ul>	800,00 €
Asociación de Viudas de Álava Aval	<ul style="list-style-type: none"> <li>• CONFAVen Euskadiko XXVIII. Batzar Orokorra</li> <li>• Hitzaldi- eta konferentzia-zikloa</li> <li>• Ikastaroak</li> </ul>	3.400,00 €

ESKATZAILEA	DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN IZENBURUA	DIRULAG. ZENBATEKOA
Asociación Cultural de Mujeres Oletako Briska Taldea	<ul style="list-style-type: none"> <li>Lantegiak</li> </ul>	300,00 €
Menagaraiko Emakume Taldea	<ul style="list-style-type: none"> <li>Proiektua: «Feminismoak eta emakumeek parte hartzeko metodologiak.</li> </ul>	12.000,00 €
Asociación de Mujeres de Beasain Asmube	<ul style="list-style-type: none"> <li>Emakumeek elkarrekin parte har dezaten bultzatzeko ahaldundze-lantegia</li> <li>Topaketa irekiak: Goierriko emakumeen ekintza eta gogoeta</li> </ul>	3.640,00 €
Asociación de Mujeres Safa	<ul style="list-style-type: none"> <li>Lantegia: «Emakumeak eta menopausia»</li> <li>Proiektua: «Artera hurbilduz»</li> </ul>	850,00 €
Asociación de Mujeres y Familias del Ámbito Rural, Land@Xxi	<ul style="list-style-type: none"> <li>Durungaldeko emakume artistek egindako artelanen erakusketa kolektiboa, martxoaren 8a ospatzeko</li> <li>Ikastaroak</li> <li>Lantegiak</li> </ul>	1.400,00 €
Asociación Coral Amatzta de Sestao	<ul style="list-style-type: none"> <li>Emakumeari eta musikari buruzko lantegia</li> <li>Musika-lanen taularatzea</li> </ul>	400,00 €
Asociación Cultural de Mujeres Las Murallas-Harresiak	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hitzaldiak</li> <li>Lantegiak</li> <li>Literatura-lehiaketa</li> </ul>	1.200,00 €
Asociación Alavesa de Mujeres Con Cáncer de Mama y Ginecológico, Asamma	<ul style="list-style-type: none"> <li>Suspertze emozionala</li> <li>Suspertze funtzionalerako eskola</li> </ul>	1.000,00 €
Asociación de Mujeres Inmigrantes «Garaipen»	<ul style="list-style-type: none"> <li>Lidergo-eskola emakumeentzat</li> </ul>	600,00 €
Asociación Estudios y Centro de Documentación Para Las Libertades Sexuales, Aldarte	<ul style="list-style-type: none"> <li>Sexu-aniztasuna ezagutzuz: Emakume lesbianak</li> </ul>	4.000,00 €
Asociación Cultural de Mujeres de Repélega Las Amigas	<ul style="list-style-type: none"> <li>Proiektua: «Emakumeak XX. mendearen hasieran Artearen Historiaren bitartez»</li> </ul>	800,00 €
Asociación y Promoción Socio-Cultural y Cívico de Las Mujeres Ekinbide	<ul style="list-style-type: none"> <li>Zinema-lantegia genero-ikuspegitik</li> </ul>	700,00 €
Asociación Educativa, Cultural y Recreativa, Alaitasuna	<ul style="list-style-type: none"> <li>Emakumearen astea eta emakume taldeen topaketa Enkarterrietan</li> <li>Ongizate fisiko eta mentalerako lantegia, uztarketa eta erantzunkidetasuna landuz</li> <li>Prestakuntza-proiektua: «Generoa eta aukera-berdintasuna, parte hartzeko tresnak</li> </ul>	1.100,00 €
Asociación de Amas de Casa y Consumidores de Derio Sutondoan	<ul style="list-style-type: none"> <li>Konferentzia-zikloa</li> <li>Proiektua: «Estresaren kontrol eraginkorra eta estimulazio kognitiboa emakumearengan»</li> </ul>	700,00 €

ESKATZAILEA	DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN IZENBURUA	DIRULAG. ZENBATEKOA
Garraldi Emakume Elkartea / Asociación de la Mujer Garraldi	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hitzaldiak</li> <li>Lantegiak</li> </ul>	700,00 €
Zornotzako Emakume Alargunen Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> <li>Batzarrak eta hitzaldiak</li> </ul>	1.000,00 €
Asociacion Centro Social de Mujeres Itzatu	<ul style="list-style-type: none"> <li>Lantegia: «Elikadura eta osasuna»</li> <li>Prestakuntza, genero-ikuspegia kontuan hartuta</li> <li>Artearen historia: emakumeak XX. mendearen hasieran, Historiaren ikuspegitik</li> </ul>	1.900,00 €
Asociación de Amas de Casa de Basauri Ate Zabaliak	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ikastaro monografikoak</li> <li>Memorizazio-ikastaroak</li> <li>Kultura orokorreko ikastaroa</li> </ul>	1.200,00 €
Asociación de Mujeres «Pagatxa»	<ul style="list-style-type: none"> <li>Lantegiak</li> </ul>	500,00 €
Asociación Psicosocial Para la Igualdad Aizan	<ul style="list-style-type: none"> <li>Genero-indarkeriari buruzko jardunaldien antolaketa</li> </ul>	500,00 €
Asociación de Madres Alavesas A.M.A.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hizketaldiak</li> <li>Hitzaldiak</li> </ul>	1.100,00 €
Asociación de Mujeres Agrarias de Álava Gure Soroa	<ul style="list-style-type: none"> <li>Proiektua: «Geure burua eta gainerako emakumeak nola balioesten ditugun» (Genero- eta aukera-berdintasuna: parte hartzeko tresnak)</li> </ul>	1.000,00 €
Asociación Provincial de Amas de Casa y Consumo Familiar de Gipuzkoa Aranzazu	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hirugarren adineko emakumeen aurkako indarkeria aurreikustea eta hautematea</li> <li>Etxeko erantzunkidetasuna</li> </ul>	500,00 €
Asociación Cultural Roda	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hitzaldiak</li> </ul>	500,00 €
Hitez Baserriko Emakumeen Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hitzaldiak</li> <li>Hizketaldiak</li> <li>Lantegiak</li> </ul>	1.100,00 €
Asociación Cultural de Mujeres Itur Zuri Emakume Taldea	<ul style="list-style-type: none"> <li>Emakumearen astea</li> </ul>	600,00 €
Bizkaiko Emakume Abertzaleen Bulegoa	<ul style="list-style-type: none"> <li>Proiektua: «Belaunaldi desberdinen arteko bilerak, gogoetak eta esperientzia-trukaketak, bazkide diren belaunaldi gazteen ahalduntzea eta gizarte eta politikako parte-hartzea bultzatzeko»</li> </ul>	1.800,00 €
Andraizea Dimeko Andreen Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> <li>Sentsibilizazio-kanpaina</li> <li>Ikastaroak (defentsa pertsonala, memoria lantzeko ikastaroa, lorezaintza-ikastaroa)</li> </ul>	800,00 €
Asociación Cultural de la Mujer Itzartu	<ul style="list-style-type: none"> <li>Proiektua: «Artearen historiari eta emakumeei buruzko mintegia»</li> <li>Ikastaroa: «Nola hobetu egunez egun nire kontzentrazioa eta memoria»</li> <li>Lantegia: «Autodefentsa emakumeentzat»</li> </ul>	2.000,00 €
Asociación de Mujeres Neba Neba de Sestao	<ul style="list-style-type: none"> <li>Azaroak 25eko 10. ibilaldia</li> <li>Autodefentsa-ikastaroa</li> </ul>	700,00 €

ESKATZAILEA	DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN IZENBURUA	DIRULAG. ZENBATEKOA
Asociación Cultural de Mujeres de Lutxana	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kultura-astea</li> <li>• Ikastaroak</li> </ul>	600,00 €
Asociación de Mujeres Hutsunea Betez	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Emakumeen sexualitatearen lantegia: generoa sexualitatearen bizipenean</li> </ul>	900,00 €
Asociación Argitan Emakumeentzako Aholku Etxea	<ul style="list-style-type: none"> <li>• «Azaroak 25. Emakumearen aurkako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna» kanpaina</li> <li>• Martxoak 8, Emakumearen Nazioarteko Eguneko kanpaina Lantegia: «Hirian Berdintasun Egoeran»</li> <li>• Eraso sexisten aurkako kanpaina: «Festa, gauak ere gureak dira»</li> <li>• Lantegia: «Mendekotasun afektiboa»: «Berdintasunean oinarritutako amodioak»</li> </ul>	2.000,00 €
Asociación Sociocultural de Mujeres de Leioa, Andrak	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Osasun-programa</li> <li>• Proiektua: «Genero- eta aukera-berdintasuna: parte hartzeko eta esku-hartzeko tresnak»</li> </ul>	5.940,00 €
Asociación Grupo de Teatro Solidario Luna Llena	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Antzerki-ikuskizuna muntatzea</li> </ul>	400,00 €
Asociación Cultural Manuela Eguiguren	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikastaroak</li> </ul>	300,00 €
Asociación Cultural de la Mujer Inola de Urduliz	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Erantzunkidetasun eta autonomia pertsonaleko lantegia</li> </ul>	1.600,00 €
Asociación de Mujeres Emaisia de Bilbao	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Emakumeak parekidetasunerantz: elkartegintza, kontzientziarazioa, trebakuntza eta elkarlana</li> <li>• Genero-taldeko jarduerak</li> </ul>	2.800,00 €
Asociación Cultural Grupo Teatral Izarraitz Zuria	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikastaroa: «Antzerki eta pedagogia inprobisazioko topaketak»</li> </ul>	400,00 €
Emeki Emakume Elkarte	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Emakumearen Astea (erakusketa, omenaldia)</li> <li>• Emakume artisten erakusketa</li> <li>• Kaleko XVI. margo-lehiaketa</li> </ul>	900,00 €
Asociación de Mujeres Viudas de Bizkaia	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hitzaldiak</li> <li>• Ikastaroak</li> </ul>	1.400,00 €
Asociación de Mujeres Aletu de Bilbao	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Emakumeak Erdi Aroan Euskal Herrian zuen egoerari buruzko azterketa, historian, literaturan eta artean oinarrituta</li> <li>• Buru eta gorputzeko ongizateari buruzko lantegia</li> </ul>	1.000,00 €
E.H.A.F. - Euskal Herriko Alargunen Federazioa / Federación de Mujeres Viudas del País Vasco - F.E.V.I.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Proiektua: «Generoa eta aukera-berdintasuna: parte hartzeko tresnak»</li> </ul>	11.360,00 €
Asociación de Viudas de Llodio «Aவில்lo»	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikastaroak</li> </ul>	2.400,00 €
Asociación de Mujeres Boga-Boga	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Asertibitatea sakontzen</li> </ul>	900,00 €
Asociación Feminista Lilaton Taldea	<ul style="list-style-type: none"> <li>• LILATON emakumeen lasterketa herrikoia</li> </ul>	3.200,00 €

ESKATZAILEA	DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN IZENBURUA	DIRULAG. ZENBATEKOA
Asociación Dizdiz Mungiako Emakumeen Kultur Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> <li>Emakumeentzako osasun-programa</li> </ul>	900,00 €
Asociación Cultural de la Mujer Araldi	<ul style="list-style-type: none"> <li>Martxoaren 8ko programa (hitzaldiak eta eztabaidak, filmak, antzerkia)</li> <li>Emakumeen elkarteetan parte hartzeko proiektua</li> <li>Zinema genero-ikuspegitik</li> </ul>	12.000,00 €
Elorri-Lore Andreen Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ahalduntze-ikastaroa: sexualitatearen azterketa eta genero-indarkeriaren prebentzioa</li> </ul>	1.000,00 €
Asociación de Mujeres de Orduña Loraldi	<ul style="list-style-type: none"> <li>Teknologia berrien programa, II. maila</li> </ul>	500,00 €
Asociación Provincial de Amas de Casa del Consumo Familiar, Etxeko-Andre	<ul style="list-style-type: none"> <li>Lantegia: «Emakumearen rola gaur egungo familian»</li> <li>Ikastaroa: «Adineko emakumeen prestakuntza teknologia berri eta berritzaileetan eta informatikan»</li> </ul>	2.200,00 €
Hankaz Gora! Emakume Taldea	<ul style="list-style-type: none"> <li>Emakumeek gizartean eta politikan parte hartzea errazteko zerbitzua</li> </ul>	500,00 €
Asociación Sociocultural Salinera de Santa Ana	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gatzagetako emakumearen eguna</li> <li>Elkarteen arteko trukea</li> <li>Hitzaldiak</li> </ul>	400,00 €
Zaratamoko Andreen Elkarte Soziokulturala «Enarria»	<ul style="list-style-type: none"> <li>Proiektua: «Emakumeen garapena eta prestakuntza ahalduntzea lortzeko»</li> </ul>	800,00 €
Asociación de Amas de Casa y Consumidoras Zoko Maitea	<ul style="list-style-type: none"> <li>Euskal gizarteko emakumei buruzko hitzaldia</li> <li>Ikastaroak</li> </ul>	800,00 €
Asociación de Mujeres Berdintasuna para la promoción de la Igualdad de Género en el Municipio de Lanestosa	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gizarte-trebeziei buruzko lantegia: jendaurrean hitz egitea</li> <li>Aisialdiko lantegia: barreterapia</li> <li>Hitzaldia: komunikazioa, gatazken ebazpena</li> <li>Hitzaldia: sexualitatea heldutasunean</li> <li>Etxeko mantentze-lanei buruzko lantegia</li> <li>Hitzaldia: bakardadeari aurre egitea: alargunak, bikoterik gabeko amak</li> <li>Hitzaldia: Oinordetza eta testamentua</li> </ul>	900,00 €
Asociación de Mujeres Andre Berri	<ul style="list-style-type: none"> <li>Proiektua: «Ahalduntzeko berdintasunaren esparruko prestakuntza»</li> <li>Proiektua: «Sarean lan egiteko egiturak emakume elkarteentzat»</li> </ul>	900,00 €
Centro Socio Cultural Recreativo de la Mujer Elkartea Berri	<ul style="list-style-type: none"> <li>Lantegiak</li> </ul>	500,00 €
Asociación en Defensa de los Derechos de la Mujer Trabajadora	<ul style="list-style-type: none"> <li>Emakume langilearen diskriminazioaren aurkako kanpaina</li> <li>Langabezia, emakume etorkina eta gaztea</li> <li>Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna</li> <li>Emakume Langileen Nazioarteko Konferentzia</li> </ul>	500,00 €
Asociación Gizarterako	<ul style="list-style-type: none"> <li>«Gizarterako» elkartearen parte hartzeko proiektua eta lanerako plana</li> </ul>	4.000,00 €

ESKATZAILEA	DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN IZENBURUA	DIRULAG. ZENBATEKOA
Asociación de Viudas de Eibar Altzoa	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Emakume alargunen elkarteen parte-hartze prozesua. FEVI 2009</li> <li>• Lantegiak</li> </ul>	12.000,00 €
Centros de Cultura Popular y Promoción de Adultos	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikastaroak</li> </ul>	800,00 €
Red de Mujeres del Medio Rural de Álava	<ul style="list-style-type: none"> <li>• «Emakume Sarearen X. Topaketa»ren transkripzioa</li> </ul>	2.000,00 €
Asociación Ampea de Mujeres Profesionales y Empresarias de Álava	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Enpresa-eztabaidarako foroaren argitalpena</li> <li>• Ampea 2009 Sariak</li> </ul>	2.000,00 €
Asociación para la Igualdad entre los Sexos «Plazandreak»	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Feministaldia 09 barneko lantegiak eta ekitaldiak</li> </ul>	4.900,00 €
Asociación Malen Etxea	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Proiektua: «Elkartegintza eta generoa»</li> </ul>	600,00 €
«Lacasiun» Asociación de Mujeres Latinas	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Proiektua: «Emakumeen identitatea eta ahalduntzea»</li> <li>• Proiektua: «Garapen pertsonala eta ahalduntzea»</li> <li>• Arte Ederren Museoa: genero-ikuspegitik</li> <li>• Proiektua: «Gorputz-adierazpena komunikazio-trebeziak garatzeko»</li> </ul>	900,00 €
Asociación Grupo de Teatro Emakume Ausartak	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Proiektua: «Antzerki-zuzendaritza»</li> </ul>	300,00 €
Asociación de Mujeres «Hegaldi»	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Feminismoa eta emakumeek parte hartzeko metodologiak</li> <li>• Parte hartzeko prestakuntza, genero-ikuspegia kontuan hartuta</li> </ul>	11.720,00 €
Asociación de Viudas Danon Artien	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Durangaldeko emakume elkarteen parte-hartze prozesuaren hasiera</li> </ul>	3.900,00 €
Asociación Mujeres Gitanas del Pais Vasco «Chanelamos Adikerar»	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Autoestimua eta barreterapia-lantegia</li> <li>• Euskadiko emakume ijitoen egunaren ospakizuna</li> </ul>	1.600 €
Centro de Planificación Familiar Natural Itsas-Berri	<ul style="list-style-type: none"> <li>• FPNren irakaskuntza</li> </ul>	200,00 €
Asociación Sociocultural Mujeres de Erandio	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Proiektua: elkarteko aldizkaria egitea</li> <li>• Kontzientziazio-proiektua: «Zero tolerantzia emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean»</li> </ul>	900,00 €
Asociación de Mujeres Gure Izarrak	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Irakurketa-lantegia</li> <li>• Martxoaren 8aren ospakizuna</li> <li>• Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna</li> <li>• Estrategiak trukatzeko: Markinako «Emakumeen Etxea» bisitatzea</li> <li>• Minbiziaren prebentzioari buruzko mahai-ingurua</li> <li>• Gaztelaniazko lantegia etorkinentzat</li> <li>• Kultura arabiarrari buruzko lantegia</li> <li>• «Azaroak 25»: genero-indarkeriaren aurka</li> <li>• Prestakuntza-jarduerak: elkarrean funtzionamendua hobetzeko</li> </ul>	1.100,00 €

ESKATZAILEA	DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN IZENBURUA	DIRULAG. ZENBATEKOA
Gaurko Andreak Berdintasunaren Aldeko Elkartea	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Emakumeen ahalduntzea</li> <li>• Lantegiak</li> <li>• Emakumea herrialde pobreetan</li> <li>• Emakumea eta politika</li> <li>• Genero-indarkeriaren aurkako jardunaldiak</li> </ul>	1.900,00 €
Asociación Socio Cultural Kimetz	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Literatura-lehiaketa</li> <li>• Emakumeak aldaketa-garaian</li> <li>• Hitzaldia: «Koadro bati behatzea»</li> <li>• Martxoak 8, emakumearen egunaren inguruko jarduerak</li> <li>• Proiektua: «Emakumeen aurkako indarkeria»</li> <li>• Topaketa irekiak: Goierriko emakumeen ekintza eta gogoeta</li> <li>• Prestakuntza-prozesuaren dinamizatzaileei eta parte-hartzaileei zuzendutako gida didaktiko baten sistematizazioa eta lanketa</li> <li>• Literatura-hizketaldiak</li> </ul>	4.800,00 €
Asociación Grupo Cultural de Mujeres de Sanfuentes	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Emakume elkarteak kudeatzeko trebezia sozialak</li> <li>• Generoa eta aukera-berdintasuna: Parte hartzeko eta esku-hartzeko tresnak</li> </ul>	6.930,00 €
Asociación de Mujeres Lanbroa	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Feminismoaren XIX. Eskola</li> <li>• Martxoaren 8a beste emakume elkarte batzuekin batera ospatzea</li> <li>• Mintegia: feminismoaren aurkako indarkeriaren azterketa</li> <li>• Lanbroa aldizkariaren 27. zenbakia argitaratzea. Feminismoaren aurkako indarkeriaren azterketa</li> </ul>	3.000,00 €
Fundación Centro de Promoción de la Mujer de Bizkaia	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Emakume nerabe eta gazteak sentiberatzeko jarduera Azaroaren 25a. Emakumearen aurkako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna</li> <li>• Emakume etorkinei zuzendutako prestakuntza-jarduera. Komunikazio-lantegiak emakume etorkinekin</li> <li>• Emakumeei eta gizonei zuzendutako prestakuntza-jarduera. Emakumeen eta gizonen artean etxeko lanak trukatzeko lantegiak</li> </ul>	1.000,00 €
Asociación Colectivo de Coeducación Emilia Pardo Bazán	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Sakontzeko mintegia: sexu-indarkeriarik gabeko bizikidetzan hezteak</li> </ul>	1.000,00 €
	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Mintegia: emakumeen parte-hartzea politikan</li> </ul>	1.000,00 €
Asociación Grupo Feminista Ostadar	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Emakume gazteei zuzendutako eztabaida feministarako gunea. Emakume gazteak berdintasunaren erronka berrien aurrean</li> </ul>	1.000,00 €
Federación Red de Asociaciones de Mujeres de Gipuzkoa «Redagi»	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Feminismoa eta emakumeek parte hartzeko metodologiak</li> </ul>	12.000,00 €
Centro Cultural Recreativo de la Mujer Uztai-Belar	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gipuzkoako Emakume Taldeen VI. Topaketa</li> <li>• Prestakuntza-prozesuaren dinamizatzaileei eta parte-hartzaileei zuzendutako gida didaktiko baten sistematizazioa eta lanketa</li> <li>• Artisautzako trebezien lantegiak, genero-ikuspegia kontuan hartuta</li> </ul>	5.500,00 €

ESKATZAILEA	DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN IZENBURUA	DIRULAG. ZENBATEKOA
La Liga de la Leche de Euskadi	<ul style="list-style-type: none"> <li>Lantegiak</li> <li>Hitzaldiak</li> <li>Amagandiko edoskitzearen Espainiako Bosgarren Biltzarra</li> </ul>	900,00 €
Asociación Socio Cultural de Mujeres Bagabiltza	<ul style="list-style-type: none"> <li>Emakumeei zuzendutako lanerako lanbide-prestakuntza</li> </ul>	11.000,00 €
Bagabiltza Fundazioa	<ul style="list-style-type: none"> <li>Generoa eta aukera-berdintasuna: Parte hartzeko eta esku-hartzeko tresnak</li> </ul>	9.141,25 €
Kukubedarra, Urdaibaiko Emakumeen Elkarte	<ul style="list-style-type: none"> <li>«Venus Dollica», etorkizuneko arkeologia</li> </ul>	1.000,00 €
Euskal Herriko Emakumeon Mundu Martxarako Plataforma Elkarte	<ul style="list-style-type: none"> <li>Mundu Martxako Plataforma Zabalduta</li> <li>Europako Mundu Martxarako bilera Bartzelonan</li> </ul>	1.500,00 €
Centro Cultural de Las Mujeres de Mamariga	<ul style="list-style-type: none"> <li>Lantegiak</li> </ul>	900,00 €
Centro de Formación de la Mujer de Elgoibar, Haizea	<ul style="list-style-type: none"> <li>Mekanika eta generoa</li> <li>Ahalduntze-ikastaroa, sexualitatearen azterketa eta genero-indarkeriaren prebentzioa</li> <li>«Emakumeen istorioak». Ikusgarri izateko erronka</li> </ul>	2.400,00 €
Asociación de Promoción de la Mujer Etxe-Barrukoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>«Etxeko emakume langileentzako eskubide guztiak»</li> </ul>	2.000,00 €
Asociación Socio-Cultural Asamblea de Mujeres de Ermua	<ul style="list-style-type: none"> <li>Proiektua: «Ermuko Mendeko Pertsonen Arreta Integralerako Zerbitzua eskaintzeko Plataforma sustatzea, antolatzea eta dinamizatzea»</li> </ul>	2.900,00 €
Asociación de Mujeres Afectadas de Cáncer de Mama y Ginecológico de Gipuzkoa, Katxalin	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ikastaroak</li> <li>Lantegiak</li> </ul>	1.300,00 €
Acambi, Asociación de Cáncer de Mama de Bizkaia	<ul style="list-style-type: none"> <li>Lantegiak</li> </ul>	1.100,00 €
Asociación Socio Cultural de Mujeres de Las Arenas, Gizatiar	<ul style="list-style-type: none"> <li>«Gizatiar» gure elkartearen batzorderako eta boluntariotzarako prestakuntza-ikastaroa</li> </ul>	900,00 €
Asociación Pro-Mujer Eraldatzen	<ul style="list-style-type: none"> <li>Prestakuntza-prozesuaren dinamizatzaileei eta parte-hartzaileei zuzendutako gida didaktiko baten sistematizazioa eta lanketa</li> <li>Proiektua: «Emakumeen eguneroko eta osasun-testuinguruetan generoaren eta aukera-berdintasunaren esparruetan ahalduntzeko eta gaitzeko lantegien zikloa»</li> </ul>	10.200,00 €
Emakumearen Inguruko Ikerkuntza Sustatzeko Emagin Elkarte	<ul style="list-style-type: none"> <li>«Emakumeentzako Eskola Feminista: analisi feminista gure jardueretan»</li> <li>«Tolosako emakume belaunaldi desberdinen arteko elkar ezagutza»</li> </ul>	1.600,00 €
Asociación de Promoción de Empleo Gremioak	<ul style="list-style-type: none"> <li>Lorezaintza-eskola</li> <li>Bizkaiko emakumeen elkarten IV. jardunaldia</li> </ul>	11.000,00 €

ESKATZAILEA	DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN IZENBURUA	DIRULAG. ZENBATEKOA
Asociación de Mujeres Mirra	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Proiektua: «Norberaren Lidergorako Ekintza Indibidualerako Planaren Jarraipena»</li> <li>• Emakumearen Lidergorako Ikastaroa: «Emakumeen energia: berrikuntza eta ekintza»</li> <li>• Berdintasunerako Euskadiko II. World Kafea</li> </ul>	2.300,00 €
Asociación Munduko Emakumeak / Mujeres del Mundo Babel	<ul style="list-style-type: none"> <li>• «Mujeres del Mundo - Munduko Emakumeak» lau hileroko aldizkaria</li> </ul>	1.400,00 €
Asociación Socio Cultural Comisión Contra Las Agresiones Sexistas de Bilbao	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Prebentzio- eta prestakuntza-kanpaina: autodefentsa feminista, indarkeria sexistari aurrea hartzeko eta emakumeen autonomia indartzeko tresna</li> </ul>	1.500,00 €
Besarkada, Federación de Asociaciones/Grupos de Teatro Aficionado de Mujeres	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Circuito «Mujeres en escena» 2009 / «Emakumeak eszenatokian» 2009 zirkuitua</li> <li>• Interpretazio aurreratuari buruzko ikastaroa</li> </ul>	900,00 €
Asociación Cultural Kafe Huts de Leioa	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Antzerki-lantegia</li> </ul>	300,00 €
Asociación Cultural «Denok Bat Bidetik» de Urkabustaiz	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lantegiak</li> </ul>	400,00 €
Asociación de Mujeres Cristianas Arnasatu	<ul style="list-style-type: none"> <li>• «Arnasatu» jardunaldiak</li> </ul>	1.000,00 €
Centro de Documentación de Mujeres / Emakumeen Dokumentazio Zentrua	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Mugimendu feministari buruzko literatura grisaren digitalizazioa eta eskuragarritasuna (1975. urtetik), Emakumeen Dokumentazio Zentroarena, eta horren kontserbazio digitala</li> </ul>	4.000,00 €
Euskal Herriko Bilgune Feminista	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Emarau aldizkaria</li> </ul>	700,00 €

## 4.7. Enpresei zuzendutako aholkularitza eta laguntza

Lan-esparruko eskumenak EAeko administrazioen artean banatuta daude eta, batzuetan, eskumen horietako batzuk falta dira; horren beste hainbat arrazoiren ondorioz, Emakundek gai honekin lotuta egiten duen lana sentibilizaziora eta enpresetan berdintasun-planak egiteko eta abiarazteko aholkularitzara eta laguntzara zuzentzen du.

### 4.7.1. Berdintasun-planak: txostenak eta aholkularitza

Emakundek aholkularitza eskaintzen die enpresei eta beste erakunde batzuei lan-esparruetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko planak, programak eta jarduerak garatzeko berdintasunaren arloko legediari eta baliabide materialei, ekonomikoei eta pertsonalei dagokienez.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legea garatzean eta enpresetan berdintasuna sustatzeko kontzientzia gero eta handiagoa denez, informazio- eta laguntza-eskaerak gora egin dutela ikusi da, ez soilik diagnostikoak eta berdintasun-planak egiteko garaian, baita plan horiek abian jartzeko orduan ere.

Bestalde, hainbat erakunderi aholkularitza eskaini diegu sexu-erasoei aurrea hartzeko eta horiek tratatzeko protokoloak prestatzeko gaian.

### 4.7.2. Enpresei eta erakunde pribatuei zuzendutako dirulaguntzak

Enpresei eta erakunde pribatuei zuzendutako dirulaguntzen deialdia berriro da, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko diagnostikoak eta planak diseinatzekeo laguntza teknikoak kontratatzekeo dirulaguntzen deialdia, hain zuzen; ondoko sei enpresa hauek jaso dute dirulaguntza:

#### ENPRESA ETA ERAKUNDE ONURADUNEN ZERRENDA

ERAKUNDE ONURADUNAK	KOPURUA
Unión Agricultores y Ganaderos de Álava - UAGA	5.431,37 €
Agricultores y Ganaderos de Álava Sdad. Coop. Lmdta.	2.360,78 €
LRK Emergentziak Koop E	3.813,50 €
Sociedad Cooperativa Larrialdiak (Lbus)	2.586,00 €
Asociación «Zubietxe» de inserción de personas drogodependientes y con dificultades de incorporación social	5.154,00 €
Asociación nacional de hogares para niños privados de ambiente familiar. Nuevo Futuro	6.000,00 €

Besteak beste, erakunde sindikal bat, hiru kooperatiba eta gizartegintzako bi erakunde daude. Lurraldeei dagokienez, horietako bi Araban daude, bat Bizkaian eta hiru Gipuzkoan. Erakunde gehienetan langileen artean emakumeen presentzia handiagoa da, eta erakunde horiek eskaintzen dituzten zerbitzuak erabiltzen dituzten gehienak ere emakumeak dira. Dirulaguntzak jaso dituzten erakunde guztiek aholkularitza-zerbitzuak eskaintzen dizkiete abeltzaintzako eta nekazaritzako us-tiapenei, osasun-zerbitzuei eta bazterketa-egoeran izateko arriskua duten taldeak gizarteratzeko gizarte-laguntzako zerbitzuei. Beraz, etorkizunean, berdintasun-planak abian jartzean gertatuko diren esku-hartzeek gizartean izango duten eraginak ondorio biderkatzaile garrantzitsua izatea espero da, bai eskainitako zerbitzuen kalitateari eta zerbitzu horietan lan egiten duten pertsonen lan-baldintzei dagokio-nez, bai gizonek eta emakumeek baliabide sozialak eta ekonomikoak eskuratzeko garaian desorekak murrizteari dagokionez ere.

### **4.7.3. Erakunde laguntzaileen jarraipena**

424/1994 Dekretuak ezartzen duenari jarraiki, erakunde laguntzaileen jarraipena egin da; dekretu horrek 2008. urteari dagokion jarraipen-txostena eta 2009. urteko lan-plana ematea eskatzen du.

Bestalde, aurreko deialdietan Emakunderen dirulaguntza jaso eta justifikatu du-ten erakundeen jarraipena egin da, eta lanean jarraitzeko konpromisoa betetzeko eskatu zaie, erakunde laguntzaile bihurtu arte. 2009. urtean onartutako erakunde laguntzaileak 2.4.2. atalean jaso dira.

Halaber, enpresei Berdintasun Ezaugarria ematea eta horietan ezaugarri hori era-biltzea arautzen duen Errege Dekretuaren zirriborrarako ekarpenak egin dira; Berdintasun Ministerioak prestatu du aurreko hori, Emakunde erakunde laguntzaileei egindako izendapena onartzeko eta homologatzeko.

### **4.7.4. Aholkularitza-erakundeen homologazioa eta jarraipena**

Enpresa eta erakundeei gizon eta emakumeen berdintasunaren alorrean laguntza teknikoa emateko aholkularitza-erakundeak homologatzeko deialdiari buruzko in-formazioa eta aholkua eman zaie aholkularitza-erakundeei.

Eskaera egin duten hiru enpresa balioetsi dira, eta hirurek lortu dute Aholkularitza Erakunde Homologatuen ziurtagiria enpresa eta erakundeei gizon eta emakumeen berdintasunaren alorrean laguntza teknikoa emateko, 105/2005 Dekretuaren ba-besean. Honako enpresa hauek lortu dute homologazioa:

- Obeto Banpro, S.L.
- Elhuyar-Zubize SLU
- Avento-Consultoría, S.L

Orobat, jardunaldi bat antolatu da homologatutako aholkularitza-erakundeekin, Emakundek enpresetan gizonak eta emakumeek duten egoeraren diagnostikoa egiteko diseinatutako metodologia berria aurkezteko. Metodologia hori homologatutako hainbat aholkularitza-erakundek aztertu dute urte honetan.

Aholkularitza-erakundeak homologatzeko dekretua aldatzeko proposamen bat egin da, hiru langile baino gutxiago dituzten aholkularitza-erakundeak homologatzea baimentzeko, laguntza teknikoa emateko orduan baldintza hori garrantzitsua ez dela egiaztatu baita. Proposamen hori Emakundeko Zuzendaritza Kontseiluaren aurrean aurkeztu behar da 2010ean, egoki baderitzo, onar dezan.

Azkenik, homologatutako aholkularitza-erakundeen jarraipena egin da, homologazioak eskatzen dituen baldintzak betetzen jarraitzen dutela berresteko.

## 4.8. Programak gauzatzea

### 4.8.1. Nahiko

Nahiko Programa baterako hezkuntzako programa bat da, Lehen Hezkuntzako neskek eta mutilek etorkizunean izango dituzten bikote-harremanetan tratu txarrik egon ez dadin aurreikusteko helburua duena. 2003. urtean jarri zen abian, eta Lehen Hezkuntzako 3. zikloan (10-12 urte) garatu zen. 2007-2009 urteetan programaren fase esperimentalak garatu da Lehen Hezkuntzako 2. zikloan, 3. eta 4. mailetan, eta 11 ikastetxek hartu dute parte.

Aurten, esperientzia honen barnean honako jardura hauek garatu dira:

- Irakasleen trebakuntza. Inplikaturako ikastetxeetan irakasleei zuzendutako bi mintegi egin dira. Mintegi horietan EAEko nahiz Estatuko adituek parte hartu dute, taldeari zenbait gai garrantzitsuren inguruan gogoeta egiten laguntzeko, esate baterako: generoaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren arteko harremana, tratu txarrei aurrea hartzeko baterako hezkuntzak duen garrantzia, komunikabideen eragina eta berdintasuna sustatzeko orduan bizikidetzak lantzeak duen garrantzia.
- Ikasleen sentsibilizazioa. Hiru hilean behin unitate didaktiko bat lantzen da; unitateak hainbat lan-koaderno ditu ikasleentzat eta irakasleentzat, materialak eta jolas osagarriak hainbat formatutan, eta familia-koaderno bat etxean senideekin egiteko jardueretarako. 2009. urtean 5. eta 6. unitate didaktikoak landu

Nahiko programa



dira, eta ondoko gai hauek aztertu dira: «Komunikabideak» eta «Berdintasunean oinarritutako bizikidetza», hurrenez hurren.

- Hiru hilean behingo saioa ikastetxe bakoitzean. Saio honen helburua ikasleen sentsibilizazio-zeregina sendotzea da, eta ikasgelako irakasleen esku-hartzeen bitartez egiten da. Horretarako, aurrez aukeratutako eta trebatutako adituak izan ditugu, eta aditu horiek eman dituzte saio berezi hauek ikastetxeetan. Zehazki, 2009. urtean bi lantegi egin dira: prentsa-lantegia eta jolasen lantegia, urtean zehar landutako unitate didaktikoekin lotuta.
- Familien sentsibilizazioa. Parte hartu duen ikastetxe bakoitzean, hiru hilean behin saio bat egin da ikasleen familiekin. Horretarako, aurrez aukeratutako eta trebatutako adituak izan ditugu. Honako gai hauei buruzko gogoeta egin da: emakumeen aurkako indarkeriari buruz eta neskek eta mutikoak berdintasunean hezteko beharrari buruz nahiz unitate didaktiko bakoitzeko gai zehatzei buruz.
- Programan parte hartu duten ikastetxe guztien azken topaketa. Familiek, ikasleek eta irakasleek ekainean Donostiako Kursoalen egindako azken topaketan parte hartu dute. Bi ikasturteetan programak ekarri duenaren laburpena da; ekitaldian instituzioek eta programan parte hartu duten ikasle guztiek, irakasleek eta begiraleek hartu dute parte.
- Programaren ebaluazioa. Programaren kanpoko ebaluazioa egiten jarraitu dugu, eta, horretarako, EHU-Euskal Herriko Unibertsitatearen lankidetzara izan dugu. 2007-2009 arteko fase esperimental honetan EHU arduratu da programaren kanpo-ebaluazioa egiteaz. Ebaluazioaren emaitzak bi txostenetan jaso dira: bata prozesuaren ebaluazioari buruzkoa eta, bestea, helburuen ebaluazioari buruzkoa. Bi ebaluazioak kontuan hartuko dira hurrengo fase esperimentalaren diseinatze garaian.
- Programan parte hartu duten ikastetxeek Berritzeguneetan prestakuntza-proiektuak aurkeztea sustatu da, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren deialdian barnean. Jarduera horien helburua NAHIKO programa Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren ohiko bideetan progresiboki txertatzea da.
- Irakasleei zuzendutako aholkularitzaren eta mintegien bitartez, laguntza eskaini zaie Nahiko programa Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. zikloetan ezartzen ari diren ikastetxeei. Lehen Hezkuntzako 2. zikloko fase esperimentalaren aurretik, zenbait ikastetxek Nahiko programa euren kabuz ezartzen joateko interesa agertu zuten. Ikastetxe horientzat eta ikastetxe horiei aholkularitza eskaintzen dieten Berritzeguneentzat irakasleei zuzendutako laguntza eta prestakuntza emateko programa bat jarri da abian; programa horren barnean garatzen diren prestakuntza-mintegietan unitate didaktiko jakin batzuetako materialak aurkezten eta lantzen dira, eta unitate horien edukietan aditua den pertsona baten laguntzarekin gai bat azaltzen da. 2009. urtean mintegi bat egin da.

## 4.8.2. Gizonduz

Gizonduz Emakundek bultzatutako ekimen aitzindaria eta berritzailea da. Ekimenaren helburua gizonen inplikazio handiagoa sustatzea da emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde, eta haien artean masa kritikoa sortzea, adierazitako helburua lortzeko aurrerapen handiagoak egin daitezen.

Ekimenak 19 neurri ditu, eta neurri horien xedea ondoko helburu hauek lortzea da:

- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde sentsibilizaturiko gizonen kopurua handitzea.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan prestatutako gizonen kopurua handitzea.
- Gizonek etxeko lanetan eta pertsonen zaintzan duten erantzunkidetasuna handitzea.

2009. urtean, Gizonduz ekimenaren barnean, honako jarduketa hauek garatu dira:

- *Euskal gizonen eskutitza, berdintasunaren alde eta emakumeenganako indarkeriaren kontra* hedatzea eta atxikimenduak jasotzea. 2008ko apirilean Juan Jose Ibarretxe Markuartu lehendakariak publikoki aurkeztu zuen eskutitz hau, euskal gizarteko hainbat esparrutako beste gizon batzuekin batera. Orduz geroztik, Eusko Legebiltzarrak eta udal eta erakunde publiko eta pribatu ugari, eskutitz hori hedatzen eta horren aldeko sinadurak biltzen lagundu dute. Horri guztiari esker, 2009an hasiera batean aurreikusitako helburuetako bat lortu da: testua 10.000 gizonek baino gehiagok sinatzea.
- Berdintasunaren aldeko gizonengan espezializatutako web-espazioaren administrazioa ([www.euskadi.net/gizonduz](http://www.euskadi.net/gizonduz)); ekimenari buruzko informazio ugari du hainbat euskarritan, bai eta elkarrizketak, dokumentazioa, bibliografia, bideoak, web interesgarrietarako loturak, etab.
- Bestalde, Gizonduz bloga ere badu, herritarrei irekitako espazio bat, berdintasunarekin, gizonekin eta maskulinitasun berriekin lotutako gaur egungo gaiei buruzko beren iritziak, gogoetak eta iruzkinak ager ditzaten. 2009an, weba eguneratzeko eta administratzeko zereginekin eta buletin elektronikoaren hedapenarekin jarraitzeaz gain, Gizonduz ekimenak kontua ireki du *Facebook*-en eta *YouTube*-n.
- Aitei zuzendutako Gizonduz bizkar-zorroaren banaketa. 2008ko irailean aurkeztu zen bizkar-zorro hori eta, orduz geroztik, 12.000 aitek baino gehiagok jaso dute,



Gizonduzen web-orrialdea: [www.euskadi.net/gizonduz](http://www.euskadi.net/gizonduz)

emaginen bitartez eta foru-aldundietako adopzioko organo eskudunen bitartez. Bizkar-zorro horretan zainketaekin eta aitatasunarekin lotutako gaiei buruzko jarraibideak emateko sentsibilizazio-materialak jaso dira, bai eta aitaren irudiak balio ez sexistak transmititzeko orduan duen eraginari buruzkoak ere. Zehazki, material horiek Euskadiko Kutzaren laguntzarekin egin dira, eta honako hauek dira: «Aitak» dokumentala, «Aitaren sekretua» ipuina, «Aitak berdintasunean» gida, «Gizonak, berdintasuna eta maskulinitasun berriak», «Berdinometroa» jolasa, autoan jartzeko eranskailu bat eta Gizonduz egunkaria.

- Sentsibilizazio- eta prestakuntza-programa. 2009ko martxoan jarri zen abian programa hau; hainbat ikastarok osatu dute, batzuk aurrez aurrekoak eta beste batzuk Internet bidezkoak, eta 2009an zehar garatu dira. Ikastaroak doakoak dira, eskaintza zabala eta askotarikoa da, eta egokigarritasuna eta malgutasuna dituzte ezaugarri. Bi ikastaro-mota daude: programatutakoak, hau da, ikastaroaren alderdi nagusiak (edukiak, ezaugarriak, egutegia, non eta zein hizkuntzatan egingo den, etab.) aurrez zehaztuta dituztenak; eta programatu gabeak edo «kartara» egingakoak, eskaintzaren arabera antolatzen direnak bai iraupenari eta edukiei dagokienez eta bai egiten diren tokiari eta zuzentzen zaien pertsoneri dagokienez ere. Emakumeek ere har dezakete parte ikastaro horietan, baina bereziki gizonezkoen zuzendutako ikastaroak dira, bakarka edo taldean, interes pertsona-



55 ikastaro egin dira; horietan 670 gizonek eta 285 emakumek parte hartu dute

lak bultzatuta eta/edo ikuspegi profesionaletik, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna zer den eta horren alde nola lan egin daitekeen sakonago ezagutu nahi dutenei, hain zuzen ere. Alde horretatik, gizonekin, berdintasunarekin eta maskulinitasunarekin lotutako gaiak lantzen dira, eta hainbat gai aztertzen dira, hala nola osasuna, zainketa, aitatasuna, sexualitatea, bide-segurtasuna, emakumeen aurkako indarkeria, drogamendekotasunen prebentzioa, kriminalitatea, etab. Prestakuntza-programaren lehenengo bederatzi hilabeteetan (2009ko martxotik abendura) 55 ikastaro antolatu dira, eta 670 gizonek eta 285 emakumek hartu dute parte berorietan; guztira ia 400 prestakuntza-ordu inguru eman dira. Asetasun-maila oso handia izan da, eta parte hartu duten pertsonen % 97ri baliagarriak iruditu zaizkie ikastaro horiek beren bizitza pertsonalerako, eta % 84ri beren bizitza profesionalerako.

- Berdintasunaren aldeko gizonen elkarteei zuzendutako dirulaguntzak. 2009ko apirilaren 21ean Emakundeko zuzendariak emandako Ebazpenaren bidez, 2009ko ekitaldian Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde lan egiten duten gizon-elkarteei zuzendutako dirulaguntzak arautu ziren. Dirulaguntzen kopuru osoa 18.000 €-koa izan da, eta hurrengo taulan adierazitakoaren arabera banatu dira:

ERAKUNDE ONURADUNA	DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN IZENBURUA	DIGULAGUNTZAREN ZENBATEKOA
Grupo de hombres por la igualdad de Álava «GHIA»	Genero-berdintasuna eta zinema	2.084,06
Gizon Sarea Elkartea	Irauli indarkeria	2.951,06
Asociación de Hombres de Ermua por la Igualdad «Zipriztintzen»	Zipriztintzen-en bideoa indarkeria matxistaren aurka	1.004,06
Gizon Sarea Elkartea	Gizon Sarea Elkartearen weba	2.944,06
Grupo de Hombres por la Igualdad de Álava «GHIA»	Jostailu ez-sexistaren kanpaina	2.354,06
Asociación de Hombres de Ermua por la Igualdad «Zipriztintzen»	Euskadiko gizon-taldeen 1. topaketa	3.611,56
Asociación de Hombres por la Igualdad «Piper txuriak-Guindillas blancas»	Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde gizonek parte hartzeko sentsibilizaziorako jarduerak 2009.	3.051,14

- Masterren, graduondokoen eta berdintasunerako foroaren hedapena. Gizonek gizonen eta emakumeen berdintasunari buruzko ikastaroetan, masterretan eta unibertsitateko graduondokoetan nahiz Emakundek antolatutako Berdintasunerako Foroan parte har dezaten sustatzeko, buletin elektronikoaren eta Gizonduz webgunearen bidez jarduera horien publizitatea egin da.
- Euskal gizonen eskutitza Nahiko programaren materialetan txertatzea. Eskutitz horretan landutako alderdietako batzuk eskola-testuinguruan lan daitezzen, eskutitzeko eduki batzuk egokitu egin dira eta Lehen Hezkuntzako bigarren zikloko «Berdintasunean oinarritutako bizikidetza» 6. unitateko ikasleen eta familien koadernoan txertatu dira.
- Sentsibilizatzeko beste jarduera batzuk. Ekimena ezagutzera emateko, Emakundek sentsibilizaziora zuzendutako jarduera ugaritan (hitzaldiak, jardunaldiak, kongresuak, etab.) parte hartzen jarraitu du, eta hainbat komunikabidetan hitz egin du.

## 4.9. Aholkularitza juridikoa

Emakundeko Aholkularitza Juridikoak Emakunderi esleitutako funtzioetan parte hartu du, eta hainbat gairen barneko eta kanpoko izapideak egin ditu, bereziki dirulaguntzen eta hitzarmenen izapideak, eta, bestalde, arau juridikoak egiteko prozeduran nahiz aplikagarri den araudiaren berrikuspenean, jarraipenean eta eguneratzean ere parte hartu du. Halaber, partikularrei eta Eusko Jaurlaritzako, foru-aldundietako eta EAEko udaletako sailei aholkularitza juridikoa eskaini die Emakunderen jarduketa-eremu berezikien lotutako gaietan.

Zehazki, honako hauek izan dira aholkularitza juridikoko funtzioak:

- Berdintasunerako Emakumeen Euskal Kontseiluaren Legearen aurreproiektuaren zirriborroen nahiz Aholkularitza Erakundearen Homologazioa arautzen duen Dekretua aldatzeko dekretu-proiektuaren lanketa eta izapidetzea.
- 4/2005 Legeko 21. artikuluan ezarritakoa betez, generoaren eraginari buruzko aurretiazko ebaluazio-txostenak egitea.
- Eusko Jaurlaritzako, foru-aldundietako eta tokiko erakundeetako sailtako berdintasun-planetak txostenak egitea, 4/2005 Legeko 15. artikulua betez.
- Bi zigor-espeditente bideratzea eta ebaztea; bi espeditente horiek Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundearen ikerketa oztopatzeagatik abiarazi ziren.

Egoera pertsonalei buruzko alderdi partikularrei arreta eskaintzea eta bideratzea, bai laneko eta familiako bizi-tza uztartzeari dagokionez, bai lanarekin, gizarte-segurantzarekin, gizarte-zerbitzuekin, laguntza juridikoarekin, banantzeekin, deuseztatzeekin eta dibortzioekin lotutako gaietara dagokienez ere.

## 4.10. Azterketak, ikerketak, argitalpenak

### *Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko kopuruak*

Erakunde sortzeko 2/1988 Legeak EAEko emakumeek duten egoeraz urtero txosten bat egiteko betebeharra ezartzen du. Horrela, bada, txosten honen xede nagusia da garrantziaren arabera hautatutako datu-multzoak herri administrazioen eta gizarte-erakundeen eta -eragileen esku jartzea, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunei buruzko ikuspegia eskaintzeko eta, hartara, programa publikoak diseinatzea eta planifikatzea errazteko. Bestalde, herritarrak informatzeko eta sentiberatzeko bokazioa ere badu.



Txostenean jaso ditugun adierazleak etengabe eguneratzen direnez, egungo gizartearen baldintzak deskribatzeaz gainera, txostena baliagarria da denboraren joanean izandako aldaketa-prozesuak hobeto ezagutzen laguntzeko ere. Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko 2008ko txostenak gizartearen zenbait alorri buruzko adierazle kuantitatibo batzuk jasotzen ditu. Aurtengo txostenean, iazkoan bezala, garrantzi berezia eman diogu aldeak edo konparazioak egiteari eta, horretarako, bi esparrutako adierazleak jaso ditugu: batetik, Estatuko autonomia-erkidegoen egoerari buruzkoak, eta, bestetik, Europar Batasuneko estatu kideen egoerari buruzkoak. Zazpi ataletan egituratu da: Demografia, Hezkuntza, Lana, Gizarteratzea, Osasuna, Emakumeen aurkako indarkeria eta Kultura eta Kirola. Horietako bakoitzak adierazleen taulak eta datuen azterketa orokorra hartzen ditu barne. Txostena egiteko erabili dugun metodologia aurreko urteetako adierazle nagusiak eguneratzean oinarritu da, bilakaera nolakoa izan den erakusteko; baina, aldi berean, arlo bakoitzeko adierazle berriak erantsi ditugu, horien garrantzia kontuan hartuta. Txostenean jasotako informazioa autonomia-erkidegoetako, Estatuko eta

Europako erakundeetako iturri ofizialetatik jasotakoa da, estatistikak egiten espezializatuta dauden erakundeetatik, bereziki<sup>11</sup>.

Honako jarduera osagarri hauek gizarte-errealitatea hobeto ezagutzen lagunduko dute: emakumeen eta gizonen berdintasun-arloan ikerketa-proiektuak eta ekintza pilotuak argitaratzen eta egiten laguntzeko dirulaguntzetarako deialdia; dokumentazio-zentroa mantentzea eta kudeatzea, aukera ematen baitu ikasteko eta ikertzeko

<sup>11</sup> Eranskinean ebaluazioaren laburpena txertatu da. Txosten osoa Erakundearen web-orrian eskura daiteke: [www.emakunde.euskadi.net](http://www.emakunde.euskadi.net)

aholkularitza nahiz bitartekoak emateko bai Emakundeko eta herri-administrazio guztietako langileriari berari, bai beste esparru batzuetan -unibertsitateetan eta abar- ikerketan dihardutenei.

#### 4.10.1. Dirulaguntzen deialdia

Emakumeen eta gizonen berdintasun-arloan ikerketa-lanak edo ekintza pilotuak argitaratu eta egiteko proiektuei diruz laguntzeko 2009. urtean egindako deialdian 10 dirulaguntza ematea erabaki da; horietako sei ikerketa-lanetarako, eta gainerako laurak ekintza pilotuak egiteko. 58 eskaera jaso ziren eta bi uko-egite gertatu dira, erakunde onuradunek hala eskatuta.

Ikerketa-lanak Euskadiko neska nerabeen aurkako indarkeriari eta lan-esparruko ahalduntzeari, garraio publikoari eta hezkuntzari buruzkoak dira; eta ekintza pilotuak, berriz, emakumeak hainbat produkzio-sektoretan, metalaren sektorean eta sektore kimikoan, adibidez, sartzea eta promozionatzea bultzatzen dute.

2008. urtean emandako dirulaguntzak justifikatzeko dokumentuak eta memoriak aztertu dira, eta emaitzak onak izan ziren, lanak aurreikusitakoaren arabera egin ziren, baina bi kasutan murrizketak aplikatu behar izan ziren emandako laguntzetan, gastuak justifikatu gabe zeudelako.

Honako laguntza hauek eman dira:

ESKATZAILEA	PROIEKTUAREN IZENBURUA	DIRU-KOPURUA
Politeknika Ikastegi TXORIERRI, S. Coop.	Ezagutu hautatzeko. Enpresara genero-ikuspegirik gabe hurbiltzea	7.320 €
Asociación Vizcaína de Empresas Químicas - Kimika	Kimika II: berdintasuna sustatzen (hurbilketa praktikoa)	22.830 €
ETEO, S. Coop. Mondragón Unibertsitatea	Faktore psilologiko-sozialen Eragina jarduera ekintzailean: EAEko emakume ekintzaileak	18.903,52 €
Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU	Gizona eta emakumeen irudia Euskal Herriko eta Kataluniako telesailetan eta beren web orriak	4.960 €
ETEO, S. Coop. Mondragón Unibertsitatea	Gizonen eta emakumeen irudia Euskal Herriko eta Kataluniako telesailetan eta beren web-orrietan	15.197,20 €
Federación Vizcaína de Empresas del Metal	Emakumeek eta gizonen dituzten oztopoak eta aukerak kooperatibetako gobernu-organoetan sartzeko	36.540 €
Lahia-Nahia Sexologia Elkarte	Indarkeria sexistaren diagnostikoa euskal nerabeengan	6.220 €

ESKATZAILEA	PROIEKTUAREN IZENBURUA	DIRU-KOPURUA
Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU	Emakumea merkataritzako ontzidietan sartzea	7.800 €
Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa S.A. Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza S.A.	Genero-berdintasuna Gipuzkoako herri-garraioen sisteman	24.000 €
Deustuko Unibertsitatea	Genero-desberdintasunak autoeraginkortasunarekin lotutako aukeretan eta unibertsitateko ikasle euskaldunen arteko proiektzio profesionalen	11.809,28 €

## 4.10.2. Argitalpenak

### *2008ko Jardueren Memoria*

1.000 ale paperean, argitalpen elebiduna.

### **SARE 2008 Biltzarra – «Berdintasuna BERRIKUNTZAn, berdintasunerako»**

500 ale paperean euskaraz, eta 500 ale paperean gaztelaniaz.

### **«Guía de lenguaje para el ámbito de la salud»**

4.000 ale paperean.

### **«Guía de lenguaje para el ámbito del deporte»**


4.500 ale paperean.

### **«Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakunde arteko II. Akordioa»**


5.000 ale paperean, argitalpen elebiduna.



Emakundeko Memoria - 2008



2008ko SARE kongresua



«EAE-ko nerabeak. Hurbilketa ahalduntzetik abiatuta»

500 ale paperean, argitalpen elebiduna.

«Emakumeen eta gizonen presentzia Euskadiko erabaki guneeetan»

500 ale paperean, argitalpen elebiduna.

«NAHIKO»

Lehen Hezkuntzako 3, 4, 5, eta 6. ikasturteetako programa osatzen duen materialaren 100 ale. Argitalpen elebiduna

«EAEko emakume elkartearen gida»

900 ale paperean eta 900 CD berrargitaratu dira. Argitalpen elebiduna

## 4.11. Dokumentazio-zentroa

Emakunderen dokumentazio-zentroak ohiko kudeaketa eta mantentze-lanak egin ditu: funtsak eskuratzea, katalogazioa eta indexaketa, aldizkarien harpidetzak kontrolatu eta horietatik artikulua hustea, etab. Horiez gain, zentroak eskaintzen dituen zerbitzuetako erabiltzaileei arreta eskaintzearen inguruko lanak ere egin dira:

- Informazio-eskariei erantzun zaie gutunez, faxez, posta elektronikoz, telefonoz edo zuzenean.
- Aholkularitza bibliografikoa eskaini da eta zerrenda bibliografikoak eta bideografikoak egin dira eskaerak jaso ahala, bai Emakundeko langileentzat, bai kanpoko erabiltzaileentzat.
- Gai jakinei buruzko prentsako albisteak hautatu dira.
- Liburu, bideo eta abarren maileguak egin dira.

Emakundeko langileen eskaerei ere erantzun die zentroak. 2009an 299 kontsulta egin dira (214 liburu eta ikus-entzunezko 40 dokumentu –DVD, CD-ROM– mailegatu dira); kanpoko 331 kontsulta jaso dira, eta horietatik % 21,45 (71 eskaera) beste autonomia-erkidego batzuetatik iritsi dira. Barneko kontsultak % 19 handitu dira 2007an egindakoekin alderatuta (guztira 251 kontsulta). Hazkunde hori oso handia izan da, bai kontsultei dagokienez, bai mailegatutako materialari dagokionez ere. Barne-kontsultaren hazkunde handi hori 2008an abiarazitako langileen hazkundearen isla baino ez da, Emakunde osatzen duten langile teknikoek ugaritzea ekarri duena. Ikus-entzunezko materialaren (DVDak eta CD-ROMak) mailegua handitu egin da, kasu askotan bideoa eta liburuak ordezkatu baitituzte material horiek. Kanpoko kontsultei dagokienez, erantzundako eskaeren artetik 7 beste herrialde batzuetatik iritsi dira.

Aurreko ikasturtearekin alderatuta, 2009an (kanpoko 331 kontsulta) beherakada nabarmena gertatu da aurreko urtearekiko (450). Bestalde, posta elektronikoko bidez egindako eskaerei dagokienez, guztien % 72,50 baino gehiago izan dira, eta kontsultatzeko euskarri horrek behera egin du apur bat 2008. urtearekiko (% 75,77). Kanpoko maileguei dagokienez, 87 liburu, 10 bideo eta 43 CD edo DVD mailegatu dira. Maileguan emandako liburu-kopurua jaitsi egin da, baina jaitsiera hori ikus-entzunezko dokumentuen (batez ere CDak edo DVDak) maileguek izandako igoerarekin orekatzen da. Kontsultak egiteko posta elektronikoen bidez izan duen igoera nabarmenari lotuta, adierazi behar da gero eta gehiago direla dokumentu elektronikoa bidalita erantzuten diren eskaerak (monografiak, artikulua eta PDF edo Word formatuko dokumentuak). Gehienak Emakundek paperean argitaratutako dokumentuak dira, baina agortuta daude edota formatu horretan bakarrik argita-

ratuta daude. Aretuan edo zuzenean egindako kontsultak apur bat igo dira 2008. urtearekin alderatuta (2008an kontsulta guztien % 15 izan ziren, eta 2009an % 20). Laburbilduta, posta elektronikoa tresna nagusi gisa sendotu egin da, bai kontsultetarako, bai dokumentazioa lortzeko ere. Aldiz, aretoko kontsultak eta dokumentazioa paperean eskuratzea jaitsi egin dira. Kanpoko kontsulten beherakada 2003. urtetik ari zen gertatzen, eta 2006an eta 2008an gertatu ziren beherakada handienak. Beherakada horren arrazoa dokumentu elektroniko gero eta gehiago daudela da, bai Emakunderen web-orrian (lehen maileguan ematen ziren dokumentuak edo argitalpenak orain web-orrialdetik jaitsi daitezke), bai Dokumentazio Zentroko gure katalogoan (barneko eta kanpoko argitalpenak, etab.).

Telefono bidez 937 kontsultari erantzun diegu; kopuru hori 2008koa baino apur bat txikiagoa da, urte horretan 1089 kontsultari erantzun baitzitzaien. Kontsulta horien banaketa irregularra da urtean zehar, baina, aurreko urteetan bezalaxe, oso esanguratsua izan da: dei gehienak martxoan, azaroan, apirilean eta urrian egin dira, beheranzko ordenan. Martxoan, Emakumearen Nazioarteko Egunak hartu zuen jarduera gehiena iaz (joan den urtean Aste Santuko oporrak ez ziren martxoan izan). Urrian eta azaroan ere jarduera handiagoa izan da, eta horrek adierazten du azkenaldian *azaroaren 25ak, Emakumearen aurkako Indarkeriaren kontrako Egunak*, komunikabideetan hartzen ari den gero eta garrantzi handiagoa eta gizartean duen gero eta proiektzio handiagoa. Hala ere, 2008an, apirilean kontsulta asko egin ziren, Aste Santuko oporrak tartean egon arren, eta unibertsitateko ikasleek egin zituzten eskaera horiek.

Kanpoko kontsultekin jarraituz, martxoan hurbildu da kanpoko jende gehien gure zentrora, bai aretora bai liburuak mailegatzera (Emakumearen Nazioarteko Eguna dela eta). Hala ere, oro har, kanpoko kontsulten kopurua jaitsi egin da hilabete gehienetan (martxoan izan ezik, 2008an Aste Santua orduan egokitu baitzen). Lehenago esan dugunaren ildotik, azaroaren 25aren inguruko kontsultak eta eskaerak irailean hasi ziren, eta urrian egin zen kontsulta gehien. Zentroko erabiltzaileek ez dute azarora arte itxaroten eskaerak egiteko, eta eskertzekoa da, behar bezala kudeatzeko eta eskaerei modu egokian erantzuteko aukera ematen baitigu horrek.

2002. urtetik Emakunderen webgunetik *on line* kontsulta daitezke zentroko katalogoak. Aurten, gainera, Emakunderen web-orri berria estreinatzearekin batera, Dokumentazio Zentroak katalogoa kontsultatzeko pantaila berri bat du, Absysweb formatuan. BRS programa Absys-era migratzeko lanak amaitu ondoren, katalogo hau Interneten kontsulta daiteke 2009ko martxotik.

Liburutegiko datu-basean 672 erreferentzia dokumental berri sartu dira 2008an (% 40 monografiak dira eta % 50etik gora artikulak, dokumentuak, etab.). Nabarmenezkoa da, halaber, erreferentzia dokumental berrien % 10 euskarri digitalean daudela (DVD). Lehen aipatutako erregistro-migrazioaren ondoren, MARC formatua duten erregistroen zuzenketa eta arazketa-lana egiten ari gara.

Katalogatutako materialen erreferentziekin hilero «*Kaleratu Berrien Buletinak*» prestatu dira, eta barnean (Emakundeko langile teknikoei) nahiz kanpoan (eskatzen duten dokumentazio zentroein) banatzen dira, posta elektronikoaren bidez.

2009an barneko antolamenduarekin lotutako zereginak ere egin dira, une honetan dagoen dokumentazioa hobeto aprobetxatzeko eta zaintzeko; esate baterako, 1996. urtea baino lehenagoko materialen erabilera kontrolatu da, ale bakarren mailegua eragotziz, jada katalogotik kanpo dauden edo birjartzeko zailtasunak dauden dokumentuen osotasuna bermatzeko.


Bestalde, Dokumentazio Zentroak «*Emakunde*» hiruhileko aldizkaria egiten parte hartu du, eta duela gutxi argitaratutako eta aldizkariko «*Liburuak*» ataleko Dokumentazio Zentroak erositako liburuak edo dokumentuak proposatzen dira aldizkarian.

Dokumentazio Zentroko datu-baseetan jasotako informazioaren migrazio-prozesua amaitu da, gorago aipatu dugunez. Bibliografia katalogatzeko, kudeatzeko eta kontsultatzeko ABSYS programan kargatu dira datuak; Eusko Jaurlaritzaren barneko programa informatiko arrunta da. Horretarako, migrazio informatikoa egin ondoren, lehen aipatutako programan erregistro bibliografikoak garbitu eta zuzendu dira, erregistro bibliografikoei buruzko ISBD arauetara egokitzeko, baina Emakundeko thesauruseko deskriptoreak erabiltzen dira erregistro berriak katalogatzeko orduan.

Estatuko beste dokumentazio-zentroekin elkarlanean aritzeari dagokionez, nabarmentzekoa da *Emakumeen Dokumentazio Zentroen eta Liburutegien Sareak* garatutako jarduera eta proiektuetan parte hartu duela Emakundek, hala nola, «*Aldizkarien katalogo kolektiboa*» proiektuan. Oraindik abian dagoen asmo handiko proiektua da, kide diren zentro guztietako aldizkako argitalpenen izenburuak biltzen ditu, oraindik argitaratzen direnak eta ez direnak ere bai. Gainera, «Emakumea» gaiarentzat espezifikoak diren indexatze tresnen (*thesaurusa*) berrikuste eta eguneratze kolektiboa egiteko lanetan ere hartu du parte.


Kanpoko eskaera kopuruaren bilakaera hileka  
(2008-2009)

	2008	2009
urtarrila	44	31
otsaila	42	37
martxoa	29	64
apirila	47	21
maiatza	39	27
ekaina	41	20
uztaila	40	16
abuztua	2	1
iraila	46	26
urria	61	31
azaroa	30	31
abendua	29	26




### Erabilitako kontsulta moduaren arabera kanpoko eskaerak (2008-2009)

	2008	2009
posta elektronikoa bidez	341	240
zuzenean	68	64
fax bidez	2	3
posta arruntaren bidez	7	7
telefono bidez	19	17



Telefono bidezko kontsulten hileroko bilakaera  
(2008-2009)

	2008	2009
urtarrila	101	75
otsaila	99	83
martxoa	86	103
apirila	100	98
maiatza	99	75
ekaina	95	74
uztaila	76	71
abuztua	2	6
iraila	99	72
urria	114	94
azaroa	116	99
abendua	82	82



**DOKUMENTAZIO-ZENTROA - ESTATISTIKAK**

	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
Barneko kontsultak	<b>167</b>	<b>216</b>	<b>128</b>	<b>136</b>	<b>109</b>	<b>146</b>	<b>251</b>	<b>299</b>
	201 LIB.	246 LIB.	148 LIB.	148 LIB.	82 LIB.	109 LIB.	85 LIB.	214 LIB.
	13 BID.	22 BID.	16 BID.	16 BID.	10 BID.	5 BID.	47 DVD-BID.	37 DVD-BID.
Kanpoko kontsultak	<b>715</b>	<b>695</b>	<b>555</b>	<b>414</b>	<b>470</b>	<b>255</b>	<b>450</b>	<b>331</b>
	396 LIB.	309 LIB.	248 LIB.	179 LIB.	234 LIB.	183 LIB.	144 LIB.	87 LIB.
	81 BID.	120 BID.	85 BID.	70 BID.	51 BID.	61 BID.	55 BID.	10 BID.
						11 CD-DVD	29 CD-DVD	43 CD-DVD
Telefono-kontsultak	<b>676</b>	<b>944</b>	<b>965</b>	<b>850</b>	<b>928</b>	<b>970</b>	<b>1.089</b>	<b>937</b>
Erref. dok. berriak	<b>999</b>	<b>1.152</b>	<b>618</b>	<b>767</b>	<b>648</b>	<b>410</b>	<b>467</b>	<b>672</b>
	43 BID.	52 BID.	27 BID.	23 BID.	20 BID.	17 DVD	50 CD-DVD	85 CD-DVD

## 4.12. Gizartearen sentsibilizazioa

### 4.12.1. Emakunde aldizkariaren argitalpena

Aurreko urteetan bezala, lau aldizkari argitaratu dira.

- 74. ZENBAKIA.** Lehen hiruhilekoko lehen aldizkariak, martxokoak, euskal nerabeen ahalduntze-prozesuak izan zituen gai nagusitzat, Emakundek «EAE-ko nerabeak. Hurbilketa ahalduntzetik abiatuta» azterketa argitaratu zuela kontuan hartuta.



- 2 **75. ZENBAKIA.** Bigarren aldizkarian, ekainekoan, haurrentzako ipuinak eta genero-rolak landu ziren.
- 3 **76. ZENBAKIA.** Urteko hirugarren aldizkariak, irailekoak, emakumeen eza-gutzak aztertu zituen.
- 4 **77. ZENBAKIA.** Laugarren aldizkariak, abenduak, krisi ekonomikoa eta emakumeak gaiari buruzko informazioa, iritziak eta erreportajeak bildu zituen.

## 4.12.2. Berdintasunerako Emakunde Saria

Berdintasunerako Emakunde Saria irailaren 12ko 166/2006 Dekretuaren bitartez sortu eta arautzen da. Hala ere, 1990. urtean Emakunde Sariekin hasitako lanaren emaitza da; sari horiek urtero eman dira 2005. urtera arte.

2006. urtean, Emakunde Sarien inguruan 16 urtez egindako lanaren emaitza moduan, sari horiek birformulatu egin ziren eta Berdintasunerako Emakunde Saria sortu zen; sari horren helburua emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren

Berdintasunaren  
aldeko Emakunde  
Saria



arloan egindako lanarengatik nabarmendu diren pertsona fisikoei –publikoak nahiz pribatuak– jendaurreko ezagutza egitea da, eta lan hori jendaurrean nabarmen-tzea. Emakumeek egindako lana aintzat hartzearen eta emakumeei boterean da-gokien lekua itzultzearen egindako ekintzak, lanak edo proiektuak saritzen dira, lan, ekintza edo proiektu horiek, modu nabarmenean, emakumeen balioespena eta duintasuna bultzatzen dutenean edo EAEko emakumeen eta gizonen eskubide- eta aukera-berdintasuna sustatzen dutenean.

2009ko ekitaldian, otsailaren 9an eman zen 2008ko edizioko Saria. 2008ko edi-zioa 2008ko irailaren 18ko Ebazpenaren bitartez arautu zen, eta 2008ko urriaren 1eko Ebazpenaren bidez jakinarazi zen epaimahaia nork osatuko zuen.

Azkenik, 2008ko abenduaren 11ko Ebazpenaren bidez, 2008ko ekitaldian Ber-dintasunerako Emakunde Saria ematea erabaki zen, eta La Brakamonte elkarte soziokulturalak, Bizkaiko Emakumeen Asanblada izenez ezagutzen denak, jaso zuen, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren aldeko borrokan egindako hogeita hamar urte baino gehiagoko ibilbide luzea eta 1976. urtean sortu zenetik emakumeen askatasun- eta justizia-bideak zabaltzeko egindako ahalegina nabar-mentzeko.

Lehen esandakoaren ildotik, 2009ko otsailaren 9an egin zen 2008ko saria emate-ko ekitaldia, eta Bizkaiko Emakumeen Asanbladak Juan Jose Ibarretxe Markuartu Lehendakariaren eskutik jaso zuen saria. Ekitaldian historian zehar feminismoa bultzatu duten emakumeak omendu ziren, eta baita euren eguneroko lanarekin berdintasunerako bidea erraztu duten emakume eta gizon anonimo guztiak ere.

Ekitaldia Bilboko Euskalduna Jauregian egin zen, eta 800 pertsona bildu ziren. Feminismoaren historia aztertu zen, eta, horrekin batera, dantza-ikuskizuna ere es-kaini zen; feminismoaren hiru olatuen kontakizuna egin zen, Olimpia de Gouges eta Mary Wollstonecraft-en adierazpenak entzun ziren, eta emakumeen sufragio aktibo eta pasiborako eskubidea eskatzen zuten sufragisten borroka ere ezagutu zen, XX. mendeko pentsalari handiak ahaztu gabe, besteak beste, Simone de Beauvoir, Betty Friedan edo Kate Millet.

Ekitaldian bideo dokumental bat ere eman zen, eta bideo horretan Bizkaiko Emaku-meen Asanbladaren historia jasotzen zen; horrez gain, beste bideo batean, gaur egungo feminista ezagun batzuek (Amelia Valcárcel, María Jesús Izquierdo, Marina Subirats, Celia Amorós, Marcela Lagarde, Begoña Muruaga eta Victoria Sau) sari-tuak agurtu eta zoriondu zituzten.

Berdintasunerako Emakunde Sariaren 2009ko ekitaldiari dagokionez, IX. Lege-gintzaldian egin zen deialdia, 2009ko abuztuaren 12an Emakundeko zuzendariak emandako Ebazpenaren bitartez. Bestalde, 2009ko abenduaren 1eko Ebazpenean jakinarazi zen epaimahaia nork osatuko zuen.



#### Berdintasunaren aldeko Emakunde Saria

Epaimahaia, Emakundeko Zuzendaritza Kontseiluko kideek edo aurreko ekitaldietan saria jaso duten pertsonak edo horiek ordezkaturiko dituzten erakundeetako edo pertsonen lege-ordezkariek osatutakoa, 2010eko urtarrilaren 11n bildu zen. Emakundeko zuzendaria izan zen epaimahaiko lehendakaria, eta erakundeko idazkari orokorrak egin zituen idazkari-lanak.

2009ko deialdiaren Ebazpenean saria jasotzeko zehaztutako irizpideak kontuan izanda, epaimahaiak erabaki zuen saria «Lilaton Taldea» elkarteari ematea; saria Emakundeko zuzendariak 2010eko urtarrilaren 19an emandako Ebazpenaren bidez eman zen, talde horrek hogeitun urtean antolatutako Lilaton Proiektua, Donostian martxoko lehenengo igandean egiten den Emakumeen Lasterketa Herrikoa, nabarmentzeko.

Epaimahaiak balioetsi zuen Lilaton Taldeak egindako oinarrizko elkarte-lana eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko erakutsitako inplikazioa, «Lilaton» emakumeen lasterketa herrikoia bitartez. Bereziki azpimarratu zuen elkarte horrek emakumeek kirolean parte har dezaten eta emakumeen ahalduntzearen eta osasunaren alde egindako lana; bestalde, Lilaton proiektuak Gipuzkoako hainbat herritan sortzen duen elkarte-sarearen dinamizazioa eta lasterketa herrikoia horretan adin guztietako emakumeen partaidetza ere azpimarratu zituen. Horrez gain, saritutako alorrak kirolarekin lotura izatea interesgarria zela adierazi zuen, esparru horretan generoen arteko desoreka handia ikusten delako. 2009ko edizioan 1.264 emakumek eman zuten izena lasterketan, eta laguntzaile-lanetan 80 emakumek hartu zuten parte.

## 4.12.3. Kanpainak

### Martxoaren 8ko kanpaina

Martxoaren 8ko kanpainak, Emakumearen Nazioarteko Eguneko kanpainak, berrikuntza garrantzitsua izan zuen 2009. urtean. Batetik, kanpaina luzea izan zen, martxoaren 3tik ekainaren 3ra arte luzatu baitzen, eta, bestetik, kanpaina interaktiboa izan zen. Emakundek honako galdera egin zien herritarrei: zer gertatuko litzateke emakumeek greba egingo balute? Ez etxetik kanpo eta soldata baten truk enpresetan egiten duten lanean greba egingo balute, baizik eta etxeko lanetan eta familiaren zainketan. Emakundek eztabaida piztu zuen, eta gezurrezko greba bat planteatu zuen.

Domingo, 8 de Marzo de 2009ko Martxoak 8, igandea



MUJERES EN HUELGA

**EMAKUMEAK GREBAN**

www.emakunde.euskadi.net

---

**HUELGA DE TRES MESES: DEL 3 DE MARZO AL 3 DE JUNIO.** El comité de huelga ha confirmado nuevamente que la huelga durará tres meses. "No desconvocaremos la huelga. No se trata de conseguir algunas mejoras. Se trata de que toda la sociedad vea las consecuencias y de que mujeres y hombres hagamos un nuevo pacto, una nueva organización social y vital."



**AURKAKO JARRERAK.** Hainbat elharte, talde eta pertsona grebaren kontra hasi dira agortzen. "Ez dago eskubiderik, adineko pertsonak eta umek borroka ahaztuzatzen. Non dago beraien amatasuna eta ardurua? Ez dute bere ama eta aita zaharrak zaintzeko adina maitasunik?"

## Eusko Jaurlaritzak premia handiko alerta gorria ezarri du



**ECONOMÍA.** El Comité Nacional de Emergencia estima que el Producto Interior Bruto (PIB) caerá un 33% a causa de la Huelga de Cuidado de las Mujeres. Según su presidente, "La sociedad no es consciente del valor económico de este trabajo. Esto es mucho más grave que la crisis financiera y económica que sufrimos porque afecta al funcionamiento de cada día. La economía puede paralizarse totalmente."

**CRISIS HUMANITARIA.** La situación es especialmente grave en las 65.000 familias vascas con personas enfermas dependientes. El Gobierno reconoce que carece de los medios sociales necesarios (guarderías, centros de día, residencias, etc.) para suplir la dedicación cotidiana de las mujeres al cuidado.

**Egoera konpontzeko baliorik gabeko politikak**

Grebak agortzen utzi du ezain arte gure giroan egin diren hainbat politiken bultzatzea. Adibidez, ia ia soilik emakumeek erabili dituzten erregimen korrituzkoak nosariak, edota umeen zaintzarako aukerarik ez diren erregimenak eta ezarri diren beste erretako bitarteko laguntzarik.

Datu ofizialen arabera, emakumeen %20ak ezin du etxetik kanpo larrik egin familiaren zaintzetan arduratu behar delako eta %80k bere erregimen utzi behar izan du. Bestalde, herri hainbat ez du inoiz operari eta enlaka bere abisaldia murriztu behar izan du.

2. ETA 3. OFIZIALDEAK

**LAS HUELGUISTAS REIVINDICAN UNA NUEVA ORGANIZACIÓN SOCIAL BASADA EN LA CORRESPONSABILIDAD**

Denuncian "La explotación de la doble jornada, el timo de la reducción de jornada laboral (menos ingresos y más carga de cuidado) y otras medidas tendientes a evitar su acceso y permanencia en sus empleos" (más en [www.emakunde.euskadi.net](http://www.emakunde.euskadi.net))

La situación comienza a ser preocupante debido al elevado número de personas alojadas en instalaciones municipales a modo de centros de día. (Foto Orebe)



**Emakumeak greban**

Etxeko lanen eta zaintza-lanen %75 emakumeek egiten dituzte

Zer gertatuko litzateke emakumeek greba egingo balute? Sartu [www.emakunde.euskadi.net](http://www.emakunde.euskadi.net) helbidean eta eman zure iritzia.

Martxoaren 8a. Emakumeen Nazioarteko Eguna.



**EMAKUNDE**  
EUSKADI-EMAKUNDE EUSKADI-EMAKUNDE  
INSTITUTO NAZIONALE DELA MULIERE  
Eusko Emakunde Nazioarteko Emakumeen Eguna  
Euzko Emakunde Nazioarteko Emakumeen Eguna

Kanpainaren leloa «**Emakumeak greban. Gertatuko balitz?**» izan zen, eta kanpoko publizitatea egin zen, autobus- eta metro-geltokietako markesinetan. Bestalde, bost mila kartel inguru banatu ziren hainbat herri-instituziotan, elkartetan, ikastetxetan, sindikatutan, kultura-etxetan, osasun-zentrotan, komunikabidetan eta gizarteko beste erakunde eta eragile batzuen artean. Kanpainaren irudia komunikabide idatzietan argitaratu zen martxoaren 8an, eta egun horretan bertan hiru hiriburuetako hainbat puntutan txartel handi batzuk banatu ziren, parte-hartzea bultzatzen zuten txapa batekin batera.

Kanpainak parte hartzeko deia egin zuen, eta aukeratutako ekarpenak [www.emakunde.euskadi.net](http://www.emakunde.euskadi.net) web-orrian txertatu ziren; gainera, astero argitalpen bat atera zen, aldizkariaren formatuarekin, aste bakoitzean jasotako ekarpenen aukera bat jasotzen zuena.

VIII. Legegintzaldiko Emakundeko Zuzendaritzak, halaber, iritzi-artikulu bat argitaratu zuen EAEko egunkarietan martxoaren 8an.

#### ***Azaroaren 25eko kanpaina.***

#### ***Emakumearen aurkako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna***

Emakumeen aurkako indarkeria salatzen nazioarteko egunean, 2006. urteaz geroztik, Berdinsareak urtero gaiak kontzientzia harrarazteko kanpaina bat egiten du. Eudelekin sinatutako hitzarmenaren barnean, 2009an, Herrizaingo Saileko Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzarekin batera, Emakundek diseinuan eta hedapenean parte hartu du, eta udalerrri guztientzako mezu berbera duen kanpaina bateratu honekin bat egiten duten udalak, sareko kide direnak nahiz ez direnak, gero eta gehiago izateko ahalegina bultzatuko du. Aurten gazteei zuzendu zaie kanpaina. Beldur Barik (kanpainaren leloa) kantuen bideoklip bat grabatu da, «Indarkeria sexistaren aurkako gida, neska-mutilentzat» prestatu eta banatu da, eta gizarteak emakumeen aurkako indarkeria baztertzeko puntu lila baten erabilera sustatu da.

## **4.12.4. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Foroa. 2009**

Berdintasunerako urteroko foro honen helburua EAEn gizonen eta emakumeen arteko berdintasunarekin lotutako sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekimenak bultzatzea eta ikusgai jartzea da, bai erakunde publikoetan egiten direnak, bai talde eta erakunde pribatuetan egiten direnak ere. Seigarren edizio honetan bi berrikuntza txertatu dira. Alde batetik, ardatz nagusi bat zehaztu da, emakumeen ahalduntzea, eta horren inguruan garatu dituzte erakunde guztiek beren jarduerak; bestetik, Emakundek bi mintegi antolatu ditu, bata prestakuntzara eta bestea ondorioak ateratzera zuzendutakoa, foroan parte hartzen duten erakundeen lana errazteko eta



Azaroaren  
25eko kanpaina.  
Emakumeenganako  
indarkeriari aurre  
egiteko Nazioarteko  
Eguna

bateratzeko. 43 erakunde hartu dute parte, eta guztira 54 jarduera garatu dira. Foroaren emaitzetako bat erakunde guztien artean prestatutako dokumentua izan da, emakumeen ahalduntzearen gaiarekin lotuta hainbat ondorio jasotzen dituena.

#### **4.12.5. Beste gizarte-erakunde edo -eragile batzuek antolatutako jardueretan parte hartzea**

Emakundek, gizartea sentiberatzeko egiten duen lanaren barnean, hitzaldiak, txostenak, mahai-inguruak, etab. prestatzen parte hartzen du EAEko nahiz Estatuko beste erakunde eta emakume elkarte batzuekin batera. Zehazki, 2009. urtean ondorengo jarduera hauetan hartu du parte:

- «Ahalduntzea: emakumeen eta gizonen berdintasunerako VI. Foroaren ondorioak» gaiari buruzko hitzaldia Barakaldon INGURALDEK antolatutako «Proposamen berriak, enpresa berriak gida. Lidergoa emakumearen ikuspuntutik» gida aurkezteko jardunaldian.

- Hitzaldia: «Enpresetan emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko planak: berdintasunaren aldeko enpresa-taldearen esperientziak», aukera-berdintasunerako Reuseko Xarxa teknikoak antolatutako «Ekonomia, lanbidea eta generoa: ikuspegi berriak eta aldaketarako proposamenak» jardunaldiaren barnean.
- Hitzaldia ASADEk Donostiako Koldo Mitxelena antolatutako «Emakumeen laneko ezegonkortasuna. Erantzunkidetasuna eta uztartzea» jardunaldian.
- «Gizonduz ekimena: garatutako jarduerak eta etorkizuneko erronkak» hitzaldia, Amnesty International-ek Donostian antolatutako honako jardunaldiaren barnean: Emakumeen aurkako indarkeria gehiagorik ez. Berdintasunerako maskulunitate berriak. IV. jardunaldia.
- «Gizonak berdintasunaren alde inplikatzeko esperientzia praktikoak. Gizonduz ekimena erreferentzia» hitzaldia, Amikeko Elkarrekin Bilbon antolatutako Berdintasunaren aldeko Gizonak Jardunaldiaren barnean.
- «Emakumea, Enpresa eta Lidergoa» mahaiaren dinamizazioa Inguraldek, 2009ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Foroan antolatutako «Proposamen berriak, enpresa berriak gida. Lidergoa emakumearen ikuspuntutik World Kafea» jardunaldiaren barnean.
- Mahai-inguru honen moderatzaile: «Esparru komunak bilatzen: berdintasunaren aldeko emakumeak eta gizonak»; Zipriztintzen Berdintasunaren aldeko Ermuko Gizon Taldeak antolatu zuen.
- Tarragonako Universidad Rovira i Virgili unibertsitatean antolatutako «Generoa eta Zuzenbidea mintegia. Berdintasun Behatokia» mintegian honako mahai-inguru honetan parte hartu genuen: «Berdintasun-legeak Espainian».
- «Emakumearen aurkako indarkeria eta giza eskubideak: sentsibilizazioarekin lotutako erronka berriak» mahai-inguruan parte hartu genuen; Deustuko Unibertsitateko Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuak eta Bizkaiko Foru Aldundiak antolatu zuten Bilbon.
- «Erantzunkidetasuna eta aitatasuna» lantegiaren koordinazioa Bartzelonan Homes Igualitaris Kataluniako Berdintasunaren aldeko Gizonen Elkarrekin antolatutako «Gizonak eta Berdintasuna» jardunaldiaren barnean.
- «Gizonak berdintasunaren erronkaren aurrean» jardunaldiaren koordinazioa; Mòdul Psicosocial de Deusto-San Ignacio elkarrekin antolatu zuen Bilbon.
- Gizonduz ekimenaren aurkezpena Bilboko Irakasle Eskolak berdintasunerako plan bat prestatzeko antolatutako lan-jardunaldietan.

- Andrakintza 2009 sarietako epaimahaian parte hartu genuen.
- Koldo Mitxelena Institutuak Vitoria-Gasteizen emakumeen eta gizonen berdintasunari buruz antolatutako World Kafea ekitaldian parte hartu genuen.
- Informazioaren hedapena: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren, Emakunderen, Eudelen eta Euskal Fondoa elkartearen artean Saharar Errepublikar Arabiar Demokratikoarekin Koordinatzeko egindako Lankidetzaren Hitzarmena berritzeko esparruan, Sahararako VI. Euskal Karabanari buruzko informazioa banatu zaie EAEko emakume elkarte guztiei, bai eta Aminatou Haidar Mendebaldeko Saharara itzultzeko kanpainari buruzko informazioa ere.





5. Emakunde-Emakumearen  
Euskal Erakundearen  
komunikazio-plana  
IX. Legegintzaldirako

IX. Legegintzaldirako Komunikazio Plana (2009-2013) Emakunderen barne- nahiz kanpo-komunikaziorako lan-tresna bat da, eta helburu hauek ditu:

1. Erakundearen irudi positiboa, berorren xedeen eta helburuen arabera egokitu-takoa, sustatzea, bere historiarekin kontsekuentea izango dena eta berdintasunean oinarritutako etorkizuna lortzeko etengabe lan egingo duena.
2. Barneko nahiz kanpoko komunikazioari dagokionez, lan egiteko prozesuak, bideak, tresnak eta harremanak sustatzea eta, hala dagokionean, hobetzea, Emakunderen xede eta helburu orokorrei laguntzeko.
3. Emakumeen ahalduntzea eta komunikabideetan duten presentzia sustatzen jarraitzea.

Horretarako, Komunikazio Planak barneko eta kanpoko komunikaziorako oinarritzko irizpideak zehazten ditu IX. Legegintzaldirako, bai eta urtero abian jarri beharreko programak ere.

Bestalde, komunikazioari dagokionez, jarduketa arautu behar duten lan-irizpideak edo -printzipioak ezartzen ditu. Komunikazio Planak honako printzipio hauek ezartzen ditu: lehenetasuna, gardentasuna, eskuragarritasuna, kalitatea, iraunkortasuna eta ingurumen-gaiak.

Komunikazio Planak 8 programa ditu, eta lehenengoa barneko komunikazioarekin lotuta dago.

Komunikazio Planaren abiapuntuaren arabera, barneko komunikazioa antolamenduarekin eta kudeaketarekin lotutako funtsezko alderdia da, eta eragin handia du laneko helburuak lortzeko orduan. Horregatik, barneko Komunikazio Planaren helburuak honako hauek dira: Emakunden lan egiten duten pertsonen artean komunikazioa sustatzea, pertsona horien garapen pertsonala eta profesionala bultzatzea, lan-taldeak bateratzean sor daitezkeen barne-gatazken guneak murriztea eta iritziak adierazteko eta parte hartzeko guneak sortzea. Barneko komunikaziorako hainbat neurri ezartzen ditu, hala nola barneko buletin elektronikoak prestatzea eta bidaltzea («Albisteak» buletina, izaera dokumental eta juridikoko buletina), Emakundeko Intranet hobetzea, lanerako barne-egiturak eta parte hartzeko beste gune batzuk sustatzea, etab.

Kanpoko komunikazioari dagokionez, Komunikazio Planak honako helburu hauek ezartzen ditu: jende desberdinari zuzendutako komunikatzeko espazio eta bideak zaintzea, hobetzea eta berriak sortzea, Emakundek inguruarekin duen harremana sustatzea eta pertsonekin, elkarteekin, gizarte-eragileekin, erakundeekin eta instituzioekin elkarrikeria eta lankidetzak kudeatzea. Hori guztia sentsibilizazioa, informazioa eta pertsonen eta erakundeek berdintasun-politiken garapenean parte hartzea bultzatzeko, horrek Emakunderen lan-helburuak betetzea ekarriko baitu.

Komunikazio Planak zortzi programa aurreikusi ditu kanpoko informazioa eta komunikazioa hobetzeko:

1. Lehena, herritarrak sentiberatzeko kanpainen nahiz publizitate-kanpainen garapenari buruzkoa.
2. Emakunderen web-ingurua hobetzeko eta teknologia berriak erabiltzeko programa bat.
3. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren esparruko pentsamendua eta ezagutza transmititzeko hirugarren programa bat.
4. Komunikazioaren eta emakumeen elkarrekin komunikatzeko bideen hobekuntza lantzeko programa bat.
5. Instituzioekin komunikazioa eta lankidetzak sustatzeko seigarren programa bat.
6. Eusko Legebiltzarrekiko komunikazioari buruzko zazpigarren programa bat.
7. Komunikabideekin informazio- eta komunikazio-jarduketak aurreikusten duen programa bat.
8. Eta azken programa, emakumeek bizitza publikoan oro har eta, zehazki, komunikabideetan duten parte-hartzea sustatzeko helburua duena.

Plana legegintzaldi osorako diseinatu da, hau da, 2009-2013 urteetarako, eta, beraz, planean jasotako jarduketak progresiboki jarri nahi dira abian.





## BOTERE PUBLIKOEN JARDUERA. 2008 LORTUTAKO EMAITZEN LABURPENA

### IV. PLANA - EGITURA

Hasteko, plana egituratzen duten elementuak eta ebaluazioaren helburuak gogoraraziko ditugu, testuinguruan sartzeko eta lortutako emaitzak ulergarri egiten laguntzeko.

- Lau **Ardatz**, berdintasunaren alorrean esku hartzeko euskarri nagusiak (Mainstreaming-a, Ahalduntzea eta Gizartearen eta Politikaren arloko Parte-hartzea, Erantzukidetasuna eta Bateragarritasuna, eta Emakumeen aurkako Indarkeria).
- Sei **Arlo**, esku-hartze horiek diseinatu, ezarri eta gauzatzeko erakundeek dituzten eremu nagusienak egituratzeko (Kultura, Hezkuntza, Lana, Gizarteratzea, Osasuna eta Hirigintza, Garraio Publikoa eta Ingurumena), eta Zerbitzu Orokorren Arloa, erakundeek berdintasun-politikak garatzeko oinarritutakoak diren zerbitzuak definitzen laguntzeko (Administrazioaren barruan berdintasun-politikak garatzeko baldintza egokiak sortzea eta gizarte-sarerako ekintza zuzenak egitea, berdintasunerako politiken buruzko hausnarketan, ebaluazioan eta ezarpenean duen interes-maila, jakintza, inplikazioa eta parte-hartzea areagotzeko).

Arloak **Programetan** eta **Helburuetan** egituratuta daude. Programak bat datoz jarduera-eremuekin, eta ardatz estrategikoak arlo bakoitzean nola zehaztu xedatzen dute; helburuek, berriz, lortu nahi den gizarte-errealitatea zehazten dute. Horien osagarri, **Estrategiak** eta **Ekintzak** jasotzen dituen proposamena dago.

**Plana ezartzeko neurriak** ere jasotzen dira, **sustapen** eta **koordinazioaren** ingurukoak eta nagusiki **programazioan** eta **ebaluazioan** oinarritutako Kudeaketa Sistemen ingurukoak.

### BALIOZTAPENAREN HELBURUAK

Ebaluazioaren azken jomuga kontuan hartuta, helburu nagusia erakunde publikoen urteko jardunen berri izatea da, laugarren planari dagokionez. (Administrazioaren hiru mailetan, Jaurilaritzan edo Administrazio Orokorrean, foru aldundietan eta tokian tokikoan.)

Hona hemen helburu espezifikoak:

- Ardatz estrategikoetan, alorrean, programetan eta proposatutako helburuetan lortutako exekuzio maila aztertzea.
- EAEko administrazio publikoaren erakundeetan plana betetzerakoan erantzukizunak zenbateraino bete diren adieraztea.
- Laugarren planean adierazitako helburuak zenbateraino bete diren aztertzea.
- Egiturak sortzeari eta abian ipintzeari dagokionez, lortutako aurrerapenen berri izaten laguntzeko informazioa ematea.

## ERAKUNDE PUBLIKOEN EBALUAZIOAN DUTEN PARTAIDETZA

### ADMINISTRAZIO OROKORRA

- **Eusko Jaurlaritzako sail hauek** hartu dute parte: Lehendakaritza; Ogasuna eta herri administrazioa (Lehendakariordetza); Justizia, Enplegua eta Gizarte Segurantzza; Herrizaingoa; Industria, Merkataritza eta Turismoa; Hezkuntza, Unibertsitatea eta Ikerketa; Osasuna; Kultura; Lurralde Antolamendua eta Ingurumena; Etxebizitza eta Gizarte Gaiak; Garraioa eta Herri Lanak; eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura.
- **Erakunde autonomo hauek** hartu dute parte: Emakunde; Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (HAEE); Euskal Estatistika Erakundea (EUSTAT); Euskal Herriko Polizia Ikastegia; HABE institutua; eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakunde (urteko ekintzen laburpena helarazi digu).
- **Erakunde eta elkarte publiko hauek** hartu dute parte: Osakidetza, EITB; Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte (EJIE, SA); Itsasmendikoi; Eusko Trenbide Sarea; Euskadi Kirol Portuak SA; Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa (IHOBE); Energiaren Euskal Taldea; SPRI; eta VISESA.

Ebaluazioan parte hartu duen beste erakunde bat Euskal Herriko Unibertsitatea da; ekintzen zerranda helarazi digu, nahiz eta galdetegiak beteta ez dituen bidali.

Bestalde, **Arartekoak** Euskal Autonomia Erkidegoko emakumezkoen egoerarekin lotutako informazioa bidali du (informazio hori urtero Eusko Legebiltzarrari helarazten dion txostenetik aterata dago).

### FORU ADMINISTRAZIOA

Ebaluazio honetan, foru aldundietako departamentu hauek hartu dute parte:

- **Arabako Foru Aldundia (k=3 Departamentu):** Foru Administrazioa; Gizarte Politika eta Gizarte Zerbitzuak; Gazteria eta Gizarte Sustapena.
- **Bizkaiko Foru Aldundia (k=8 Departamentu):** Ahaldun Nagusia (Aukera Berdintasunerako eta Genero Politiketarako Unitatea); Udalekiko Harremanak eta Administrazio Publikoa; Ogasuna eta Finantzak; Berrikuntza eta Ekonomi Sustapena; Ingurumena; Nekazaritza; Enplegua eta Trebakuntza; Gizarte Ekintza.
- **Gipuzkoako Foru Aldundia (k=1 Departamentu):** Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentua

### TOKI ADMINISTRAZIOA

EUDELeK eta hiru lurralde historikoetako udalek eta mankomunitateek hartu dute parte:

- **Arabako udalak (k=3):** Gasteiz, Amurrio, eta Laudio.
- **Bizkaiko udalak (k=20):** Abadiño; Abanto-Zierbena; Arrigorriaga; Balmaseda; Barakaldo; Berriz; Bilbo; Ermua; Galdakao; Gernika-Lumo; Getxo; Gordexola; Leioa; Mungia; Santurtzi; Sestao; Ugao; Urduña; Trapaga; eta Zalla.
- **Bizkaiko mankomunitateak (1):** Uribe-Kosta (honako udalerriek osatua: Barrika, Berango, Gorliz, Lemoiz, Plentzia, Sopela eta Urduliz).
- **Gipuzkoako udalak (k=12):** Azpeitia, Bergara, Eibar, Getaria, Itsasondo, Oiartzun, Oñati, Ordizia, Tolosa, Villabona, Zarautz, Zumaia.

- **Gipuzkoako mankomunitateak (1):** Urola-Garaia (honako udal hauek osatuta: Ezkio-Itsaso, Legazpi, Urretxu, eta Zumarraga).

Datuek adierazten dutenaren arabera, EAEn dauden 251 udalerrietatik 46k (% 18,33) hartu dute parte ebaluazioan; EAEko biztanle guztien % 58,28 (1.241.012) hartzen dute udalerririk. 2007an 48 udalek hartu zuten parte, eta EAEko biztanleen % 72,11 ordezkatzeko zuten. Beherakada horren arrazoiak hainbat udal handiren falta da; hala nola, Donostia, Portugalete, Ondarroa edota Errenteria. Udal horietako teknikariek jakinarazi zuten ezin zutela eskatutako informazioa bidali, lan eskerga handiegia zutelako edota langileak falta zituztelako.

Aipatutako 46 udalez gain, beste hamaseik jakinarazi dute eskutitzez, posta elektronikoz edota telefonoz, ez dituztela galdetegiak beteko. Horretarako arrazoiak hainbat dira; esate baterako, 2008an laugarren planarekin lotutako ekintzarik ez dutelako egin, denborarik ez dutelako izan, behar beste giza baliabide ez dutelako edota teknikaria kontratatu berria delako. EAE osatzen duten gainontzeko udalek ez dute ebaluazio honetan parte ez hartzeko arrazoiak berri eman; gehienak 2.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalak dira.

Lortutako emaitzak lau ataletan daude banatuta:

1. Ekintzen ezaugarri orokorrak
2. Ardatz estrategikoetako ekintzen analisia
3. Laugarren planak lortu duen exekuzio maila
4. Laugarren plana ezartzeko erabilitako neurriak
5. Erakunde publikoek genero ikuspegia politiketan txertatzeko landutako ekintzak
6. Botere publikoek egindako berdintasun politika sektorialak eta transbertsalak

## EKINTZEN LABURPENA

2008an orotara 1.087 ekintza aztertu dituzte gizonen eta emakumeen arteko berdintasunarekin lotutako ekintza bezala

### 1. Ekintzen ezaugarri orokorrak

#### Ardatz estrategikoak:

Aurreko ebaluazioetako moduan, erakunde publikoek mainstreaming-arekin eta jabekuntzarekin eta partaidetza politikoarekin lotutako ekintzei eman diete lehentasuna; ekintzen % 73,9k (k=800) bi ardatz horiei egiten diete erreferentzia.

#### Esku-hartze esparruak:

Esku-hartze esparruei lehentasuna emateko joerari eusten zaio: Berdintasunerako zerbitzu nagusiak (k=375; % 39,7), gizarteratzeak (k=179; % 16,5), kulturak (k=159; % 14,2) eta lanak (k=118; % 10,9). Era berean, azken hiru esparruetan ekintza kopuru txikiagoa izan dela ikus daiteke (% 7, % 19 eta % 7 gutxiago). Lehengoa, berriz, % 10 handitu da.

#### Laugarren planeko programak

Sei esku-hartze esparruetan abian ipinitako ekintzen % 89,9k (k=519) hemeretzi programa horiei egiten diete erreferentzia (planak planteatzen duenaren % 59,4). Horrek erakusten duenaren arabera, hauek dira esku-hartze esparru bakoitzaren joerak:

- **Kultura:** kulturaren genero ikuspegia txertatzea; emakumeen presentzia eta parte-hartzea kirolaren eremuan; emakumeen presentzia eta parte-hartzea kultura eta arte arloan; eta esparru soziokultural guztietan sexismoa desagerraraztea.
- **Hezkuntza:** ikastetxeetan hezkidetzak sustatzea; eta eskolako indarkeria egoeretan arreta eta bitartekaritza.
- **Lana:** Enplegua berdintasun baldintzetan lortzea; eta emakume eta gizonen arteko lanbide baldintzak parekatzea.
- **Gizarteratzea:** Diskriminazio era bat baino gehiago eta bazterketa jasaten duten emakumeen baldintzak eta maila hobetzea; eta tratatu txarrak eta/edo sexu erasoak jasan dituzten emakumeen-ganako arreta hobetzea.
- **Osasuna:** emakumeek beren ugalketa osasunaren inguruko erabakitzeke ahalmena areagotzea; osasun sisteman genero ikuspegia txertatzea; eta emakumeei bereziki eragiten dieten gaitzei hobeto heltzea.
- **Hirigintza eta ingurumena:** genero ikuspegia hirigintza, garraio eta ingurumen politiketan eta proiektuetan kontuan hartzea; eta hirigintzaren, garraio publikoaren eta ingurumenaren alorretan emakumeek berdin parte hartzea, nola diseinuan eta plangintzan, hala hobekuntzetan.

#### Laugarren planaren helburuak

Administrazioek sustatutako berdintasun politiken inguruko azterketa gehiago zehaztuz gero, ikusiko dugu landutako ekintzen % 67,3 laugarren planean aurreikusitako 76 helburuetatik 17 lortzeko izan direla (% 22,4):

- **Berdintasunerako zerbitzu orokorrak:** erakundeari genero ikuspegia integratzeko ahalmena ematea; gizartean berdintasun politikekiko interesa eta inplikazioa zabaltzea; berdintasuna bultzatzea

xede duten elkarten sarea handitzea eta sustatzea; administrazioaren koordinazioa bultzatzea eta hobetzea, emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako borrokan; eta emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko sentsibilizazio kanpainak egitea.

- **Kultura:** emakumeen eta gizonen kirol jarduera dibertsifikatzea eta emakumeek tradizioz gizonen egin izan dituzten kirolek sarbidea izatea, bai eta gizonen tradizioz emakumeek egin dituzten kirolak praktikatzea ere; emakumearen kultura eta arte sorkuntza bultzatzea, bai eta gizartearen ikuspuntu ez-sexista bultzatzen duena ere; eta pertsonen euren sexuaren arabera giza duintasun gehiago edota gutxiago dutela adierazten duten irudiak zein edukiak baztertzea, bai eta pertsonen sexu objektu huts bezala aurkezten dituztenak edota emakumeen aurkako indarkeria justifikatzen, arinkeriaz hartzen edota nolabait bultzatzen dituztenak ere.
- **Hezkuntza:** ikastetxeetan gertatzen diren etxeko indarkeria kasu guztiak detektatzea eta aurrez adostutako protokolo eraginkor baten arabera tratatzea.
- **Lana:** enplegu zerbitzuetan genero ikuspuntua txertatzea; industriako sektore tradizionaletan emakumeen parte-hartzea handitzea eta horrelako lanpostuetan aritzen diren emakumeen eta gizonen kopurua orekatzea; administrazio publikoetan eta sektore pribatuko enpresetan emakumeen eta gizonen lan baldintzak parekatzea, eta lehentasuna langile gehien aritzen diren lan jardueri ematea; eta sektore publikoan eta pribatuan erantzukizunezko lanpostuetan emakumeen presentzia areagotzea.
- **Gizarteratzea:** administrazio publikoetako gizarte ekintza sailletako diagnostikoetan, plangintzetan eta ebaluazioetan genero ikuspuntua txertatzea; pobrezia egoeran eta baztertuta izateko arriskuan dauden pertsonen zuzendutako baliabideak egokitzea, egoera horretan dauden emakumeen baldintzak eta posizioak hobetze aldera; indarkeria zikloak garai detektatzeari bultzada ematea; tratu txarrak edo sexu erasoak jasan dituzten biktimek arreta, laguntza edota babesa jasotzeko egindako eskaerei koordinazioz, kalitatez eta eraginkortasunez erantzuteko, EAEko udalerrietan tokiko protokoloak ezartzea.

## Esku hartzeko erabilitako tresnak

Administrazio publikoek gizon-emakumeen berdintasuna lortzeko programak ezartzeko gehien erabili dituzten esku-hartze sistemak sentsibilizazioa, trebakuntza eta dibulgazioa eta baliabide zein zerbitzuak sortzea eta egokitzea izan dira; egindakoen erdia baino gehiago era horretakoak izan dira (k=609; % 59,8).

## Honako taldeei zuzenduta:

Antolatutako ekintzen hartzaile nagusiak, beste behin ere, hauek dira: emakume helduak, oro har (k=156; % 14,4); administrazio teknikiariak (k=142; % 13,1); emakumeen elkarteak (k=98; % 9,1); eta gizon helduak, oro har (k=88; % 8,1).

Gizon-emakumeei, oro har, zuzendutako ekintza kopurua nabarmen gutxitu dela ikusten da. Seguruenik, sentsibilizazio eta informazio jarduerak izan duten jaitsierarekin lotuta egongo da (% 20 gutxiago, 2007ko datuekin alderatuta). Era berean, emakume elkartei zuzendutako ekintza kopurua ere murriztu da (% 35 gutxiago).

Hauek izan dira beste talde garrantzitsu batzuk: tratu txarrak eta/edo sexu erasoak jasan dituzten emakumeak; hezkuntzako profesionalak; hiru administrazioetako politikariak; aukera berdintasunaren alorreko profesionalak; hiru lurralde historikoetako toki administrazioa; eta nerabeak eta gazteak.

## 2. Ardatz estrategikoetan abian ipinitako ekintzak

### Mainstreaming ardatza

Administrazioen barruan mainstreaming-a sustatzeko jorratutako 406 ekintzen % 72,4 (k=294) plana ezartzera bideratutako neurriak dira; berdintasun politiken plangintzak egitera (programak eta planak eginda) eta politika hauek ebaluatzen; baita administrazioaren barruan berdintasun politikak garatzera bideratutakoak ere.

Ekintzen % 27,6 (k=112) enplegu zerbitzuetan, kulturen, gizarte zerbitzuetan, osasun sisteman, garraioan, hirien antolamenduan eta ingurumenen genero ikuspegia txertatzeko izan dira.

### Ahalduntzea ardatza

Emakumeen ahalduntzearen inguruan, orotara 392 ekintza egin dira; lehenetsuneko zazpi esku-hartze ildo nabarmentzen dira erakunde publikoentzat, datu kuantitatiboan arabera (orotara egindakoen % 73 biltzen dute): 1) Emakumeen presentzia eta parte-hartzea kirolaren eremuan; 2) Emakumeen presentzia eta parte-hartzea kultura eta arte arloan; 3) Enplegua berdintasun baldintzetan lortzea; 4) Emakumeen eta gizonen lan baldintzak parekatzea; 5) Diskriminazio era bat baino gehiago eta bazterketa arriskua duten emakumeen baldintzak eta maila hobetzea; 6) Emakumeek beren ugalketa osasunaren inguruko erabakitzeke ahalmena areagotzea; eta 7) Hirigintzaren, garraio publikoaren eta ingurumenaren alorretan emakumeek berdin parte hartzea, nola diseinuan eta plangintza, hala hobekuntzetan.

### Bateragarritasun eta erantzukidetasunaren ardatza

Abian ipinitako 65 ekintzak orotara egindakoen % 6 osatzen dute eta aurreko urteetako joerari eutsi zaio. Ekintzen bi heren lau programa hauetan daude sartuta: laguntza zerbitzuak eta langile bizitza, familia bizitza eta bizitza pertsonala uztartzeko neurriak; autonomia funtzionalik ez duten pertsonen arreta eskaintzeko baliabide sozio-komunitarioak; eta, neurri txikiagoan bada ere, erantzukidetasun kultura eta zaintzaren etika sustatzea, eta denbora eta eskolako azpiegiturak egokitzea zein berrantolatzea.

### Emakumeen aurkako indarkeriaren ardatza

Guztira 217 ekintza egin dira; hau da, orotara eginkoen % 20. Ardatz horrek aurreko urteetako beste pisua izaten jarraitzen du, eta gauza bera gertatzen da abian ipinitako ekintzen % 71 biltzen duten hiru programekin ere: 1) Esparru soziokultural guztietan sexismoa desagerraraztea; 2) Eskolako indarkeria egoeretan arreta eta bitartekaritza; eta 3) Tratu txarrak eta/edo sexu erasoak jasan dituzten emakumeenganako arreta hobetzea.

## 3. Laugarren planak lortu duen exekuzio maila

- **Ardatz estrategikoak:** programa eta helburu gehien betearazi duen ardatza emakumeen kontrako indarkeria lantzen duena da; izan ere, planean aurreikusitako programen eta helburuen % 100 egin dituzte. Halaber, helburu bakoitzerako batez beste 14,5 jarduera antolatu dituzte. Bestalde, nabarmentzekoa da mainstreaming-ari eskainitako ardatzean lortutako exekuzio maila, programa guztiak abiarazi baitira eta, batez, beste, 27,1 jarduera antolatu baitira ardatz hori lantzeko (guztietan batez bestekorik altuena).
- **Esku-hartze esparruak:** inguru honetan ere exekuzio maila handia izan da; izan ere, programen eta helburuen % 80 eta % 100 artean abiarazi dira. Nolanahi ere, helburuak jorratzeko erabilitako

intentsitate maila kontuan hartzen badugu (hau da, helburu bakoitza lantzeko antolatutako ekintza kopurua), ikusiko dugu kulturak, lanak eta gizarteratzeak izan dutela betearazpen mailarik handiena; hiru esparru horien betearazpen maila % 80 eta % 100 artekoa izan da, eta helburu bakoitza lantzeko jarduera kopurua ertaina/handia izan da (17,7, 10,7 eta 12,8, hurrenez hurren).

Era berean, programa batetik bestera alde nabarmenak ikusten dira, kontuan hartzen badugu abian ipinitako guztiaren % 82,4 programen erdiari baino gutxiagori dagokiola (k=15). Gauza bera gertatzen da helburuekin ere, 68 helburuetatik hamabik biltzen dituzte ekintzen erdiak.

## 4. Laugarren plana ezartzeko erabilitako neurriak

### Sustatzearekin eta koordinazioarekin lotutako neurriak

Laugarren plana sustatzeko eta koordinatzeko 32 ekintza izan dira. Horietatik: hamar gizon-emakumeen berdintasunerako unitate administratiboak sortzearekin lotutakoak izan dira, horietan nabarmenena genero arloko programa teknikari postua izan da, Jaurlaritzako zazpi sailetan; zazpi administrazioaren hiru mailetako erakundeetan barruko koordinazio egiturak sortzearekin lotuta egon dira; hiru erakunde arteko koordinazio egiturak sortzearekin; eta bi gizarte partaidetzarako egiturekin. Gainontzeko hamar ekintzak Administrazio Orokorrean, foru administrazioan eta tokian tokikoan gizon-emakumeen berdintasunerako dauden egituretan antolatuta egin dituzte, berdintasunaren segimendua eta sustapena egiteko.

### Programazioa eta ebaluazioa

2007an hamahiru programazio ekintza egin dituzte: bederatzi erakunde berdintasun planak prestatu edota onartu dituztela jakinarazi dute; Jaurlaritzako lau sailek adierazi dute berdintasunerako urteko programa egin izana.

Emakundek eta hiru foru aldundiek diagnostikoak eta planak prestatzeko diru laguntzen berri eman dute, toki erakundeentzat.

2008ko datuek erakusten dute EAEn 58 udalek dutela berdintasun plana (hamaika udalerritan planak eskualde mailakoak dira); hau da, 2007an baino bost udalerrri gehiago.

## 5. Erakunde publikoetan genero ikuspegia errazago txertatzeko ekintzak

2008an orotara egindako ekintzen % 26,6 (k=288) genero ikuspegia erakunde publikoetan txertatzera bideratuta egon dira. Ekintza horietan, erakunde publikoek batez ere honako esku-hartze erreminta hauek erabili dituzte: prestakuntza (k=85; % 29,9); ezagutza sortzea (k=65; % 22,6); sensibilizazioa, informazioa eta hedapena (k=46; % 16); bai eta baliabideak zein zerbitzuak sortzea eta egokitzea ere (k=58; % 20,1). Emaizta horiek 2007koen oso antzekoak dira.

## 6. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako politika sektorialak eta transbertsalak

Erakunde publikoek emandako datuek erakusten dute 2008an, pixka bat bada ere, honako jarduera mota hau murriztu egin dela (55 gutxiago): aukera eta tratu berdintasuna sustatzera zuzenean bideratutakoak; emakumeek oro har bizi dituzten diskriminazio egoerak eta gizarte bazterkeria egoeran

zein diskriminazio anizkoitza izateko arriskua duten emakume talde espezifikoak hautematera, eza-gutaraztera eta desagerraraztera bideratutakoak. Guztira 732 ekintza egin dira; hau da, orotara eginikoen % 67,6.

2007ko antzera, ekintzen % 73,8 laugarren planaren lau esparrurekin lotuta daude: Berdintasuneko zerbitzu orokorrak, kultura, gizarteratzea eta lana.

Ekintza horien % 62,7 planean ageri diren eta hainbat esku-hartze esparru jorratzen dituzten hama-bost helburu hauekin daude lotuta:

- **Kultura:** Emakumeen sormen kulturala eta artistikoa areagotzea baita gizartearen ikuspegi ez sexista bultzatzen duena ere (k=74; % 10,1);
- **Elkartegintza:** Berdintasuna sustatzen lan egiten duten elkarteak ugaritzea (k=72; % 9,8); Pobrezia egoeran eta baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonen zuzendutako baliabideak egokitzea, egoera horretan dauden emakumeen baldintzak eta posizioak hobetze aldera (k=37; % 5,1);
- **Gizarteratzea:** Erakundeari genero ikuspegia integratzeko ahalmena ematea (k=43; % 5,9);
- **Emakumeen aurkako indarkeria:** Indarkeria zikloak garaiz detektatzeari bultzada ematea (k=32; % 4,4); Pertsonen euren sexuaren arabera giza duintasun gehiago edota gutxiago dutela adierazten duten irudiak eta edukiak hedabideetatik baztertea, bai eta pertsonak sexu objektu huts bezala aurkezten dituztenak edota emakumeen aurkako indarkeria justifikatzen, arinkeriak hartzen edota nolabait bultzatzen dituztenak ere (k=28; % 3,8); Administrazioaren koordinazioa bultzatzea eta hobetzea emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako borrokan (k=20; % 2,7); Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko sentsibilizazio kanpainak egitea (k=20; % 2,7); Ikastetxeetan gertatzen diren etxeko indarkeria kasu guztiak detektatzea eta aurrez adostutako protokolo eraginkor baten arabera tratatzea (k=17; % 2,3); Tratu txarrak edo sexu erasoak jasan dituzten biktimek arreta, laguntza edota babesa jasotzeko egindako eskaerei koordinazioz, kalitatez eta eraginkortasunez erantzuteko, EAEko udalerrietan tokiko protokoloak ezartzea (k=15; % 2); Tratu txarren eta sexu eraso biktima direnen arreta beharrei kalitate eta eraginkortasun irizpideak aintzat hartuta erantzutea eta etxeko tratu txarren biktima diren emakumeentzako abegi eta etxebizitza baliabideak hobetzeko programan jasotako neurriak ezartzen direla bermatzea (k=13; % 1,8).
- **Lana:** Sektore publikoan eta pribatuan erantzukizunezko lanpostuetan emakumeen presentzia areagotzea (k=20; % 2,7); Enpresa ekimenak abian jartzearen eta indartzearen alorrean kopuru aldetik dagoen desberdintasuna murriztea, batez ere, ordezkariak txikiak duten sektore eta lanbideetan sustatzaileen partaidetza areagotuta (k=16; % 2,2); Administrazio publikoetan eta sektore pribatuko enpresetan emakumeen eta gizonen lan baldintzak parekatzea, eta lehentasuna langile gehien aritzen diren lan jarduerari ematea (k=13; % 1,8).
- **Herritarrak berdintasunaren inguruan sentsibilizatzea:** Gizartean berdintasun politikekiko interesa eta inplikazioa zabaltzea (k=39; % 5,3).

Baliabideak eta zerbitzuak sortzea zein egokitzea, eta sentsibilizatzea, informatzea eta jakinaraztea dira egindako lanaren ia bi heren (k=470; % 64,2); horrenbestez, administrazioek tratu eta aukera berdintasunerako erabilitako esku-hartze erreminta nagusiak direla esan dezakegu, baita emakumeek bizi dituzten diskriminazio egoerak hautemateko, jakinarazteko eta desagerrarazteko ere. Nolanahi ere, planean zehaztutako beste lau esku-hartze erremintak erabilia ekintza gehiago ere egin dira.

## BALORAZIO OROKORRA

Lehenik eta behin, nabarmendu beharra dago EAEko botere publikoek 2007an gizon-emakumeen arteko berdintasunarekin lotuta egindako lanak igoera handia izan zuela (% 46 gehiago). Edonola ere, 2008an aldaketarik apenas egon dela esan dezakegu.

Laugarren planean planteatutako ardatz estrategikoekin lotuta, ez dugu aldaketa handirik ikusi 2007an hautemandako joeren ondoan:

### Mainstreamingaren ardatza

- Administrazio publikoaren alor guztietan genero ikuspegia txertatzeko ekintza gehienak maila orokorrean ari dira gertatzen. Horrek esan nahi du oso jarduera gutxi daudela genero ikuspegia esparru zehatzetan txertatzera bideratuta (kultura, hezkuntza, lana, gizarteratzea, osasuna eta hiri-gintza eta ingurumena). Era berean, ikusten da berdintasun legea erabili dela *mainstreaming*erako oinarritzko erreminta gisa (bereziki II. izenburuan txertatutako artikulatua, genero ikuspegia botere eta administrazio guztietan txertatzeko neurriei dagokiena, *mainstreaming*erako oinarritzko erreminta den aldetik; esate baterako, egin beharreko proiektuetan genero ikuspegia kontuan hartzen duten klausulak edota irizpideak txertatzea, eta berdintasun irizpideak ezartzea diru-laguntzak, lizitazioak eta hitzarmenak jasotzen dituzten erakundeetan zein entitateetan).
- Hiru administrazio mailei dagokienez, berriz, datuek adierazten dutenaren arabera, Administrazio Orokorrean eta foru administrazioan genero ikuspegia txertatzera bideratutako ekintzek pisu espezifiko handia dute, bi administrazioek orotara egindako lanarekin alderatuta (% 34,2 eta % 31, hurrenez hurren). Ez da gauza bera gertatzen toki administrazioarekin; izan ere, ekintza mota horrek udaletan egindakoaren % 14,9 besterik ez baitu osatzen. Posible da, nolabait ere, udaletako berdintasun edota emakumearen sailek baliabide askoz ere gutxiago izatea (bai giza baliabideak, bai ekonomikoak) berdintasuna gainontzeko sailetan ezartzeko lanak egin ahal izateko, eta, horrenbestez, beren lehentasuna emakumei zuzendutako politika espezifikoak antolatzea eta betearaztea izango da. Horrez gain, kontuan izan behar da tradizionalki sail horiek elkartegintza sustatzearekin eta emakumeen arteko jarduera kulturalarekin lotura estuagoa izan duten ekintzak antolatu dituztela. Era berean, litekeena da toki administrazioek gizarte bazterkeria bizitzeko arriskua duten emakume talde espezifikoengan arreta ipini izana.

### Ahalduntzearen eta partaidetza soziopolitikoaren ardatza

- Ahalduntzea jarduteko ardatz garrantzitsua da administrazioaren hiru mailetan, batez ere toki administrazioan.
- Emakumeen ahalduntzea indartzeko garaian administrazio guztiek partekatzen duten alderdi bat hauxe da: sustatzen dituzten ekintzen ezaugarriak. Gehienetan, jarduera horien helburua emakumeen elkartegintza indartzeko neurriak izaten dira (ez hainbeste, ordea, talde espezifiko hauskorrenak); alderdi kulturalarekin edota garapen pertsonalarekin oso lotuta dauden jarduerak dira; foru aldundien kasuan, baztertzeko arriskua duten emakume taldeen ahalduntzea ere izaten da, baliabide ekonomikoak edota sozialak emanda (programa espezifikoak). Bestalde, oso gutxi dira osasunaren edota hezkuntzaren arloan emakumeen ahalduntzera bideratutako ekintzak, enpleguan izan ezik. Era berean, gutxi dira emakumeen partaidetza soziopolitikoak bultzatzeko ekintzak ere. Adibide gisa, har dezagun kontuan laugarren planeko jorratu ez diren helburuetako bi honako hauek izan direla: batetik, gizon-emakumeen partaidetza orekatua komunikabideetan, eta, bestetik, sexuen arteko desberdintasun kuantitatiboa murriztea unibertitate sistemako erabaki esparruetan.

### Bateragarritasun eta erantzukidetasunaren ardatza

- Ardatz horren inguruan esan beharreko lehendabiziko gauza da EAEko hiru administrazioek egindako ekintzetan presentzia eskasa izan duela, egindako % 6 besterik ez. Egoera horrek bere horretan jarraitzen du berdintasun planak indarrean izan diren urte hauetan guztietan. Hori dela eta, kezkarritzat jo daiteke, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren bidean oso garrantzitsua den ardatza den aldetik. Gizonezkoek presentzia txikia dute etxeko lanetan eta pertsonak zaintzen, eta horrek oztopo esanguratsua sortzen du emakumezkoek lana lortzeko eta lanean promozionatzeko garaian, baita erabaki esparruetan parte hartzeko ere (politikoak, ekonomikoak, kulturalak...). Bestalde, egungo lan eta gizarte antolaketa familia eredu tradizionaletan dago oinarrituta (emakumezkoa/esparru pribatua; gizonezkoa/esparru publikoa). Era berean, baliabide sozio-komunitarioak ere ez dira nahikoa, eta horrek galarazi egiten du pertsonen bizimodua, lana eta familia benetan uztartzea.
- Aipatu beharra dago, era berean, ardatz honen inguruan egiten diren ekintza apurrak emakumeen bateragarritasunarekin daudela lotuta batez ere, eta ez gizon-emakumeen mentalitatea aldatzera, bizikidetzeta eta harreman erantzunkidea lortzeko. Alde horretatik, nabarmentzekoa da honako helburu honen inguruan ekintza bat bera ere ez dela egin: antolaketa soziala aldarazteko erremintak sortzea, gizon-emakumeen arteko erantzukidetasuna lortzeko eta lana zein familia uztartzeko.

### Emakumeen aurkako indarkeria ardatza

- Azken urteetan emakumeen kontrako indarkeriarekin lotutako ekintzak modu esanguratsuan sendotu dira administrazioaren hiru mailetan, eta gainontzeko ardatzekiko duen pisuak % 20 ingurukoa jarraitzen du izaten. Horrekin lotuta, esan daiteke *Etxeko tratu txarrak eta sexu erasoak jasan dituzten emakumeei zuzendutako arreta hobetzeko erakundeen arteko lehen akordioa* sinatu izanak (emakume talde hori artatzeko inplikaturak zeuden eragile guztiek izenpetu zuten) mugarri bat ipini duela. Egoera hori are gehiago hobetu da 2008ko azaroaren 18ko Gobernu Kontseiluak *Erakunde arteko bigarren akordioa* sinatu zuenetik.
- Jasotako datuen arabera, emakumeen kontrako indarkeriarekin lotutako ekintza gehienak hirugarren mailako prebentzio bezala izenda genitzake, sexu erasoak eta etxeko tratu txarrak jaso dituzten emakumeei arreta emateko baliabideak hobetzera bideratuta baitaude (hobekuntzak kantitatean eta kalitatean). Horrek adierazten du prebentzioaren beste maila batzuetan ere arreta eman behar dela; hala nola, lehen eta bigarren mailetan. Azken bi urteetan, nolahi ere, emakumeen kontrako indarkeria prebenitzea helburu nagusi duten programak eta kanpainak nabarmen ugartu dira; esate baterako, eskolan esku hartuta (Nahiko programa) edota gizonezkoen inplikazioa lortuta indarkeriaren kontrako borrokan (Gizonduz programa). Era berean, gizon-emakumeen berdintasuna lortzeko lanik onena indarkeria matxista prebenitzea dela geure egin dugu.

Genero politiken inguruan Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren joera zein den aztertu dugu ardatz estrategikoen bidez. Balorazioen atala amaitzeko, ebaluazio honetan hautemandako ekintza espezifiko garrantzitsuenak zein izan diren nabarmenduko dugu:

- EAEko berdintasun legea betez, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioeko sailen eta organismo autonomoen lanpostu zerrendak onartu zituen dekretua aldatu dute. Jaurlaritzaren ondoko sailetan gertatu da hori: Ogasuna eta Herri Administrazio Sailean; Industria, Merkataritza eta Turismo Sailean; Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailean; Garraio eta Herri Lan Sailean; Kultura Sailean; Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailean; eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailean (Hirugarren Xedapen Osagarriaren bigarren paragrafoa betetzeko). Herrizaingo Sailaren

kasuan, gizon-emakumeen berdintasunerako unitate administratibo bat sortu da, eta lehendik zegoen plaza bat egokitu da, genero alorreko lan berriak ipinita.

- Oraindik ere hiru sailetan ez dute bete berdintasun legearen berdintasunerako unitate administratiboak sortzeko nahitaezkotasunaren inguruko artikulua: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak berdintasunerako unitate bat sortzeko izapidea bukatu gabe du; Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena falta zaio. Osasun Sailean, egitura aldatzeko espedientea hasierako fasean dago; eta azkenik, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak egitura aldatzeko izapide berriak hasteke ditu.
- Berdintasun plana duten udalen kopuruak handitzen jarraitzen du EAEn; 2008an beste bost udalek onartu du berdintasun plana, hori dela eta, orotara 57 udalek dute esandako plana.
- Hiru administrazioetako langileak genero berdintasunean trebatzearen inguruan, jakinarazi dute 1.010 pertsonak hartu dutela parte trebakuntza ekintzetan. Datu horren inguruan, Administrazio Orokorrek trebakuntza plan orokorra onartu izanak (berdintasun legeak eskatzen duen moduan) mesede egingo diola gai honen inguruan gero eta trebakuntza sendoagoa eta jantziagoa izaten. Horrez gain, administrazioetako langileei zuzendutako sentsibilizazio ekintza gehiago izan dira, batez ere Administrazio Orokorrean.
- Herritarrei oro har zuzendutako ekintzei dagokienez, ekintza kopurua nabarmen urritu da; seguruenerik sentsibilizazioarekin lotutako lan gutxiago egin delako eta talde horrengana zuzendutako ekintza gehienak sentsibilizazioarekin lotuta egoten direlako. Nolanahi ere, berdintasunaren eta emakumeen kontrako indarkeriaren inguruan sentsibilizazioak pisu esanguratsua izaten jarraitzen du botere publikoen ekintzen artean, batez ere toki administrazioetan. Garrantzitsua da, alde horretatik, EAEko udalek hartu duten lidergo jarrera, herritarrengandik eta komunitatearengandik gertuen dagoen administrazioaren maila den aldetik.
- Emakumeen elkartei zuzendutako jarduera gutxiago izan direla ere adierazi dute. Nahiz eta datu hau behar bezala azaltzeko nahikoa datu ez daukagun, pentsatu dugu horren arrazoia hau izan dela: erakunde publiko batzuek diru-laguntza deialdiak edota herritarrek parte hartzeko egitura berrien deialdiak ez dituztela emakumeen elkartei zuzentzen, baizik eta berdintasunaren alde egiten duten elkartei (elkarte horiek barne hartzen dituzte emakumeen elkarteak, baina baita mistoak zein gizon-emakumez osatuak ere), eta horrek emakumeen elkarten presentzia gutxitu egiten du talde hartzaile gisa.
- Nabarmendu beharreko datu bat haurtzaro eta nerabezaro taldeak agertu izana da, botere publikoen ekintzei dagokienez presentzia nabarmena izan baitute. Gure autonomia erkidegoko haurrak eta nerabeak hainbat alorretako kanpainen hartzaileak izan dira: kirolean berdintasuna sustatzea; koerantzukizuna sustatzea; emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea; eta sexualitate segurua eta positiboa lortzea.
- Emakumei zuzendutako trebakuntza jardueri dagokienez, garapen pertsonalari zuzendutakoak dira gehienak beste behin ere, eta oso urriak, bestalde, konparazio batera enplegu duina eta kalitatezkoa lortuta haien jabeak lortzea helburu dutenak. Trebakuntza jardueren joera hori ez dator bat udal batzuek jabeak eskolat sustatzeko egiten duten ahaleginarekin; eskola horien helburua emakumeen partaidetza politikoa eta soziala sustatzea da politika publikoetan eragin ahal izan dezaten; edota hiru mailetako erakundeek emakumeen presentzia erantzukizuneko postuetan ugaritzeko egindako lanarekin, batez ere sektore publikoan.
- Modu positiboan nabarmentzeko beste datu bat baliabideetan zein zerbitzuetan sentsibilizatzeko, informatzeko edota trebatzeko jardueretan bateragarritasuna sustatzen duten mekanismoak txer-

tatzea izan da, edota jarduera horiek herritarren aniztasunera egokitzea. Bi kasuetan nabari da bi errealitateek dituzten programa zein ekintza kopurua ugarritu egin dela; edonola ere, ez da nahikoa oraindik, eta, horrenbestez, ezinbestekoa da lan gehiago egitea erakunde publikoek aniztasunaren eta aukera berdintasunaren aldeko benetako apustua isla dezaten.

- Arauak sortzearekin edota aldatzearekin lotuta erakunde publikoek jakinarazitako ekintzek erakusten dute berdintasun legea hobeto bete dela, batez ere berdintasun irizpideak klausuletan txertatzeari dagokionez, edota genero ikuspegia lizitazioetan, diru-laguntzetan zein hitzarmenetan txertatzeari dagokionez. Era berean, sariketetako zein lehiaketetako epaimahaietan kide kopuru paritarioak izateko klausuletan ere paritatea bermatuko duten klausulak txertatzeak ere laguntzen dio berdintasun legea hobeto betetzeari. Gure ikuspegia kontuan izanik, horrek erakusten du legea erreminta garrantzitsua dela genero ikuspegia administrazioaren barruan txertatzeko.

Balorazioen atal hau amaitzeko, zera nabarmendu nahiko genuke: laugarren planaren indarraldia amaitzeko urtebete besterik falta ez den honetan, gure ustez garrantzitsua izan dela arreta berezia ematea oraindik ere atzeratu samar dauden alderdiak nabarmentzeari; izan ere, oinarritzkoa dela iruditzen zaigu atal horiek aldatzea genero ikuspegia EAEko administrazio publikoetan eta haien politika publikoetan kuantitatiboki hobeto txertatzeko. Hala eta guztiz ere, horrek ez du esan nahi 2007ko ebaluazioan adierazitako berdintasun politiken inguruko aurrerapen nabarmenak albo batera utzi nahi ditugunik edota garrantzia kendu nahi diegunik.

## EUSKADIKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN EGOERARI BURUZKO ZIFRAK - 2008. LABURPENA

### 1. Panoramika demografikoa

2008ko datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak (EAEk) 2.147.112 biztanle ditu. Horietatik % 51,1 emakumezkoak dira, eta % 48,9, berriz, gizonezkoak. Adin-taldeen arabera, aurreko urteetako joera errepikatzen da, hau da, 45 urte bitarteko adin-taldean gizonezko gehiago dago emakumezkoak baino, eta 70 urtetik aurrera, berriz, emakumezkoak dira biztanleen % 55 baino gehiago.

EAEEn, eskuragarri den 2005eko azken datuaren arabera, emakumezkoen bizi-itxaropena 84,3 urtekoa da, eta gizonezkoena, berriz, 77,2 urtekoa; 7,1 urteko aldea dago, hortaz. Europar Batasunari dagozkion datuak aintzat hartuz gero, nabarmentzekoa da EAEko bizi-itxaropenak gainontzeko estatu ia guztietakoa gainditzen duela, emakumei zein gizonei dagokienez.

EAEEn errolatutako biztanle atzerritarrak 117.337 dira, hau da, biztanleria osoaren % 5,4. Datu hori iazkoa baino 0,8 puntu altuagoa da. Sexuaren arabera, biztanle atzerritarren kopurua nahiko orekatua da: emakumezkoak % 48,6 dira. Jatorriaren arabera, berriz, desberdintasun batzuk daude. Atzerriko biztanleen erdia, gutxi gorabehera, Amerikatik dator, eta talde horretan % 59,7 dira emakumezkoak. Atzerritar-kopuruaren arabera zerrendan, bigarren kontinentea Europa da, eta talde horretan gizonezkoak dira gehiengoak, % 57,8, hain zuzen ere. Afrikatik datozen pertsona gehienak ere gizonezkoak dira (% 68,1).

2007an 9.220 ezkontza izan ziren EAEEn. Ezkontza-tasa, hau da, 1.000 biztanleko ezkontza-kopurua, 4,3koa izan zen. Urte berean 5.333 dibortzio-, banantze- eta baliogabetasun-epai izan ziren. Epaiak mantenu-pentsioa ordaintzea agintzen duenean, kasuen % 45,6an aitak ordaindu behar izaten du. Dibortzioen kasuan joera antzekoa da, pensioa aitak ordaindu behar izaten baitu kasuen % 47,3an.

2007an 20.828 haur jaio ziren EAEEn, 10.038 neska eta 10.790 mutil. EAEko jaiotza-tasa, hots, 1.000 biztanleko jaiotza-kopurua, 9,6koa da.

Ugalkortasun Indize Sintetikoa (UIS), hau da, adin ugalkorrean (15 urtetik 49 urtera) dagoen emakume bakoitzeko batez besteko seme-alaba kopurua da jaiotza-tasaren bilakaera aztertzeko beste modu bat. Datozen urteetako herritarren mugimendu naturalei buruzko estatistika-kalkuluen arabera, ama izateko adina duen emakume bakoitzeko batez besteko seme-alaba kopurua 1,4 ingurukoa izan da 2008. urtean, eta 1,5ekoa izango da 2015ean.

Ama izateko batez besteko adinak gora egin du azken 30 urteotan. 1977an Estatuko batez bestekoa 28,4 urte zen, eta 2007ko batez bestekoa, berriz, 30,8 urte. EAEEn 4 urte igo da batez bestekoa, 28,4tik 32,2ra, eta Europa osoko altuena da, gaur egun.

2007an 19.251 heriotza izan ziren EAEEn, eta horietatik erdia baino gutxiago zegozkien emakumezkoak, 9.230, zehazki (guztizkoaren % 47,9). Hilkortasunari buruzko datuek alde handiak erakusten dituzte sexuari erreparatuz. Izan ere, sexuen arteko bizi-itxaropen aldearen ondorioz, gizonezkoen heriotzak emakumezkoenak gainditzen dituzte 80 urtera arteko adin-tarte guztietan.

### 2. Hezkuntza

Hezkuntza nahitaezkoa dela eta, ikasleen sexuaren arabera aldea talde horien banaketa demografikoaren mende daude lehen eta bigarren hezkuntzan. Horrela, unibertsitatetik kanpoko irakaskun-

tzan, erregimen orokorrean eta ikastetxe publiko nahiz pribatuetan matrikulatutako ikasleen artean ez dago sexuaren araberako desberdintasunik. Eremu horietan, errendimendu akademikoan ageri dira desberdintasunak, emakumezkoen errendimendua gizonetzkoena baino hobea baita.

Ostera, batxilergoa eta lanbide-heziketaren gisako maila altuagoetan, curriculum-ezberdintasunak hasten dira. Eremu horietan garrantzia hartzen dute generoari lotutako eginkizunek, ez hainbeste curriculum orokorrean, baina bai ikasleek hautatutako adarretan. Batxilergoko aukerei dagokienez ere, sexuen arteko aldeak nahiko nabarmenak dira. Aurreko urteetako joerari jarraiki, Arteen batxilergoan matrikulatutako ikasleen % 76,9 emakumezkoak dira, eta Zientzia-teknika adarrean matrikulatutakoak, berriz, % 32,7. Osasun Zientziei, Giza Zientziei eta Gizarte Zientziei dagokienez, berriz, matrikulatutako 10 pertsonatik 7 dira emakumezkoak.

Erdi mailako lanbide heziketa egiten dutenen artean, aldiz, ia % 60 gizonetzkoak dira. Alde hori are % 66raino ere handitzen da ikastetxe publikoetan, eta % 51,7ra jaisten da ikastetxe pribatuetan. Lanbide Heziketako ikastetxea publikoa edo pribatua izatearen araberako desberdintasunak lotuta daude ikastetxe horietan eskaintzen diren ikasketak-motarekin. Parekotasun-printzipioa betetzeko sexu-etako baten presentzia % 40 baino txikiagoa ez dela izan behar kontuan hartuta, erdi mailako lanbide heziketan eskaintzen diren 20 adarretatik lautan bakarrik betetzen da printzipio hori: Komunikazioa, Irudia eta Soinua da bata, Arte Grafikoak bestea, Ostalaritza eta Turismoa hirugarrena, eta Elikaduraren Industriak laugarrena.

2007/2008 ikasturtean 61.649 ikasle matrikulatu ziren Euskal Herriko Unibertsitatean, horietatik ia % 55 emakumezkoak. Sexuen arteko alde hori are gehiago nabarmentzen da titulazio-motari erreparatuz gero. Horrela, lizentziaturetan gizonetzkoak ez dira % 36ra heltzen, eta diplomaturetan, berriz, ezta % 30era ere. Ostera, ehunekoak irauli egiten dira ingeniarietza eta arkitekturetan: Ingeniaritzan eta Arkitekturetan matrikulatuetatik % 34,5 dira emakumezkoak, eta ingeniarietza eta arkitektura teknikoetan matrikulatutakoak % 26,1.

Irakasleria da hezkuntzaren mundua osatzen duten zutabeetako bat. Talde horretan, emakumezkoen presentzia oso garrantzitsua izan da unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza orokorrean, lehen eta bigarren hezkuntzetan, batez ere. 2007/2008 ikasturtearen azterketa orokorrak joera hori baieztatzen du erdi-mailako irakaskuntzara arte, tarte horretan gizonetzko irakasleak ez baitira % 40ra heltzen. Haur Hezkuntza da, bereziki, emakume gehien dituen arloa, % 91,1, hain zuzen ere.

Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan gertatzen denaren aurka, unibertsitatean gizonetzko irakasleen ehunekoa handiagoa da, guttizkoaren % 60 inguru.

### 3. Lana

Oro har, etxeko lanen erantzukizunaren bilakaerari dagokionez, uste da gizonetzkoek geroz eta gehiago parte hartzen dutela lan horietan, baina bilakaera hori oso motela izaten ari dela. Euskadiko azken 4 urteetako datuak ez dira hain itxaropentsuak, ordea. Izan ere, gora egin du etxeko lanak egin ohi dituztela dioten emakumezkoen ehunekoak, landunenak zein langabeenak.

Ostera, gizonetzko landunen eta langabeen artean, beste bilakaera bat izan du etxeko lanak egin ohi dituzten gizonetzkoen ehunekoak 2005 eta 2007 urteen artean: gizonetzko landunen artean, behera egin du ugalketa-lana beren gain hartu ohi dutela aitortzen dutenen ehunekoak, baina lan horiek egiten dituzten gizonetzko langabeen ehunekoak, berriz, gora.

Emakumezkoen jarduera-tasa, 2001ean, % 42,2koa zen. 2008ko datuen arabera, aldiz, % 46,3ra igo da. Euskadiko biztanleen jarduera-tasa 2008an % 53koa zen, hortaz, osoko genero-hesia 17,7

puntuakoa da. Langabezia-tasa, berriz, nabarmen jaitsi da azken 20 urteetan: % 21,5etik % 3,8ra egin du behera, eta jaitsiera horrek gizonezko zein emakumezkoen eragin die. Emakumezkoen erreparatur gero, langabezia 26,6 puntu jaitsi da, eta gizonezkoengan, berriz, % 13,2. Hala eta guztiz ere, urte horietan guztietan, eta gaur egun ere, langabezia-tasa altuagoa da emakumezkoen artean.

Emakumeek zerbitzuen sektorean dihardutela da lan-merkatuaren arloan emakumeen egoerari buruz aipa daitekeen beste errealitate hedatu bat. Izan ere, kontratatutako 10 emakumetik ia 9k sektore horretan dihardute; industria da emakumeek aukeratzen duten bigarren sektorea.

Lan-egonkortasunak gora egin du azken urteetan: 1998an gizonezkoen % 71k kontratu mugagabea edo finkoa zuen, eta 2008an, berriz, 10 puntu igo zen ehuneko hori. Era berean, gora egin du lan-kontratu egonkorra duten emakumezkoen ehunekoak ere, % 56tik % 72ra (16 puntu). Aurrerapenak izan diren arren, 2008an lan-kontratu egonkorra zutenen arteko genero-hesia ia 9 puntuakoa zen.

Oro har, lanaldi partziala duten emakumeen ehunekoak, emakumezko landunen guztizkoarekiko, altuagoa da gizonezkoena baino: autonomoen artean lan-jardunaldi partzialdun emakumezkoak % 5,3 dira eta gizonezkoak % 0,8; sektore publikoko soldatadunetan % 6,4 eta % 2,6; eta sektore pribatuko soldatadunen eta kooperatibisten artean, ia % 19,2 emakumezkoak eta % 2,1 gizonezkoak.

Emakumeek elite ekonomikoan duten tokia askoz beherago dago oraindik gizonezkoekin erkatuz. Enplegu-emaitzen artean, adibidez, % 23,5 bakarrik dira emakumezkoak.

Ordaindutako lanari dagokionez, emakumeen egoerari buruzko alderdirik onenetako bat ezbehartasa baxua da. 2008an, Osalanek 49.094 lan-istripu zenbatu zituen, eta horietatik % 23k bakarrik eragin zien emakumei.

Bereziki larria da egindako lanaren soldata-aitorpenean den berdintasun-eza. Soldata-egiturari buruzko inkestaren arabera, gizonen eta emakumeen arteko urteko soldata-ezberdintasuna, 2006an, 7.365,9 eurokoa zen. Desberdintasun hori gehien nabari duena zerbitzuen sektorea da, 8.196,6 euroko aldearekin.

## 4. Gizarteratzea

2008ko azken datuen arabera, EAEko etxeetako pobretasun-profila guraso bakarreko (ama) familia da, familiako buruak lan egonkorrik ez duelarik. Profil horretan pobretasun-mota guztiak dira altuagoak (mantentze- eta metatze-pobretasunak, pobretasun erreala eta ongizate osoaren gabezia).

Horrela, bada, emakumezkoen % 47,1ak pobretasun arriskua du, eta gizonen % 10,7ak. Horrez gainera, diru-sarreraren arabera pobretasun-arriskua duten pertsonetatik % 82,9 emakumeak dira.

2006an emakumezkoen zentroek 202 erabiltzaile izan zituzten, eta 3.279.000 euro jaso zituzten, guztira. Finantzaketa publikoa izan zen ia osotasunean. Zetro-mota horiek dira, ordea, baliabide publiko gutxien jasotzen dituztenak. Zerbitzu horren erabiltzailea/gastua ratioa kontuan hartuz gero, ratio baxuagoa duen zerbitzu bakarra gizarte-bazterketara zuzendutakoa da (10 mila euro pertsonako jasotzen ditu azken horrek). Arriskuan dauden eta zerbitzua erabiltzen duten emakume bakoitzeko 17 mila euro bideratzen dira, eta hori gutxi da adineko pertsonen (23 mila euro), ezintasunak dituztenei (30 mila euro) edo haur eta gazteei (39 mila euro) bideratutakoarekin erkatuz.

## 5. Osasuna

EAEko biztanleek norberaren osasunaren gaineko pertzepzio positiboa daukate, oro har. Gai horri dagokionez, ez dago sexu-arteko ezberdintasun nabarmenik, gizonaek erantzun positiboetan emakumezkoek baino adierazle zertxobait altuagoak dituzten arren. Izan ere, EAEko biztanle guztien erdiak bere osasuna ona edo oso ona zela uste zuen 2007an. Hala ere, pertzepzio horrek okerrera egiten zuen bi sexuetan, adinean aurrera egin ahala. Urteen joanarekin, osasunaren gaineko pertzepzio negatiboa areagotu egiten da bi sexuetan. Baina 65 urtetik gorako emakumeek adin bereko gizonen baino pertzepzio pixka bat okerragoa dute beren osasunaz.

Emakumeek gehiago erabili ohi dituzte osasun-zerbitzuak. Estatistikek berretsi egin dute emakumezkoak urteen joanean gehiagotan joaten direla medikuarenera. Ezberdintasunak lausotu egiten dira, ordea, adinean gora egin ahala eta, batez ere, 65 urtetik aurrera. Adin horretan maiztasun-adierazleak antzekoak dira gizon eta emakumezkoentzat.

Emakumezkoen kasuan, eta aurreko urteetako joerarekin bat etorriz, haurdunaldia eta erditzea dira ospitaleratzea eragiten duten diagnostikorik ohikoenak; EAEko emakumezkoen ospitaleratze guztien ia laurden bat (% 23,5) arrazoi horiengatik izan da. Gizonaen kasuan, diagnostikorik ohikoenak zirkulazio-aparatuko gaixotasunak eta digestio-gaixotasunak dira, kasuen % 20,1 eta % 19,1, hurrenez hurren.

EAEko ospitaleratzearen iraupenari buruzko estatistikek ondorio interesgarri batzuk azaldu dituzte, aurreko urteetan bezala. Ia kasu guztietan gizonen emakumeek baino denbora luzeagoa eman dute ospitaleetan, diagnostiko bera izanda. Emakumeen ospitaleratzea apur bat luzeagoa da, soilik, gaixotasun osteomuskularrekin eta lokomozio-aparatuko gaixotasunekin edo erditzearekin lotutako ospitaleratzeen kasuetan.

Tabakoaren kontsumoari dagokionez, bi sexuen artean desberdintasun handiak daudela adierazten dute estatistikek, baina azken urteetako joera errepikatuz. Horrenbestez, gizonaek tabako gehiago kontsumitzen dutela egiaztatu den arren, sexuen arteko aldea handitu egiten da adinean gora egin ahala. Ehunekoak antzekoak dira gazteen artean, ordea, eta batzuetan emakumezkoek kontsumitzen dute gehiago.

Alkohola edateaz ere antzekoa esan daiteke. Oro har, gizonaek emakumezkoek baino gehiago eta maizago edaten dute. Hala ere, aurreko urteetan frogatu izan den bezala, aldeak murriztu egiten dira adinaren arabera; hala, emakume eta gizon gazteen ohiko kontsumoa antzekoa da, eta helduen artean, berriz, aldea handiagoa da, baina ez tabakoaren kontsumoan bezain nabarmen.

Osasun-azterketa ginekologikoei erreparatuz gero, EAEko emakumeen % 85,1 noizbait izan da espezialista horren kontsultan, *Osasun Inkesta Nazionaleko* datuen arabera. Bada garrantzi handia duen beste alderdi bat ere: umetoki-lepoko minbizia garaiz diagnostikatzeko probak, hain zuzen, baginako zitologiak eginda. EAEko emakumezkoen % 75,3k egin du noizbait zitologia bat; kopuru hori Estatuko batez bestekoa baino handiagoa da (% 69). Maiztasunaren ehunekoak are handiagoak dira 20 eta 64 urte arteko emakumeen artean. Adin-tarte horretako emakumeen % 61ak duela gutxi egin du frogatu hori.

EAEko emakumezkoen erdiak baino gehiagok mamografia bat egin du inoiz. Horien % 50,7k bularreko minbizia garaiz detektatzeko programak bultzatuta egiten dute. Izan ere, 50 eta 64 urte arteko emakumeen % 91k mamografia bat egin du, gutxienez, ikerketa egin aurreko hiru urteetan. Bularreko Minbizia Garaiz Detektatzeko Programak, batez beste, % 75eko parte-hartzea izan du azken urteotan. 2008. urtean programa horren bidez EAEko 129.140 emakumeri eman zitzaien mamografia egiteko

aukera, eta kopuru hori aurreko urtekoa baino % 4,51 altuagoa izan zen. Alabaina, parte-hartze tasak behera egin zuen 2007tik 2008ra, % 76,5etik % 75,9ra igaroz, hurrenez hurren.

EAEko Haurdunaldien Borondatezko Etenduren (HBE) tasa bikoiztu baino gehiago egin da azken hamar urteotan: 1995ean 2,55ekoa zen, eta 2007an 6,9koa. Dena dela, autonomia-erkidegoen artean, EAE da HBEn tasa txikiena duen erkidegoetako bat.

2007an, 3.444 HBEren berri eman zuten EAEko Haurdunaldien Borondatezko Etenduren Erregistroan, aurreko urtean baino 500 kasu gehiago, ia. Horietatik, ebakuntza-kopuruaren % 17,8 beste autonomia-erkidego batzuetan bizi diren emakumeei egin zitzairen, inguruko autonomia-erkidegoetan bizi diren emakumeei, batik bat. Guztira, EAEko 2.955 emakumek eten zuten borondatez haurdunaldia; eta gehienek (% 95,8) EAEko zentroetan egin zuten.

Adinari dagokionez, EAEn, Estatuko joerari jarraiki, erregistratutako adierazlerik handiena (13,2) 20 eta 24 urte arteko emakumeena da, eta adierazle hori 3 puntu igo da aurreko urtearekin erkatuz. Adin horretatik aurrera, tasa murriztu egiten da 1,7 egin arte; 40 urte baino gehiagoko emakumeei dagokie kopuru hori.

2007. urtean EAEn haurdunaldia borondatez eten zuten emakume gehientzat (% 74,8) lehendabiziko aldia izan zen. Haurdunaldia borondatez eteteko arrazoiek azken urteotan izandakoen joerei jarraitzen diete: kasuen % 94,1 haurdun zegoenaren osasun fisikoa edo psikikoa arriskuan zegoelako izan zen; arrazoi berberetatik Estatuan egindakoen batez bestekoa, berriz, % 96,9koa da.

Ebakuntza gehienak (% 65,7) haurdunaldiaren lehen zortzi asteetan egin ziren. Gainera, azken urteotako joerarekin bat etorriz, kasuen erdia baino gehiago (% 54,6) aspirazioaren bidez egin ziren, eta etenduren laurdena egiteko RU-486 metodoa erabili zen.

Haurdunaldia borondatez eten duten 19 urte baino gutxiagoko gazteen kopurua hazi egin da, Estatuan zein EAEn. Datuak bildu ziren azken urtean, 2007. urtean, 15 urte baino gutxiago zituzten 9 gazteri egin zitzairen EAEn haurdunaldia beren borondatez eteteko ebakuntza. Mota horretako ebakuntza egin zaien 15 eta 19 urte bitarteko gazteen kopurua nabarmenki handiagoa da aurreko urtekoa baino, hots, 356.

Datuak bildu ziren azken urtean, 2007. urtean, 20.874 erditze izan ziren EAEn, eta horietatik 2.740 (% 13,1) zentro pribatuetan egin ziren. Emakume gehientsuenak (% 75,5) anestesia epidurala erabiliz erditu ziren, eta % 1,9 bakarrik izan ziren erditze anizkoitzak. Horrez gainera, Euskadin izan ziren erditze guztietatik 3.092 (% 14,8) zesarea bidez egin ziren. Aurreko urteotako joerarekin bat etorriz, aldeak daude ospitale publikoetan eta pribatuetan izaten diren erditzeen artean. Hala, ospitale publikoetan erditzeen % 12,5 zesarea bidez izan ziren, eta ospitale pribatuetan, berriz, laurden bat baino gehiago (% 30,1).

## 6. Emakumeen aurkako indarkeria

Mota honetako indarkeria pairatzen duten emakumeei buruzko estatistiken funtsezko iturria emakumeek egindako salaketak dira. 2008. urtean, 4.375 izan ziren, guztira, EAEn emakumeen aurkako indarkeria-gertaeren eta tratu txarren delitu eta hutsegiteengatiko salaketak. Azken urteotan, adierazle berean kopuruak dezente egin duela gora erakusten dute kopuru horiek. Izan ere, 2006. urtean 3.700 salaketa jarri zituzten, eta 2007. urtean, berriz, 4.205.

Gertaera-motari dagokionez, berriz, aurreko urteotako joerei eusten zaio: hala, 2008an erregistratutako biktimizazio guztietatik % 89,7 delitutzat jo ziren, eta % 10,3 hutsegitetzat. Delituen artean,

erdia baino gehiago torturaren eta osotasun fisikoaren aurkako delitutzat jo ziren, oro har, eta familia-eremuan egindako ohiko tratu txartzat, zehatzago esateko. EAEn salatzen diren kasu gehienetan (% 77,4) indarkeriaren egilea emakumearen bikotekidea edo bikotekide ohia izaten da.

Indarkeria edo tratu txarren ondorioz, hiru emakume hil ziren EAEn 2008an. Heriotza izan zen guztietan, biktimaren ezkontidea edo antzekoa izan zen hiltzailea. Kopuru hori ez da aldatu azken urteotan.

EAEko milioi emakume bakoitzeko eraildakoen tasa Estatuko batez bestekorik txikienetakoa izan da ia epealdi guztietan, baina bilakaera ez da berdintsua izan.

Sexu-askatasunaren aurkako delituak hazi egin dira EAEn azken urteotan. 2008an 342 salaketa egin ziren arlo horretan. Salaketa horiek lurraldez lurralde aztertuta, erdiak Bizkaian izandako gertaerei buruzkoak dira. Delitu horiek honela sailkatu ziren funtsean: sexu-erasoak (175 kasu), sexu-gehiegikeriak (112 kasu) eta exhibizionismoa (39 kasu).

Beste autonomia-erkidegoekin alderatuta, EAE zerrendaren erdialdean dago, Emakumearen Erakundearen arabera. Hala ere, autonomia-erkidegoen arteko aldeak egin ondoren lortutako datuak erlatiboak dira, Emakumearen Erakundeak Euskadiri buruzko datu partzialak baino ez baititu ematen; hortaz, delitu-mota horien intzidentzia oraindik ere handiagoa dela ondoriozta dezakegu.

## 7. Kultura eta Jarduera Fisikoa

Ez dago sexuen arteko alde handirik liburu, aldizkari, zinema edo musikaren kontsumoari dagokionez; bai, ordea, interesa pizten duten gaiak eta aldizkariak irakurtzeari dagokionez. Eguneroko irakurketa-maiztasunari buruzko datuen arabera, inkesta bete duten gizonezkoen % 62,6ak adierazi du egunkaria egunero edo ia egunero irakurtzen duela, eta emakumezkoen ehuneko hori 11 puntu baxuagoa da.

Genero-hesia oso nabarmena da gizonezko eta emakumezkoentzat interesgarrienak diren gaiak aukeratzeko orduan. Hala, emakumeen % 59,5ak eta % 43,6ak gizartea eta kultura aipatzen dituzte, hurrenez hurren, interes handiko gaitzat; gizonen artean, berriz, gai horiei dagozkien ehunekoak 17,5 eta 14,9 puntu jaisten dira, hurrenez hurren. Zalantzarik gabe, kirola da genero-hesi zabalena sortzen duen gaia: emakumezkoen % 14,3k bakarrik aipatzen du interesgarritzat, eta gizonezkoen artean, berriz, inkesta bete dutenen ia erdiak. Alde horiek ez dagozkio soilik egunkariak irakurtzeari; aitzitik, beste argitalpen-mota batzuei ere eragiten diete.

Emakumeak maizago joaten dira liburutegi, museo edo arte-galerietara, sexuen arteko aldeak txikiak diren arren.

Musika entzun ohi dutela esaten dutenen artean, musika-motarik gogokoenak pop-rocka, musika klasikoa, euskal musika herrikoa eta egile-musika dira. Gustuko duten musikari dagokionez, genero-hesiak handiagoak dira. Horrela, emakumeen ia % 55aren musika-mota gogokoena pop-rocka da, gizonen kasuan, berriz, % 62,1arena. Emakumeen kopuru handi batek (% 25,6) abeslari melodikoak aukeratu ditu hirugarren musika-motatzat, baina gizonentzat bosgarren aukera da hori (% 14,2).

Euskal herritarrek ordu bat eta bost ordu bitartean ikusten dute telebista. Egunean bi ordu baino gehiagoz telebista ikusten dutenen artean, emakumezkoak gehiago dira gizonezkoak baino. Oro har, bi ordu baino gutxiagoz telebista ikusten dutenen artean gizonezkoen ehuneko emakumezkoena baino handiagoa da.

Emakumezko zein gizonezkoek, berriak, filmak eta telesailak dira telebistan gehien interesatzen zaizkien programak. Emakumeen % 73,9ak eta gizonen % 76,7ak telebista erabiltzen dute gertaera

berrienen jakitun izateko. Sexuaren araberako antzekotasun horiek filmei dagokienez ere mantentzen dira, hori baita telebistari ematen zaion bigarren erabilerarik ohikoena. Hala ere, egunkari eta aldizkarietan gertatzen den bezala, kirolak sexuen arteko alde argiak ezartzen ditu: gizonen % 38,5ak jotzen du kirola lehentasuntzat, eta emakumezkoen artean, berriz, % 7,4ak. Ostera, emakumezkoek gizonetzkoek baino nahiago dituzte telesailak eta lehiaketak.

Kultura-jardueren atal hau bukatzeko, jendeak antzerki-, lirika-, dantza- eta bertsolaritza-ikuskizunetara joateko dituen ohiturak aztertzen dira. Datuek erakusten dutenez, jokaera ezberdina da generoaren arabera. Hala, dantza edo lirika ikusteko antzokira inoiz edo ia inoiz gerturatzen ez direnen ehuneko txikiagoa da emakumezkoen artean; eta genero-hesia nabarmena da antzerkiari dagokienez, batez ere. Ordea, bertso-saio batera inoiz edo ia inoiz joan ez direnen artean, emakumezkoen ehuneko handiagoa da, 2,4 puntuz.

Eusko Jaurlaritzak urtero egiten duen Osasun Inkestak herritarrek egiten duten jarduera fisikoaren berri jasotzen du. Hala, jarduera horren maiztasuna neurtzeko xedearekin, pertsonak lau taldetan sailkatzen dira: sedentarioak, neurrikoak, aktiboak edo oso aktiboak. 2002ko eta 2007ko datuak erkatuz, sedentarioen multzoan sartzen diren pertsona-kopuruak behera egin duela aipa daiteke: 2002an emakumeen % 68,7k jotzen zuen beren burua sedentariotzat, gerora, berriz, ehuneko hori % 57,2ra jaitsi da. Gutxitze hori antzekoa izan da gizonezkoen eta emakumezkoen artean, horrenbestez, genero-hesia ez da murriztu; izan ere, 2002an aldea % 19,5koa zen, eta 2007an, berriz, % 19,2koa.